

Eusko Jaurlaritzak,
2017-2020 Legegintzaldian,
**giza eskubideen eta
bizikidetzaren**
arloan sortutako
dokumentuen bilduma



-
1. Proiektu orokorra
 2. Iragana argitzea
 3. Biktimak
 4. Memoria

5. Espetxe-politika

6. Hezkuntza
 7. Erlijio-aniztasuna
 8. Asiloa eta migrazio zaurgarria
 9. Nazioarteko ekarpena
 10. Eranskina. ETAren armagabetzea eta desegitea
-

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritzaren Idazkaritza Nagusia

2020ko uztaila



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetzeta
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

Aurkibidea

Bilduma honen aurkezpen orokorra.	4
Liburu honen aurkezpena.	6
1. dokumentua. Urruntzeko espetxe-politikak presoen familiengan duen eraginari buruzko txostena.	9
2. dokumentua. Sailarteko lantaldeak gizarteratze-politika publikoen esparru bat aurreikusteko hartutako oinarrizko testua, justizia leheneratzailearen Europako korrontearen ildotik.	43
3. dokumentua. Espetxe-politikaren arloko Eusko Jaurlaritzaren ekimenen eguneratzea 2020ko urtarrilean.	63
4. dokumentua. Eusko Jaurlaritzak espetxe-politikan azken bi Legegintzaldietan egindako jardunaren panoramika.	73
5. dokumentua. Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzaren txostena, presoak urruntzeak Covid-19aren testuinguruan dituen arriskuei buruzkoa.	113

Bilduma honen aurkezpen orokorra

2011ko urriaren 20an, IX. Legegintzaldiko (2008-2012) azken urtean, ETAK “jarduera armatuaren behin betiko amaiera” iragarri zuen. Urtebete geroago, hauteskunde autonomikoak egin ziren eta Iñigo Urkullu Renteria buru zuen lehen gobernuari bide eman zioten (X. Legegintzaldia: 2012-2016). Hamarkaden ondoren lehen aldiz, euskal politikak eta gizarteak indarkeriaren eta terrorismoaren mehatxurik gabeko Legealdia izan zioten.

Une hartan, Lehendakariak hartutako lehen erabakietako bat Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusi berri bat sortzea izan zen, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariari atxikia eta haren mende zuzenean. Helburu nagusia indarkeriaren amaiera ordenatua lortzen laguntzea eta *Gizartea Elkartzea* zen.

2016ko irailaren 25ean izan ziren berriro EAEko hauteskundeak. Urte hartako urriaren 20an, Eusko Legebiltzarrak hasiera eman zion XI. Legegintzaldiari (2016-2020). 2016ko azaroaren 23an, Iñigo Urkullu Renteria izendatu zuten Lehendakari, bigarren agintaldian.

Aurreko Legegintzaldiko Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiari dagokionez, Lehendakariak egitura horri eutsi zion, baina aldaketa batzuk eginda izenari eta funtzioei dagokienez. Horrela, Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia izena hartu zuen. Hirugarren esparru hori sartu zuen, *lankidetzarena*, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia haren barruan sartu zelako. Idazkaritza horri atxikita geratu zen, halaber, errefuxiatuen krisi humanitarioari eman beharreko erantzunaren koordinazioa.

Horrela, XI. Legegintzaldian Idazkaritzak bere barne-egituran Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza, *Gogora* Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko Zuzendaritza eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendaritza izan ditu.

XI. Legegintzaldian, aurrekoan bezala, Idazkaritzak Legegintzaldiko plan estrategiko bat izan du: 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana. Gogora Institutuak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak sail-plan mailako bi jarduera-programaren bidez antolatu dute beren egitekoa.

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017ko apirilaren 4an aurkeztu zen, eta urte bereko urriaren 10ean onartu zen behin betiko. Aurreikuspenetatik 16 ekimen eta horietatik eratorritako programa eta jarduera ugari atera dira.

Liburu-bilduma honek hamar liburutan biltzen ditu 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren garapenaren esparruan Legegintzaldi honetan sortutako dokumentu nagusiak. Horien egitura, izenburuak kontuan hartuta, honako hau da: (1) Proiektu orokorra, (2) Iragana argitzea, (3) Biktimak, (4) Memoria, (5) Espetxe-politika, (6) Hezkuntza, (7) Erljio-aniztasuna eta (8) Asilo eta migrazio zaugarria, (9) Nazioarteko ekarpena, eta (10) Eranskina: ETaren armatzea eta desegitea.

Bosgarren liburu honek espetxe- eta gizarteratze-politikei buruzko dokumentuak biltzen ditu.

Giza eskubideen agenda Covid-19aren ostean

2016an amaitu zen Legegintzaldiaren eta 2020an amaitu denaren artean, beste aldaketa esanguratsu bat egon zen Eusko Jaurlaritzaren arlo horren izendapenarekin lotuta, baina kontzeptuzko funts garrantzitsu batekin. “Bakearen” eta “bizikidetzaren” Idazkaritza izatetik “giza eskubideen” eta “bizikidetzaren” Idazkaritza izatera igaro zen. Aldaketa horren atzean 2016aren amaieran adierazitako egoeraren diagnostiko hau zegoen:

“Bakea, terrorismoak eta indarkeriak markatutako garai baten amaierari lotua, atzean geratzen ari zen agenda giza ikusten zen sozialki. Egiteke zegoen agenda bat zen, iraganari lotua. Giza eskubideekin lotutako bizikidetzaren formulazioa, egiteke zeuden erronkak ahaztu gabe, mundu aldakor eta ziurgabetasunez inguratutako baten erronketara hobeto egokitzea zen. Giza eskubideen eta orainari eta etorkizunari lotutako bizikidetzaren agenda azaleratu zen”.

Diagnostiko hura zehatza izan zen. Euskal XI. Legegintzaldiko denbora, arlo horretan, funtsezko bi egitate-ren ondorioz igaroko da historiara:

- Alde batetik, ETAre armagabetzea 2017ko apirilaren 8an, eta behin betiko desegitea 2018ko maiatzaren 3an. Hori guztia iraganaren ondorio eta zeinu anakroniko gisa; izan ere, bidegabera izateaz gain, onartezina eta jasanezina zen gure garaiko euskal eta europar gizartean.
- Bestalde, euskal gizartean giza eskubideekin, berdintasunarekin, justiziarekin, ingurumenarekin, migrazioekin, errefuxiatuekin, askatasunarekin eta abarrekin lotutako kezka eta ezinegon sozialen agenda berri bat finkatzea.

2020an, ETAre amaierari lotutako egiteke dauden zereginen agenda bat geratzen da, batez ere hiru eremutan: biktimen arloko politika publikoak, memoriari eta ETAr buruzko hausnarketa kritiko eta partekatua, eta adostasuneko eta bizikidetzarako espetxe-politika.

Dena den, giza eskubideen euskal agenda gero eta gehiago da giza eskubideen agenda globala. Iraganari lotutako tokiko agendatik giza eskubideen agenda globalarekin erabat bat egiteko trantsizioari buruzko hausnarketa horrek XII. Llegegintzaldiaren hasiera markatzen du (2020-2024).

Aipatu bezala, 2016ko amaierako diagnostiko hark azpimarratzen zuen beharrezkoa zela “mundu aldakor eta ziurgabetasunez inguratuaren erronketara egokitzea”. Ordura arte ezagututako ezerk ezin zuen hobeto sinbolizatu aldaketa eta ziurgabetasuna, 2020aren hasieran planeta osoan agertu zen Covid-19 pandemiak baino. XI. Legegintzaldia ere historiara pasako da, azken aldia pandemia honen ondorioengatik monopolizatuta egon delako.

Tokiko eta planetako bizipen hark indartu eta berretsi baino ez du egin Euskadin giza eskubideen agenda globala errotzea. Munduaren errealtateari beste begirada bat emateko eskatzea gogoeta kontzeptuala baldin bazen, pandemiaren ondoren errealtatearen agindua da orain. Paradigma-aldaketa baten aurrean gaude, eta oraindik ez dakigu zer irismen eta ondorio dituen.

Galdera berri batzuk eginda daude. Ez, ordea, erantzun guztiak. Idazkaritza honen jarduera-eremuan bi galdera garrantzitsu daude: batetik, nola adieraziko dira giza eskubideen urraketa- eta urrakortasun-modu berriak?; eta, bestetik, nola planteatu beharko dira giza eskubideen defentsarako eta sustapenerako politika publikoak pandemiaren atzean zehaztutako errealtate berrian?

Covid-19ren ondorioei buruzko eztabaida batzuek giza eskubideen balio hierarkikoki gorenaren gaineko lehia sakona iragartzen dute. Iritzi eta eragin globaleko korrante boteretsuek beren balioaren mespretxua defendatzen dute, edo, edozein kasutan, indibidualismo materialista baten ardatz ideologikoari lotutako beste balio batzuen mende egotea.

Ikuspegi ideologiko horrek gutxietsi egiten du komunitatearen zentzua eta guztion ongia “onkeria” antzu eta are kaltegarri gisa bilatzen du, eta zenbait balio lehenesten ditu, hala nola lokalismoa, “salba dadila ahal duena”, segurtasuna, protekzionismoa edo merkatuaren lidergoa, politikaren aurrean, besteak beste.

Giza eskubideen defentsa eta, ondorioz, elkartasun-betebeharra dira datozen hamarkadetako zeregin nagusia. Jokoan duguna da ea munduaren grabitate-zentroak elkartasunaren ardatzera jotzen duen edo, aitzitik, indibidualismoaren ardatzean sakontzen duen, bai herritarren kontzientzian duen proiektzioan, bai tokiko, naziko edo nazioarteko politikaren hainbat eremutan duen islapenean.

Covid-19ren ondoren, are arrazoi gehiagorekin, beharrezkoa izango da elkartasunaren, berdintasunaren, ez baztertzearen eta giza eskubideen tokiko agenda globalean sakontzen jarraitzea. 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuak, Eusko Jaurlaritza bere ekintza osoan konprometituta daudenak, abiapuntu bat dira ziklo berri honetan. Horixe da, hain zuzen ere, XI. Legegintzaldia amaitzen eta XII. Legegintzaldia hasten deneko zalantzen eta erreferentzien ikuspegia.

Liburu honen aurkezpena

Azken urteotan, Eusko Jaurlaritzak jarduera-ildo bati eutsi dio espetxe-politika berri bat bultzatzeari dagokionez, eta hiru oinarri nagusiren inguruan finkatu da:

I. Espetxe-politika berri batek presoak beren bizilekuetatik gertu dauden espetxeetara hurbiltzeko prozesu bat egituratzea eskatzen du Espainiako Gobernuaren aldetik honela zehazten baitu Espetxeei buruzko Lege Organikoaren 12.1 artikulua. Gaixo dauden presoentzako ere Espetxeei buruzko Erregelamenduaren 104.4 artikulua ezartzea. Halaber, presoak gizarteratze eta birgizarteratze aldera politika aktiboa bultzatzea espero behar da Espainiako Gobernuarengandik, Konstituzioaren printzipio bat den heinean. Azkenik eta Gernikako Estatutuak 10.14 artikuluan agintzen duena betetze aldera, espetxe-eskumenaren transferentzia gauzatu beharko litzateke.

II. Espetxe-politika aldatzeko, halaber, presoek banakako legezko bideak erabili behar dituzte graduen progresioaren ondoriozko espetxe-onurak eta gizarteratzeko legezko prozesuak eskuratzeko. Era berean, garrantzitsua izango litzateke, preso bakoitzak erabil ditzakeen birgizarteratze-prozesuetarako eta bizikidetzaren eta politikoaren normalizaziorako baliagarria izan dadin, preso horien ingurune politikoak balorazio kritikoa egitea, ETAk iraganean eragindako giza eskubideen urraketei buruz.

III. Presoen familiek hurbiltzetaren eta preso gaixoen inguruan egiten dituzten gizatasun eskaerak babes-tea espero behar da euskal gizartetik eta bere instituzioetatik. Euskal instituzioei dagokie, halaber, Estatu-ko instituzioen aurrean espetxe-politika desberdin bat eta espetxe-eskumenaren transferentzia defendatzea. Era berean, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze sozial eta politiko laguntzak bultzatzeko politika aktiboak garatu behar ditu espetxe ondoreneko birgizarteratzea babeste aldera.

ETAren armagabetzearen eta desgitearen ondoren, terrorismoaren mehatxua desagertu egin da euskal politikatik. Espetxe-politika hainbat urtez terrorismoaren aurkako borrokaren zerbitzurako tresna izan bada, logikoa dirudi orain, hura amaitu denean, bizikidetzako politika baten parte izatea, eta hori ez bakarrik aldaketa historiko hori gertatu delako, baizik eta konstituzionalki ezarrita dagoelako zigorraren funtzioa berreziketara eta gizarteratzea izan behar direla.

Euskal gizartearen barne-errealitatearen ikuspegitik, gai honek eragin handia du bizikidetzaren esparruan. Eusko Jaurlaritzak eta euskal erakundeek behin eta berriz adierazi dute espetxe- eta gizarteratze-politika berri bat sustatzeko borondatea, indibiduaioaren, gizatasunaren eta gizarteratzearen legezko printzipioetan oinarrituta.

Urruntzeko espetxe-politika aldatzeko beharra ikuspuntu askotatik argudiatu daiteke: legezkoetasuna, bizikidetzaren, gizarteratzea... Hala ere, behin betiko argudioa familietan duen eragina da. Urruntzeak zigor erantsi

eta bidegabera eragiten die inolako deliturik egin ez duten familiei, gurasoei, anai-arrebei, seme-alabei. Horregatik, batez ere, urruntzearekin amaitu behar da.

1. Dokumentuak “urruntzeko espetxe-politikak presoek familietan duen eraginari buruzko txostena” jasotzen du. Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak egin zuen, Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren enkarguz. Dokumentu hori 2017ko azaroaren 24an aurkeztu zen. Haren ekarpen espezifikoak da urruntzeari buruzko espetxe-politikaren analisia presoek familien ikuspegitik egiten dela, begirada gizatiar eta humanitarioarekin, legezkoatasunari eta zuzenbideari itsatsita.

2019an, Sailarteko Lantaldea sortu zen Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren eta Lan eta Justizia Sailaren artean, gizarteratzeko politika publikoaren esparru bat aurreikusteko, Europako justizia leheneratzailearen korrantearekin bat etorritik. **2. Dokumentuak** Lantalde honek adostasuna bultzatzeko tresna gisa hartutako oinarriko testua jasotzen du. Testu hau Donostian antolatutako “Justizia leheneratzaile eta terapeutikoa” Europako Kongresuan aurkeztu zen 2016ko ekainaren 17an.

3. Dokumentuak “Espetxe-politikaren arloko Eusko Jaurlaritzaren ekimenen eguneratzea” jasotzen du. Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari eman zion, 2020ko urtarrilaren 23an, gobernu berria eratu ondoren. Dokumentu honek, aurreko proposamenen ildotik eta lege-esparruarekin bat etorritik, hurbilketa eta gizarteratzea bereiztea planteatzen du. Euskal Herriko lau espetxeetan eta gertueneko hiruretan hurbiltzea egingarria eta beharrezkoa dela planteatzen du.

Bilduma honetako 10. liburuan “ETAren armagabetzearen eta desegitearen Eusko Jaurlaritzak egindakoaren deskribapena eta balorazioa” izeneko txostena jasotzen da. **4. Dokumentuak** txosten horren laburpen batzuk eskaintzen ditu, espetxe-politikari buruzkoak. Eusko Jaurlaritzak azken bi Legegintzaldietan arlo horretan egindako jardunaren ikuspegi integrala eskaintzen dute.

Amaitzeko, **5. Dokumentuak** Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzak egindako txostena jasotzen du, Espainiako Gobernuaren Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusiari igorritakoa, presoak Covid-19aren testuinguruan urruntzeak dakartzan arriskuei buruzkoa. Txosten honek euskal presoak Euskaditik kanpoko espetxeetan kokatzeari buruzko egungo espetxe-neurriei lotutako arriskuez eta kalteez ohartarazten du, pandemia horren eraginaren barruan.





1

● dokumentua

Urruntzeko espetxe-politikak presoen
famiengan duen eraginari buruzko
txostena

Urruntzeko espetxe-politikak presoen familiengan duen eraginari buruzko txostena

José Ramón Intxaurbe Vitorica
Eduardo J. Ruiz Vieytez
Gorka Urrutia Asua



Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua
Deustuko Unibertsitatea



2017ko azaroa

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren
enkarguz egina

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetzeta
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

Aurkibidea

1. Sarrera.

Txostenaren helburua, edukia eta denbora-eremua.

1.1. Txostenaren edukia eta agindutako lanaren justifikazioa.

1.2. Txostenaren helburuak eta egitura.

1.3. Metodologia.

2. Datuen aurkezpena.

2.1. Datu kuantitatiboen azterketa.

2.2. Datu kualitatiboen azterketa.

2.2.1. Urruntzea eta distantzia. Urruntzearen eta espetxe-aldaketen ondorioak.

2.2.2. Bidean dauden eragozpenak. Joan eta etorriko bidaia luzeak, topaketa laburretarako.

2.2.3. Urruntzearen kostu ekonomikoa.

2.2.4. Urrunetik harremana izatea tartean gaixotasun larria dagoenean.

2.2.5. Espetxeetara egindako bidaietan istripua izan dutenak eta hil direnak.

2.2.6. Itxaropenak eta etorkizunerako gogoetak.

3. Presoen familiek espetxe-legerian duten zeregina.

4. Ondorioak eta gomendioak.

5. Bibliografia.

1. Sarrera. Txostenaren helburua, edukia eta denbora-eremua

1.1. Txostenaren edukia eta agindutako lanaren justifikazioa

2016ko udazkenean, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak Deustuko Unibertsitateko *Pedro Arrupe* Giza Eskubideen Institutuari urruntzearen espetxe-politikak presoen familiengan duen eraginari buruzko txostena egiteko enkargua egin zion. Enkargu hori 2013ko azaroan onetsitako 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planaren azaldutako konpromisoen barruan sartzen da. Lehenengo konpromisoa iragana argitzea da. Eusko Jaurlaritzak dioenez, ezin dugu etorkizuna eraiki iraganean ezer gertatu izan ez balitz bezala. Giza eskubideen urraketak argitu behar dira eta bidegabeki sortutako sufrimendua onartu behar da, gertatutakoari buruz memoria kritikoa garatzeko eta bizikidetzaren eraikitzeak.

Ekimen horren barruko jardueren artean, 1960 eta 2013 bitartean euskal kasuan gertatutako Giza Eskubideen Urraketaren Egiaztapen Txostena egin zen 2013ko ekainean. Txosten hura Manuela Carmenak, Jon Mirena Landak, Ramon Múgicak eta Juan Maria Uriartek idatzi zuten, eta, kontuan hartu beharreko iradokizunen atalean, preso senideek ere sufritu egin dutela planteatu zuen, besteak beste. Txostenak errealitate hori aztertzea eta onartzea beharrezkoa zela egiaztatu zuen.

Bizikidetzaren Planaren nahiz plan horren barruko ekimenen ondoriozko gogoeta horien artean kokatzen da Deustuko Unibertsitateko *Pedro Arrupe* Giza Eskubideen Institutuari jasotako agindua. Azterlanaren eremua hau da: senideren bat espetxean preso eta bizilekutik hurbileko espetxeetatik urruntzeko espetxe-politikaren eraginpean dauden pertsonen bizipena. Arreta jarri da bizipen horretan, politika horrek euren familia-bizitzan sortzen dituen ondorioetan, bai eta egoera horrek ekar dezakeen oinazean eta egon daitezkeen funtsezko eskubideen urraketetan ere.

Txosten honen muina egoera horren eraginpean dauden pertsona batzuen bizi-istorioetan egindako ikerketa kualitatiboa da. Etxerat elkartearen modu eskuzabalean aritu da elkarlanean ikerketa-taldearekin, beren testigantza emateko prest egon diren kideekin harremanetan jartzeko modua emanaz.

Denbora-eremuari dagokionez, txostenaren bokazioa da kaltetutako pertsonen gaur egun bizi duten egoerarekin alderatuta garaikidea izatea, baina preso urruntze-politikak izan duen bilakaerari buruz ebaluazio historikorik edo ikerketarik egiteko asmorik gabe.

1.2. Txostenaren helburuak eta egitura

Txosten honek biltzen duen informazioa enkargua egitean ezarritako helburuen arabera egituratu da; hona hemen helburu horiek:

- Datu kuantitatiboak ematea, espetxe-politikaren inspirazio den urruntze-estrategiak presoen familiengandik eskatzen duen ahaleginaren dimentsioa deskribatu ahal izateko.
- Presoen familien esperientzia ikertzea, ikuspegi kualitatibotik.
- Indarrean dagoen espetxe-politikak preso familien eskubideetan gaur egun eragiten duen kalteari buruz ondorioak ateratzea.

Helburu horiek betetzeko, ikerketa-taldeak honela egituratu ditu edukiak:

- a) Eskuragarri dauden datu kuantitatiboaren azalpena. Urruntze-politikaren eraginpean dauden presoekin zein espetxetan dauden, eta zein distantzia egin behar duten joan eta etorririko bidaietan haiek bizi-tatzera joan nahi dutenek.
- b) Bildutako datu kualitatiboaren azterketa. Aztertutako fenomenoaren adierazgarri diren kasu batzuen bizi-istorioak.
- c) Espetxe-politikak preso familientzat gordetzen duen zeregina ulertzeko esparru kontzeptuala eta lege-esparrua.

d) Ondorioak eta gomendioak.

e) Erabilitako bibliografia.

1.3. Metodologia

Azterlan honek hartzen duen ikuspegi metodologiko nagusia ikerketa kualitatiboarena da. Alderdi kuantitatiboa soberan ezaguna da, eta aurretiaz txosten ugarian aurkeztu da, batik bat presoen familien interesak biltzen dituzten elkarteek emandako datuetatik abiatuta¹.

Urruntzeko espetze-politikak bizitza pertsonalean eta familiako bizitzan sortu dituen ondorioak ikertzeari ekiteko, perspektiba kualitatiboa aukeratu dugu, eta, alde horretatik, elkarrizketa presentzial erdi-egitura-tuak egin ditugu. Familia-nukleoari nabarmen eragiten dion fenomeno bat aztertzeko ari ginenez, gure laguntzaileei aukera eman zitzaien elkarrizketa horietara normalean espetxeetara bidaiatzen duten beste senide batzuekin joateko. Alde horretan, elkarrizketa batzuk elkarrizketatutako pertsonen etxeetan egin ziren, eta batzuetan, pertsona horiek besteren batek lagunduta joan ziren. Dena dela, hainbat arrazoiengatik (batik bat agenda, laneko konpromisoengatik), elkarrizketa gehienak indibidualak izan dira.

Elkarrizketetan, euren senideak dauden espetxeetara aldian-aldian bidaiatzeko beharizanarengatik urruntze-politikak presoek familiei ekartzen dizkien zailtasunak ikertzen dira, horrek guztiak familien artean sorrazten duen kostu ekonomikoa; izan ere, askotan, familia horietako kideak guraso erretiratuak dira, eta euren hileko diru-sarrerei kalte nabarmena egiten die hain distantzia handiko joan-etorriak egin behar izateak, bisita egin baino lehen edo ostean helmugako hirian gaua igaro behar izaten baita. Gainera, adingabeen egoera ikertu da, baita ohiko joan-etorriek urteen buruan dakarten kostu emozionala ere, bereziki nerabe-beroa kontuan hartuta.

2. Datuen aurkezpena

2.1. Datu kuantitatiboen azterketa²

ESPAINIA ETA FRANTZIA

Presoen kopurua	Joan eta etorriko distantzi
53	2.000 km edo gehiago
52	1.600 eta 2.000 km bitartean
114	1.200 eta 1.600 km bitartean
70	800 eta 1.200 km bitartean
33	400 eta 800 km bitartean

¹ Adibidez, hemen: ETXERAT, *Dispersión. El precio del derecho a las visitas*, 2017ko maiatzaren 20an kontsultatu zen (Euskarazko bertsioa: Dispersioa. Bisita eskubidearen prezioa). Hemen dago eskuragarri: <http://www.etxerat.eus/index.php/eu/txostenak/dosieres-eu>; SARE, *Datos sobre las personas vascas gravemente enfermas*, 2017ko ekainaren 10ean kontsultatu zen, hemen eskuragarri: <http://sare.eus/wp-content/uploads/2015/11/liburuxka-datos.pdf> (Euskarazko bertsioa: Larrik gaixorik dauden euskal presoek inguruko datuak, hemen eskuragarri: <http://sare.eus/wp-content/uploads/2015/11/liburuxka-datuak.pdf>); ZIMMER, Gabi eta beste batzuk, *Europako diputatuak txostena, arrazoi politikoengatik euskal presoek Giza Eskubideei buruzkoa*, 2016ko apirila

² Iturria: Etxeraten webgunea (<http://www.etxerat.eus>). Datuak 2017ko uztailekoak dira.

ESPAINIA

Presoen kopurua	Joan eta etorriko distantzia
51	2.000 km edo gehiago
28	1.600 eta 2.000 km bitartean
88	1.200 eta 1.600 km bitartean
57	800 eta 1.200 km bitartean
25	400 eta 800 km bitartean

Presoak dauden espetxeak eta horietaraino dagoen distantzia

Espetxea	Probintzia	Distantzia
A Lama	Pontevedra	710 km.
Alcalá Meco (Madril II)	Madril	450 km.
Algeciras (Botafuego)	Cádiz	1.100 km.
Almería	Almería	1.000 km.
Aranjuez	Madril	500 km.
Badajoz	Badajoz	750 km.
Burgos	Burgos	210 km.
Cáceres II	Cáceres	650 km.
Castello I	Castelló	550 km.
Castello II - Albocasser	Castelló	550 km.
Kordoba (Alcolea)	Kordoba	775 km.
Curtis (Teixeiro)	Coruña	650 km.
Daroca	Zaragoza	360 km.
Dueñas-La Moraleja	Palentzia	300 km.
El Dueso-Santoña	Kantabria	225 km.
Extremera (Madril VII)	Madril	520 km.
Fontcalent (Alacant I)	Alacant	760 km.
Albolote	Granada	780 km.
Herrera de la Mancha	Ciudad Real	620 km.
Huelva II	Huelva	1.000 km.
Jaén II	Jaén	780 km.
Logroño	Errioxa	190 km.
Mansilla	León	360 km.
Monterroso	Lugo	640 km.
Murtzia I	Murtzia	830 km.

Espetxea	Probintzia	Distantzia
Murtzia II	Murtzia	830 km.
Navalcarnero (Madril IV)	Madril	480 km.
Ocaña I	Toledo	520 km.
Ocaña II	Toledo	520 km.
Puerto I	Cádiz	1.050 km.
Puerto III	Cádiz	1.050 km.
Sevilla II	Sevilla	910 km.
Soria	Soria	270 km.
Teruel	Teruel	450 km.
Topas	Salamanca	440 km.
Valentzia II (Picassent)	Valentzia	540 km.
Valentzia II (Picassent)	Valentzia	540 km.
Villanubla	Valladolid	340 km.
Villabona	Asturias	440 km.
Villena (Alacant II)	Alacant	720 km.
Zuera (Zaragoza)	Zaragoza	300 km.

FRANTZIA

Presoen kopurua	Joan eta etorriko distantzia
2	2.000 km edo gehiago
24	1.600 eta 2.000 km bitartean
26	1.200 eta 1.600 km bitartean
13	800 eta 1.200 km bitartean
8	400 eta 800 km bitartean

Espetxea	Departamendua	Distantzia
Alençon Conde sur Sarthe	L'Orne	830 km.
Arlés	Bouches-du-Rhône	750 km.
Clairvaux	Aube	1.050 km.
Châteauroux	Centre-Val de Loire	680 km.
Fleury Merogis	Essonne	930 km.
Fresnes	Île-de-France	930 km.

Espetxea	Departamendua	Distantzia
Lannemezan	Hautes-Pyrénées	330 km.
Meaux-Chauconin-Neufmontiers	Seine-et-Marne	970 km.
Mont-de-Marsan	Landes	234 km.
Moulins-Yzeure	Allier	800 km.
Muret CD	Haute-Garonne	430 km.
Osny	Val-d'Oise	970 km.
Poitiers-Vivonne	Vienne	530 km.
Poissy	Yvelines	950 km.
Réau sud Francilien	Seine-et-Marne	930 km.
Rennes	Ille-et-Vilaine	800km.
Roanne	Loire	850 km.
Saint-Martin-de-Ré	Charente-Maritime	550 km.
Saint Maur	Indre	680 km.
Tarascon	Bouches-du-Rhône	750 km.
Uzerche	Corrèze	450 km.

2.2. Datu kualitatiboen azterketa

Ikerketa kualitatiboa da ikerketa honen tresna metodologiko nagusia. Ohiko bizilekutik urrun dagoen espetxe batean askatasunaz gabetuta zigorra betetzen ari den senideren bat duten 17 pertsona elkarrizketatu dira. Elkarrizketa erdi-egituratuak planteatzearen sistema hautatu da; hala, elkarrizketaren ardatza aurretiaz zehaztutako galdera irekien zerrenda bat zen. Modu horretan, elkarrizketatutako pertsonak solasaldiko gaiak sakonago jorratu ahal zituen, bere nahierara. Kasuren batean, elkarrizketan familiako beste kideren batek hartu du parte. Arrazoi horregatik, azkenean 14 elkarrizketa egin dira. Ikuspegi kualitatibo horren helburua, bizitako esperientzia eta urruntze-politikarengatik jasandako oinazearen alderdi subjektiboak sakonago aztertzea izan da, datu kuantitatiboek ez baitigute horretarako biderik ematen. Elkarrizketak euskaraz edo gaztelaniaz izan dira, elkarrizketatutako pertsonaren aukerara.

Elkarrizketa horiekin helburu hau lortu nahi zen: urruntzeko espetxe-politikak presoen familien bizitzan eta eskubideetan duen eragina aztertzea. Alde horretatik, aintzat hartu behar da ikerketa honetan euren bi-zi-testigantza ekarri modu eskuzabalean parte hartu duten pertsonen ahalegina, eta horregatik eskerrak ematen ditugu.

Elkarrizketetan adierazi denaren konfidentzialtasuna mantentzeko eta elkarrizketatutako pertsonen intimitatea gordetzeko, euren izenak ez jartzea eta elkarrizketa bakoitza kode sinple batekin identifikatzea erabaki dugu. Elkarrizketa bakoitzetik hautatutako zatiak hitzez hitz erreproduzituko dira, baina batzuetan testigantza baten batean zertxobait aldatu behar izan da, aipatu den konfidentzialtasun hori zaintzeko.

Jarraian ikus daitekeen taulan ikerketa honetarako beren testigantza eman zuten pertsonak zerrendatu eta identifikatu dira.

Elkarrizketa	Elkarrizketatutako pertsona	Presoekiko familia-harremana	Identifikatzailea
1. elkarrizketa	Emakumea	Alaba	E1
2. elkarrizketa	Emakumea	Bikotekidea	E2
3. elkarrizketa	Emakumea	Bi seme-alabaren ama	E3
4. elkarrizketa	Gizona	Anaia/neba	E4
5. elkarrizketa	Emakumea eta gizona (senar-emazteak)	Gurasoak	E5
6. elkarrizketa	Gizona	Aita	E6
7. elkarrizketa	Emakumea	Ama eta arreba/ahizpa	E7
8. elkarrizketa	Gizona	Aita	E8
9. elkarrizketa	Gizona	Aita	E9
10. elkarrizketa	Emakumea	Bikotekidea eta arreba/ahizpa	E10
11. elkarrizketa	Gizona	Bikotekidea	E11
12. elkarrizketa	Gizona	Anaia/neba	E12
13. elkarrizketa	Emakumea eta gizona (senar-emazteak)	Gurasoak	E13
14. elkarrizketa	Emakumea eta gizona (senar-emazteak)	Gurasoak	E14

Bildutako informazioa gaikako zenbait bloketan sistematizatu da, eta bloke horietan jaso dira elkarrizketetan transmititutako ideia eta bizipen nagusiak.

2.2.1. Urruntzea eta distantzia. Urruntzearen eta espetxe-aldaketen ondorioak

Gure elkarrizketatuei egin diegun lehenengo galdera izan da ea euren senideak zein espetxetan ari diren zigorra betetzen. Kasu guztietan espetxe bat baino gehiago aipatu digute, eta batzuetan, espetxeen artean lekualdaketa ugari izan dira. Txosten honetan lehenago aipatu da antolamendu juridikoak nolako diskrezionalitatea onartzen dien espetxe-agintariei, zigortuek euren zigorra zein lekutan bete behar duten erabaki behar dutenean, baina halaber azaldu da oinarritzko printzipio batek izan beharko lukeela politika horren gidalero, hau da, presoan deserrotze soziala saihesteko. Gure elkarrizketatuen testigantzak entzutean sortzen zaigun lehenengo auzia zera da, familiek argi eta garbi eragozpenak dauzkatela preso dauden senideekin harremanetan egoteko, euren kokalekuak aldatzen dituztelako, eta, horregatik, kasu askotan bidaiatzeko modua berraztertu behar dutelako edo, are gehiago, bidaia bera bideragarria ote den berriro pentsatu behar dutelako.

"Haren lehen urtea Valdemoron izan zen, Madrilan. Autoa edo busa Termibusen hartzen nuen, goizeko 1ean, eta 6etan heltzen nintzen; trenak hartzen nituen... Berdin zitzaidan, dena berdin zuen. Joan behar banintzen, joaten nintzen (...). Hurrengo urtean Kordobara lekualdatu zuten, Andaluziara (...). Hasieran, senideen autobusean egiten genuen bidaia. Nik 15 egunik behin bidaiatzen nuen. Edo, bestela, autoa hartzen genuen (...). Egia esatearren, neure senarra ez dute askotan lekualdatu. Ma-

drilen egon zen; gero, 12 urtez Kordobako isolamendu-galeria batean egon zen, orokorrean askoz mugimendu gehiago egoten diren arren, eta, gero, Castellora lekualdatu dute.” (E2)

“—Bueno, esango dizut, apur bat, zein espetxetatik igaro den: Soto del Realen sartu zen; Sototik Navalcarnerora joan zen, eta bertan ia-ia lau urtez egon zen; Navalcarnerotik Darocara lekualdatu zuten, Zaragozan; Darocatik Valentziara, Picassentera.

—Hirura, eta gero Picassent-era. (Valencia II eta Valencia III)

—Eta gero Picassentetik Albolotera, Granadara lekualdatu zuten, eta bertan duela ia-ia sei urtetik dago.” (E5)

“Madrilera eraman zuten eta lehenengoz Soto del Realen egon zen, gero Alcalá Mecon eta gero Navalcarneron. Handik Galiziara eraman zuten, A Lamara. A Laman bost urtez egon zen gutxi gorabehera. Handik Castellóra eraman zuten, eta bertan dago duela sei urtetik.” (E7)

“Lehenengoz hemendik Zaballara joan zen; han 3 edo 4 hilabetez egon zen (...). Bat-batean Aste Santuan esan ziguten Topasera lekualdatuko zutela (...). Bisean biseko bisitarako 3 egun falta zirela, semeak deitu zidan eta esan zidan Murtziara eraman behar zutela.” (E13)

Urruntzearen beste ondorioetako bat da joan-etorria aurretiaz planifikatu behar dela; hala, hileko agenda osoa hitzordu horrek baldintzatzen du, baina, gainera, geroago egiten diren aldaketa guztiek kostu oso handia dute, ekonomikoa eta baita emozionala ere.

“Gutxi gorabehera jakin dezazuen, ni bisean bisekoa antolatzen ari naiz jada. Orduan, aurretiaz hasi behar duzu, kontuan hartu gabe sor daitezkeen ustekabeak: data bat aldatzen badizute, dena desegituratzen dizute. Data horiek erreserbatuta eduki behar dituzu joateko, ezinbestean. Gainera, asteburu osoa hartu; ez da Euskal Herriko kartzela batera joatea, ordu gutxi batzuk behar dituzula, baizik eta asteburu osoa errepidean eman behar izatea. Hortik hasten da; prestaketak, sartu behar diozun paketea; adibidez, nire ahizpa txikia norbaitekin gera dadila... Agian gertatzen zen, ni neure aitona-amonekin joaten nintzenean, garraio publikoa hartzen genuela (trena edo autobusa) Madrilerara joaten ginenean, eta batzuetan ordutegian aldaketak egoten ziren eta kartzelara ezin ginen heldu... Asteburu osoa errepidean ematen genuen, azkenean sartzen ez uzteko.” (E1)

Zigortuaren eta haren familiaren ohiko bizilekutik urrun dagoen espetxe bat esleitu ondoren, familiak planifikatu behar izaten du nola bidaiatuko duten helmugara eta bidai horretan zenbat denbora beharko duten. Gure elkarrizketatuen artean mota guztietako kasuak aurkitu ditugu, joan-etorriak euren baliabideekin kudeatu dituztenak nahiz garraio publikoak baliatuz bidaiatu dutenak, eta hainbat arrazoi direla medio elkarlaneko eta elkartasuneko mekanismoak erabili behar izan dituztenak ere bai. Kasu bakoitzaren adibideak ikusiko ditugu. Lehenengoz, Frantzia preso dagoen pertsona baten senide baten gogoeta ilustratuko dugu. Senide horrek garraiorako zeuden aukerak aztertu zituen, eta, ondorioztatu zuenez, aukerarik onena bere bitartekoekin bidaiatzea izan zen, kasu horretan familiaren ibilgailua erabiliz. Testigantza berean ikusten dugunez, gure laguntzaileak ongi ezagutzen zituen bakarka bidaiatzearen arriskuak.

“Jakina, Poitiers-Vivonnerraino 500 kilometro geneuzkan; orain, 700 kilometro baino gehiago egiten ditugu. Guretzat, alde batetik, gogorragoa da trenez egin behar badugu; izan ere, Paris-Rennes egin behar duzu, zerbitzu publikoa hartu, eta gainerako aukerak txarragoak dira: autobusak, beste ibilbide bat hartu, trenak... edo bestela autoz, eta jakina, autoz zailagoa da. Alde batetik errazagoa da, hartzen duzu eta bazoaz... baina beste alde batetik arriskuz beteta dago, ez soilik bidea luzea delako, baizik eta nekea dela-eta... zeure bizia arriskuan jartzen duzu. Gogoz joaten zara, baina estresarekin ere bai, ardurekin, eta itzultzean bestelakoa da egoera, lasaitzen zara, baina pentsamendu piloa daukazu... Une horretan errepidean zure egoera ez da berdina, beste mundu bat da, beste pentsamendu batzuk.” (E9)

“Lehen nire amarekin joaten nintzen, baina ama nagusia da jada, 82 urte dauzka, nire beste anaia aitarekin joan ohi zen, eta aitak 85 urte dauzka. Orduan, Châteaurouxera joateko, hotel bat hartzen genuen –bisitak larunbatetan izaten dira–, ostiral arratsaldean irteten ginen, han hotelean lo egiten genuen eta gero larunbateko bisita egiten genuen; bestela larunbatean bertan irteten ginen, goizaldean, bisita arratsaldean egiteko, hotelean lo egiteko eta igande goizeko bisita egiteko (...) hotelean gaua igarotzea nahitaez, egun berean ezinezkoa da egitea... tira, joan da baten bat, baina hori bizia arriskatzea da, lo egin gabe, hori ikaragarria da.” (E12)

Batzuetan, elkarrizketatuetako batzuek, bidaiarako bitarteko propiorik ez edukitzeagatik edo ibilbide luzeetan gidatzeko prest ez egoteagatik, garraibide kolektiboak erabili dituzte. Orokorrean ekimen horiei buruz balorazio oso positiboak egiten dira, baina agerian geratzen denez, kasu horietan bidaia beharizan kolektiboegi egokitu behar zaie, ibilbideen nahiz ordutegien aldetik.

“Hasieran senideen autobusean joan ohi ginen. Autobus hori Andaluzia osora joaten zen, eta suerte txarra genuen, Kordoba lehengo geralekua zelako, eta goizeko 5:30ean gasolindegian batean uzten gintuen, autobus horrek goizeko 8etan Algecirasen egon behar zuelako. Taberna bat bilatzen genuen, goizeko 5:30ean kafea hartzen genuen eta gure bila ahal zutenean etortzen ziren, Algecirasen edo Puerto de Santa Marían bisean bisekoak amaitzen zirenean, larunbateko bertako gaueko 12etan edo goizaldeko 1ean.” (E2)

“—Frantzia zegoenean, gehienetan 15 egunez behin senideen autobus ohatzeduna hartzen genuen ostiraletan, arratsaldeko lauretan, Iruñeko Tres Reyes hotelean; bidaiariak hartzen genituen Gasteizen, Bilbon, Donostian, Baionan; gasolindegian batean geldialdia egiten genuen, eta afaltzen genuen bitartean gidariek ohatzeak irekitzen zituzten. Ohatzean sartzen zinen, eta han goizeko zortzietan Parisera heldu arte.

—Gure kasuan Fresnesera; azken geldiunea zen, lehenago Paris aldeko beste espetxe batzuetatik igaro ohi zirelako. Bisita, ordu erdiz egiten genuen, 9ak aldean. Gero, ordu batean beste ordu erdiz sartzen uzten ziguten. Ordu erdiko bi txanda.

—Gero handik arratsaldeko zortziak aldean irteten ginen. Itzultzean ibilbidea alderantziz egiten genuen eta kartzela bakoitzeko jendea hartzen genuen. Larunbat gauean autobuseko ohatzeetan lo egiten genuen eta igandean heltzen ginen, hamarretan, edo geroago.” (E14)

“Autobus bat dago, Algecirasera ino eramatean gaituena, eta autobus horretan joan ohi gara Algeciras, Puerto eta Sevillako preso senideok. Busa 17:00etan irteten da Donostiatik, Bilbon 18:30ean hartzen ditu bidaiariak, eta Algecirasera goizeko 09:30ean heltzen da. Itzultzean, bisitatzeko orduak diferenteak izan ohi direnez, Algecirasetik larunbat arratsaldeko 7etan irteten ohi gara eta igandean goizeko 9etan heltzen gara. Beraz, bisita bat edukitzeko 36 ordu inbertitzen ditugu. Familia-bisita kenduta, gainerakoak soilik 40 minutukoak izaten dira.” (E8)

Espetxeetara bisita egitera joaten diren senideek kontratatutako autobusez gain, nabarmentzekoa da *Mirentxin*, senideak urrun dauden espetxeetan dauzkaten pertsonen laguntzeko asmoz duela 17 urte sortutako ekimena. Furgonetak eskura jartzen dira gidari boluntarioekin; hala, aukerak ematen zaizkie garraibiderik ez daukaten senideei, gidatzeko prest ez daudenei edo euren aldartea joateko bidaian nahiz etortzekoan gidatzeko egokiena ez izateagatik atsedean hartu nahiago dutenei.

“Mirentxin oso samurra da, Etxerati deitzea eta arduradunari esatea “maiatzaren zerean Almeriara joango gara, apunta nazazu” eta listo, hor amaitzen dira zure kezkek bidaia antolatzeari dagokionez. Ez dakit, Alcalako urteetan jakin nuen zer den gauez bidaiatzea. Goizaldeko hiruretan irteten ginen, eta, noski, hirurak arte atsedean hartzen saiatzen zara baina ezinezkoa da eta gero gidatu egin behar da, baina ez zaude egoera normalean eta zeharo nekagarria da. Gainera, autoa... Nik ez dut sekula ganorazko autorik eduki. Auto aproposa lortu behar nuen, eta bueno... gauza asko dira. Mirentxinekin erosoagoa da, eta, gainera, beste senide batzuekin joaten zara, zure helburu berbera duten pertsonekin, eta horrek emozionalki laguntza handia ematen du. Ez da soilik giza baliabideak eta baliabide materialak edukitzea, gidaria edukitzea, taldean joatea ere bada.” (E10)

“Kordobaraino 8 edo 9 ordu dauzkagu, 900 kilometro dira. Mirentxinekin etxetik arratsaldeko zazpitan irteten gara, Gasteizen furgoneta hartzen dugu eta hara 6:30ean edo 7:00etan heltzen gara.” (E4)

Hala ere, elkarrizketatuetako batek azaldu zigunez, oso ekimen erabilgarria den arren, batzuetan espetxea hain urrun dago, non bide hori erabiltzea ezinezkoa den.

“Bisita egitera Kordobara joaten garenean, gaua han igarotzen dugu. Mirentxinekin larunbateko bisitari erantzun ohi dio, jende pilo batek bisita larunbatetan izaten duelako. Geuk bidaia larunbatean egiten dugu bisita igandean dugulako eta han lo egin ezear ezin garelako bisitarako geratu. Lo egitera geratzen bagara, ezin gara Mirentxinekin jaitsi, eta abiadura handiko trenan erabili behar dugu, gaua han igaro eta berriz ere bueltan. Nire arrebari bisita egitera joaten direnak ere trenetan joaten dira: Iruñetik Zaragozara, eta handik Kordobaraino abiadura handiko trenetan. Hori ere nahikotxo kostatzen da, eta kontuan hartuta zein denboralditan egiten duzun, are gehiago. Kordobak sasoi altuan

turismo aldetik eskari handia dauka eta prezioak igotzen dira. Ostatua hartzeko lekua ere aurretiaz bilatu behar duzu.” (E4)

Adineko pertsona askok ez daukate aukerarik euren baliabideekin bidaiatzeko, edo ez daude denbora luzean gidatzeko moduan. Haientzat, elkartasun mekanismoak ezinbestekoak dira, beharrian kolektiboek jaramon egin behar zaien arren.

“Nik ezagutu ditudan pertsona guztiek geuk baino gehiago eskertzen diote Mirentxini, badakite-eta beste modu batean ez liratekeela moldatuko. Nik badakit zerbait egin nezakeela eta moldatuko nintzatekeela Almeriaraino heltzeko, baina 70 urteko emakume batek zer egin dezake? Alde txarra, bai, seiak arte itxaroten egon behar izatea, baina horrek ez die axola, seme-alabak ikusi ahal izan dituzte eta zorionekoak dira. Itxaron behar badute, hurrengo egunera arte ere itxarongo dute. Erabakitasean hori igarri egiten da.” (E10)

“Bisean biseko intimo bat eskatzen dudanean bakarrik joan behar izaten dut, eta norbait bilatu behar izaten dut alabekin niri laguntzeko. Elkarbizitzako bisean bisekoan hamar urtera arteko adingabeak sartu ahal dira; beraz, nire alaba nagusia ezin da sartu jada. Ostiralean familiako bisean bisekoa eta elkarbizitzako bisean bisekoa onartzen badizkirate, zer egin behar dut nik nire alaba nagusiarekin, nire alaba txikia eta biok bisita hori egiten ari garen bitartean? Bisita galdu behar dut? Norbaiti eskatu beharko diot nirekin Castellóra arte bidaiara egin dezala? Nori eskatuko diot? Hirurogeita hamar urte dituen nire amari? Nirekin hileror etor dadila? Jende askok bere burua eskaintzen du, baina zinez nori eskatu ahal diot zigor hori nirekin bizi dezala? Izango ez balitz Madrilan, Valentzian, Castellón beren etxeak eskaini dizkidaden partikularren elkartasunarengatik, ezingo nuke neure burua antolatatu. Sekula ezin izango diet ordaindu.” (E11)

Beste batzuetan ez dago ordezko bide kolektiborik, dela espetxea urrun dagoelako, dela ez dagoelako presoan kopuru nahikorik garraio bidea senideekin betetzeko. Kasu horietan aukera bakarra joan-etorriari norberaren baliabideekin ekitea da edo, bestela, modu proaktiboan ados jartzea herri diferenteetakoak izanik helmuga berbera duten beste senide batzuekin. Azken hori kontatu zigun elkarriketatuetako batek; halaber, bere lanpostuan sortu zitzaizkion eragozpenen berri ere eman zigun.

“Bai, hasieran autobus bat Parisera joaten zen 15 egunez behin, eta batzuetan senideen autobusean joan ohi ginen. Kontua da, jakina, bide batez ni beti nire amarekin joaten nintzela, eta orduan autoan joaten zara, emaztearekin eta seme-alabekin joaten zarenean bezala. Batzuetan familien busean joaten ginen, baina gero kendu egin zen. Eta gero TGVa, Hendaian hartzen genuen gauez, agian ez zegoelako jenderik bisitan joateko. TGVa gauez hartu, hara Montparnassera heldu, pentsatzen duzu eta zera diozu... Hara goizeko 6:30-7:00etan heltzen zinen”. (E12)

“Granadara eta Murtziara bidaiatzea ezin zailagoa zen, gure lanengatik. Lanetik irten eta bideari ekin behar izaten genion, eta gero Galiziara joan behar izaten garenetik bisitak eta bisean bisekoak igande goizez izaten ditugu. Lehen, arratsaldeko 5etan izaten genituen. Iruñera itzultzen ginen, eta orain dena autobia da, baina lehen errepide nazionalak ziren, zati bat egiten ari ziren... beraz goizaldeko ordu bietan edo hiruetan heltzen ginen. Orain larunbatean irteten gara, eta han lo egiten dugu, bisita goizeko 9etan daukagulako. Ni, adibidez, bisean bisekoetara ere joaten naizenez eta nire alabak ere bai, bada, umekin joaten gara; beraz, hotel txiki batean egiten dugu lo”. (E3)

2.2.1.1. Espetxe-aldaketak

Gure laguntzaileetako batek egindako salaketak espetxe-aldaketa bat gertatzen denean urruntze-politikak ekartzen duen oinazearekin du zerikusia. Presoan espetxe-sailkapenean sartu gabe, hori ez baita azterlan honen xedea, azpimarratu behar da, urruntze-politikak nabarmen areagotzen duela familien oinazea, sailkapen horren berezko segurtasun-neurriengatik espetxea aldatu behar izaten denean. Hori gertatzen denean, jarraian azalduko diren testigantzetan agerian geratzen denez, joan-etorriek dakarten ahalegin ekonomiko eta emozionala handitu egin ahal da programatutako bisita ezin denean egin espetxe-aldaketa batengatik.

“Behin Valdemorora joan ginen bera ikustera. Barruan geunden, arku detektagailutik igaro ginen, arropa entregatu genuen, dena. Furgoi bat irteten ikusi genuen, baina jakina, ezer ere ez genekien. Eta bisitan sartzeko geundela esan ziguten: ‘Zuek ezin zarete sartu, hemen jada ez dago-eta. Era-man egin dute. Oraintxe atera dute’. Haraino bidaiatu genuen eta gure sudurren parean eraman zuten. Aurreko egunean joan ginen, bertan lo egin genuen hura goizeko bederatzietan ikusi ahal

izateko eta gero laster itzultzeko. Nik histeria-atakea izan nuen. 'Badakite baina hemen gaudela, bisitan sartuko garela, jada barruan gaudela. Abisatzea zenuten behintzat'. Nora eraman behar zuten esateko eskatu nien. Inork ere ez zekien deus ere. Agian, nire egoera ikusita, erantzun zidaten ikusiko zutela ea zer egin ahal zen. Algecirasera eraman zutela esan zidaten." (E14)

"Itzulera, bera nola ikusi duzun, hala egiten duzu, lasaiago, baina joateko bidaiak normalean oso larri egiten dira: NANak ez ahaztu, badaezpada familia-liburua ez ahaztu, bidaiatxartelak, dena prest utzi dut, bisita hartu duzu, begiratu Interneten, hara heldu, ez dago, eraman egin dute... ni Kordobara heldu naiz eta bitartean Madrileran eraman dute. Segurtasun-arrazoiak direla-eta egindako lekualdaketa ezin dizute komunikatu. Hori da haiek FIES (Jarraipen Bereziko Presoen Fitxategia) izen famatua eman diotena, segurtasuneko barne-fitxategia. Orduan, jakina, euren komunikazioak guztiz murriztuta daude, guri egindakoak ere bai... gu Kordobara joatea eta bera han ez egotea, lekualdatu dutela. Orokorrean haiek –senarraren eta beste askoren kasuan– esaten diote 'prestatu zure gauzak bazoaz-eta', isolamendu-araubidearen kasuan ez dira igaro behar sarreren modulutik, ez dute ibilbide hori, isolamenduan egonda ez dute hori egiten. Kordoban berak ostiral arrunt batean dei egiten zuen, haiek izan ere deiaren zain zeuden, 'a, dena ongi, bidean gaude jada, zein ongi, bihar elkar ikusiko dugu-eta', telefonoa esekitzea eta haiek berari esatea 'prestatu petatea, bazoaz-eta', eta geu goizean hara heltzea eta bera ez egotea. Ezintasuna. Baina 'lanaren arriskuak' bezala dira, nolabait esatearren, niri pare bat aldiz gertatu zait, eta gainera uste dut zortea izan dudala, uste dut-eta alabarekin nengoela inoiz ere gertatu ez zaidala. Hain zuzen ere, bidaiatu genuen azken aldian, Kordobara joan nintzen nire gurasoekin, bisean bisekoa ostiralean egin genuen eta dena alabarekin, eta asteburu hartan Sevillara joan ginen alabarekin, ezin hobeto, eta hurrengo asteburuan nire aita-amaginarrebak bisitara joan ziren larunbatean eta hori gabe geratu ziren, Castellora eraman zutelako, eta haiek adibidez bertan geratu ziren. Ni bertan pare bat aldiz geratu naiz seguruenik, behin edo behin Madrilan geratu naiz, baina hori gerta daitekeen zerbait da..." (E2)

2.2.1.2. Presoen deserrotze gero eta handiagoa

Txosten honen hasieran azaldu dugunez, espetxe-legeriak kontuan hartzen du askatasun-gabetzeko zigorrek ezinbestean dakarren desozializazio-osagaia, eta ondorioz, espetxe-agintariei agintzen diete hori ahal den neurrian saihesteko lana, adibidez presoak euren ohiko bizilekutik hurbil dauden espetxeetan sartuz. Honako pasarte hauetan ikusten dira urruntze-politika luzaro aplikatzearen ondoriozko sintomak. Alde batetik, zigortuaren inguruneako pertsona jakin batzuekin (senideak edo lagunak) harreman presentziala edukitzeko zailtasuna izatea, eta ondorioz harremanen kapitala galtzea. Beste aldetik, kultur edo hizkuntz erreferentziak galtzea. Horren adibide bat izan daiteke ohiko bizilekuko hedabideak kontsultatu ezin izatea.

"Ni honetan parte hartzen hasi naiz uste dudalako nahikoa dela, uste dudalako sakabanaketa betidanik justifikaziorik gabea izan dela, senideentzako zigorra dela, eurak zigortzeko, baina, nire ustez, nahikoa da. Nire senarra bere bi amonek ezin dute jada ikusi, bi amonek 80 urte dauzkate eta nola eramango dituzu. Sakabanaketak familia-harremanak galarazten ditu... gurasoek eta, azken batean, oraindik 60 urte dauzkate, eta bidaiatu ahal dute eta gidatzen dute, baina senide asko ezin dira joan haiek ikustera, batez ere adineko pertsonak, barrukoak eta geu, kanpokook, zahartu egiten gara apurka." (E2)

"Azkenean espetxe guztiak antzekoak dira, baina ingurunea diferentea da. Nire ustez ez da gauza bera irratia edo telebista piztea eta zure familiari, lagunei, eta abarrei eragiten dieten albisteak ikustea... Nik astero hemengo prentsa bidaltzen diet, ez daitezela deskonektatuta egon; zeren eta hemen ohituta baitaude prentsa irakurtzera, telebista ikustera, irratia entzuteran, eta zure etxeko momentua bizitzeko modu bat da, eta haiek interesa dute." (E3)

"—Hara, sakabanaketaren kontu honek, planteatzen ari garen gauza horiez guztiez aparte, gauza bat dauka: guk herrian kartzelan egon den jendea daukagu, telebista euskaraz sekula ikusi ez duena. Adibidez, kulturaratze hori zertan den gutxi gorabehera jakiteko.

—Gure semearen adiskide bat 30 urtez egon zen, eta itzuli zenean sekula ez zuen aurretik telebista euskaraz ikusi.

—Hura nork desozializatu du, nork deserrotu du bere kulturatik, bere hizkuntzatik?

—Zaballan zur eta lur geratzen zen, 'goizez funtzionario bat etorri eta egun on esan dit'.

—Dio, neure buruarekin haserretzen hasi naiz, neure gauzei soinu arraroa antzematen hasi naiz. Ez dakit ongi azaldu dudan, baina horiek ziren bere hitzak. Deserrotze kulturala, giza deserrotzea, bere ingurunearekiko deserrotzea.

—Bere afektuekikoa, adibidez. Ez dezatela familatik aparte utzi, orain badakizu hamar laguneko zerrenda bat dagoela, sei hilabetez behin baimentzen dutena, eta hamar horiek soilik joan ahal direla.

—Hori da hamar horiek sei hilabetez zanpatzeko, ahalik eta kostu handienak sartu, eta gero beste batzuetara pasatuko gara. Izan ere lehen zerrenda irekia zen, orduan edonork zuen aukera, joaten zen, eta gainera baimenduta zegoen.

—Zerrenda luze bat zegoen eta baimendutakoan artean edozein joan ahal zen. Orain, hamar dira, sei hilez behin.

—Aurreko astean esan behar duzu hamar horien artean hurrengo astean nor joango den.” (E5)

2.2.2. Bidean dauden eragozpenak. Joan eta etorriko bidaia luzeak, topaketa laburretarako.

Joan-etorrietan egin beharreko distantziaz gain, aldi berean ahal den neurrian inguruabar pertsonalak eta familiako inguruabarrak uztartu egin behar izaten dira lekualdaketak dakarren esfortzuarekin. Batzuetan hori egitea posiblea da, eta beste batzuetan ez. Jarraian ikusiko dugu pertsona baten testigantza, zein bere lanbide jarduerarengatik larunbatetan gertu egoten behar izaten baitzen. Eta hain zuzen ere, egun horretan ekin behar zion espetxerako bidaiari.

“Lanean ari nintzenean arazoak izaten nituen. Eroskin lan egiten nuen eta lehian ibili behar izaten nuen larunbat goizez lan egiteko, eta gainera, krisia zela-eta, ordu gehiago sartzen hasi zitzaizkigun, larunbat arratsalde gehiago, eta nik arratsaldez ekin behar izaten nion bideari. Gogotik saiatu behar nuen, horregatik estres handia jasan nuen, hainbestera non ezin izan nuen aguantatu, eta garaia baino lehen alde egin behar izan nuen, kontua eskatu nuen. Nik banekien zer zen funtsezkoa niretzat, eta lehian ibili behar izatea, arratsaldeko 3retan irten behar izatea, hori niretzat berandu baitzen, gipuzkoarrekin edo bizkaitarrekin joaten banintzen Lopidara joan behar izaten nuen, haiekin elkartzan nintzen-eta, eta mundu guztiak niri itxaroten egon behar izaten zuen... eta horrek estres handia eragiten zidan. Bai, izan ere hemen ez daukagu Mirentxinik ere, gero Lugorekin eta Galiziarekin komunikazioak txarrak dira... eta lehen, nik gogoan daukat, Lekunberriko senideren bat trenez joaten zela, aldaketak egin behar izaten zituen... orain hori ere ez da gertatzen.” (E3)

“Ni aurre-erretirata nago, baina gazteentzat eragozpen handia da larunbatean edo igandean lehengo orduan 700 kilometrorara egon behar izatea... benetan, ahalegin handia da denok pertsona “normalak” garelako, lanbide bat duten pertsonak: irakasleak, ikasleak, langileak... eta kontua da denok ostiralera arte lanpetuta gaudela, batzuek larunbatetan ere lan egin behar izaten dute. Azkenean, semea hain urrun badaukazu, sekulako oztopoa da harekin harreman afektiboa edukitzeko. Batzuetan hark ere ikusten du alderdi ekonomikoan esfortzu handia dela, bidaiak luzeak direla, autobidea dago, gasolina dago... bidaiak gastu handia dakarte.” (E7)

“Bidaiak hasi zirenean, lanarekin uztartzen nituen, baina gero konturatu nintzen urtebetean 80.000 kilometro egitera iritsi nintzela; zenbat denboran egon ahal zara horrela? Lanarengatik joan-etorriak egin behar izaten nituen, Euskadiko geografia osoan argazkiak eta gero gainera Avilara, Madrilera, eta abarrera joan... haurrak jaio zirenean lana utzi behar izan nuen, ezin nuelako hala jarraitu. Nahi izan banu, bai, norbait kontratatu ahalko nukeen seme-alabak zaintzeko, baina nik ez nuen halakorik aurreikusten nire seme-alabentzat. Lanak aldatu ahal dituzu, baina seme-alabak badauzkazu eurekin egon behar duzu.” (E11)

Bidaietan ohitura-aldaketak agerikoak izaten dira adingabeak daudenean. Honako testigantza honetan, el-karrizketatu batek azaltzen digu bere alaba jaio zenetik Kordobara joateko autobusa hartzei utzi ziola eta bere bitartekoak erabiliz bidaiatzen hasi behar izan zela.

“Hasieran ez zara konturatzen, baina ahultasun puntua, guri dagokigunez, zehazki niri dagokidanez, zeharo, alaba jaiotzea izan zen. Haur bat hartu behar duzu, bera autobus batean sartu eta diozu “bai-

na zer arraio egin duzu?', azkenean erru-sentimendua ere izan ahal nuen, haur horiek nolako astakeriaren mende utzi ahal genituen, zeren eta han egun osoan egoten baikin, Kordoban geunden, eta Kordobaren arazoa tenperaturak dira, udan 46 gradutan zaude, merkataritza-zentroen bila ibiltzen zinen. Nik, alaba jaio zenean –jakina haurdunaldian bidaia horiekin jarraitzea erabaki nuen–, baina jaiotzean txipa aldatu zen. Diozu 'hau ez da inolako pagotxa', hemen haur bat dago. Hortik aurrera bidaiak beste modu batean bizitzen dituzu; neskak negar egiten du, oka egiten du, gelditu egin behar duzu... diferentea da. Haur batekin bidaiatu behar duzula ikusten duzunean orduan gauzak bestelakoak dira, autobusa ez hartzea planteatzen duzu, ezin zara han 5:30ean egon." (E2)

"Modurik errazena da. Autobusean bidaiatzea gogorra izanda, nire iritziz... nik hainbat bisita egin nituen Galiziara, A Lamara, eta hara iristeko furgonetak erabili nituen eta niretzat nekagarriagoa zen A Lamara joatea Algecirasera joatea baino. Gu, afaldu ondoren irekitzen diren ohatzeetan joan ahal gara eta behintzat etzanda joaten zara, horrek lasaitasun apur bat ematen dizu. Bestela, ume batentzat, Algeciraseraino jesarrita joatea ezinezkoa da. Aldiz, ohatzean lo egin ahal dute, lasaigo doaz, euren artean jolasteko moldatzen dira (...) Geu, normalean, 30 heldu eta 4 edo 5 ume joaten gara." (E8)

2.2.2.1. Kudeatzen zailak diren egoerak: adingabeen ikuspuntua

Bidaia adingabeek egiten dutenean, bereziki osorik besteren beharra badute, garraioideari buruzko baldintzatzaileak asko dira, eta orokorrean elkarrizketatuek esan dute nahiago dutela euren bitartekoak erabiliz bidaiatu. Mirentxinek abantailak dauzkan arren, familia honek erabaki zuen bere bilobaren beharrianak gorabehera ezin zituela baldintzatu furgoneten erabiltzaileen orduak, eta ibilgailu familiarrean bidaiatuta erosoago sentitu ziren.

—Bilobak lau urte dauzka, eta duela lau urtetik Mirentxineko boluntarioen furgonetetan txikitxoarekin ezin zara jaitsi, bidaia gaez egin behar delako, bi gau dira, gau oso batean behera goaz eta beste gau batean gora, eta haurtxo batekin konplikatu da.

—Beharrianak dauzkate, hau da, ezin duzu furgoneta bat gelditu. Neska garbitu behar duzu, apur batean zutik jarri behar da..." (E5)

"Nire egoera aldatu egin da ama naizenetik. Txikitxoekin normalean ez dut Mirentxinekin bidaiatzen, eurentzat oso nekagarria delako eta ez dakidalako nola moldatuko nintzatekeen. Orain pentsatu ahalko nuke proba egitea, baina orain arte, hiru urte baino gutxiago edukita, bururatu ere ez zait egin. Txikiegia zela iruditu zitzaidan eta ez nuen nahi Mirentxin osoa baldintzatu, "mesedez apur bat gehiago geratuko gara eta horrela umeak jolastuko dira". Beraz neure kabuz joan ohi naiz, bana umeekin bidaiatzen ez badut Mirentxin aukeratzen dut." (E10)

Urruntze-politikak pertsonengan duen eraginak paradigma izaera du adingabeen esperientzian, urteak bete ahala, gero eta gehiago konturatzen direlako hain joan-etorri luzeek zer dakarten eta horregatik nolako ahalegina egin behar den. Elkarrizketatuetako batzuek azpimarratu digute, eta gainera lehen eskuko testigantza jaso dugu, gure ustez oso adierazgarria dena, elkarrizketatuetako batek izan dituen etapa eta gogoetei buruzkoa; elkarrizketatu hori adingabea zela hasi zen joan-etorriak egiten, eta orain, heldua izanik, bere erreakzioak errepasatu ditu, eta bere bizitzako sasoi batzuetan eta besteetan erreakzio horiek nola kudeatu dituen ere aztertu du.

"Oraingoz umeentzat apur bat abentura baten antzekoa da, eta euren aita ikusteko gogo handiekin doaz, ez dira konturatzen. Baina normalean, beste pertsona batzuen esperientzia ikusita, 7-8 urte dauzkaten ohartzen hasten dira zein egoeratan dauden bai eurak bai euren ama edo aita, eta orduan hasten dira euren galderak eta kezak." (E8)

"Hasieran niretzat opor antzekoak ziren, txikia zarenean eta helduek babesten zaituztenean, are gehiago, gehiegi babesten zaituztenean, ahalik eta atseginena izan dadila saiatzeko, bide batez egun batzuk gehiago hartzen zituzten eta Disneylandian geratzen ginen, benetan zertara joaten ginen eta hori apur bat mozorrotzeko. 'Aita eta ama ikusiko ditugu, zein dibertigarria, eta gainera Disneylandiara goaz'. Gero adin batera helduta gauza itsusia izaten hasten da, eta diozu, 'bada, orain ez dut hain ongi pasatzen, nik hemen daukat nire bizimodua, utzi behar diot urtebetetzeetara joateari, saskibaloi-partidetara joateari...' eta orduan ez dizu hain grazia handia egiten, zure bizimodua hemen daukazulako eginda eta ez delako hain erraza hainbeste Disneylandiarekin eta hainbeste gauzarekin zu engainatzea (...) Agian kargarik gogorrena psikologikoa da,

etengabeko desgastea da, lehenengo unetik kalte egiten dizu, baina azkenean desgaste itzela daukazu. Inflexio-puntu batera heltzen zara, niretzat 13 urte nituela heldu zen, urte eta piko egon nintzen aita bisitatzera joan gabe, ez niolako zentzurik aurkitzen, eta inork ere ezin zidalako azalpen konbentzigarririk eman, eta orduan adin txarra ere izan zen, eta zera esan nuen, 'hara, denbora bat behar dut honi zentzua aurkitzeko', hainbeste kilometro egiteari aita ikusi ahal izateko, berez Euskal Herrian egon beharko lukeen aitari. Eta nik, inolako erabaki politikorik hartu gabe, honetara behartuta nago, eta zera esan nuen, parentesi bat behar dut. Zentzua baino gehiago, azalpen bat da, zentzurik ez, baina azalpen bat. Zu gazteegia zara politika ulertzeko, eta hori guztia, baina nagusiegia hori auzitan ez jartzeko. Orduan adin batera helduta zigortuta sentitzen nintzen, baina ez nekien nork zigortzen ninduen, lehenengoz gurasoekin haserretu nintzen, jakina, 'zuek han zaudete eta ni hemen, eta neuk mugitu behar dut eta neuk galtzen dut lagunekin daukadan hori eta bestea'. Gero bisitara nirekin joaten zirenekin haserretu nintzen, eta zera esan nuen, honaino, 'bada, ez naiz gehiago joango'. Autoan nirekin zihoazen guztiekin haserretzen nintzen, baina haientzat ere gauza bera da, haiek ere ez dute inolako erabakirik hartu eta haiek ere behartzen dituzte hainbeste kilometro egitera, euren bizitza arriskatzera, euren denbora, euren nekea, euren desgaste psikologikoa... Nire ustez ez dira alboko kalteak; aitzitik, hau guztiz diseinatu da horretarako, preso dagoen pertsonarengan eta senideengan presioa sortzeko. (E1)

"Milaka kilometro dira nire alabarentzat, nire gurasoentzat, adineko jendearentzat, nire ahizpenentzat, erantzukizunaren kezka horrekin. Gure familian bat eginda gaude oso, baina oso zaila izan da eta hala da gaur ere. Neska betidanik oso gaizki egon da bidaietan, asko mareatu da beti; oka egiten zuen, gelditu behar izaten genuen, gasolindegiz gasolindegia joaten ginen. Gogoan daukat, Madrilera joaten ginenean, Burgosko sarreran gelditzen ginela eta gero Boceguillaseraino heltzen saiatzen ginela, panpinak zeuzkan hoteltxo batera, eta han zerbait erosi behar izaten genion, ea Segoviaraino heltzen ginen, eta handik AHTra, Kordobara joateko, eta handik salto dortoketara, geltokira eta Atochako geltoki barruan dagoen parkera, eta begiratzen genuen ea dortokak artean oskola arrosa zeukan. Pura ematen genion, jaten ematen genion, eta labur esanda bidaiak hala egiten genituen." (E2)

2.2.2.2. Kudeatzen zailak diren egoerak: Gaixo dauden edo mugikortasun murriztua duten pertsonen ikuspegia

Urruntzeari aurre egitea bereziki zaila da gaixo dauden pertsonentzat. Hala ere, gainerako eragozpenekin gertatzen den bezala, gure elkarrizketatuek esan digutenez, bidaiatzeko aukera izan duten guztietan hala egin dute dena dela. Jarraian azalduko dugun kasuan ikusten denez, aldaketa egon zen garraio bidean eta garraio bide horri lotutako kostuan, baina ez lekualdatzeko erabakian.

"—Duela bost urtetik istorio hau arrastaka eraman dugu. Zentzuzkoa denez, kimioterapiaren garai batzuetan gaizki egon da. Lehen beti autoz jaisten ginen, bederatzi edo hamar orduko bidaia zen autoz (...) Gero, jaitsi gara zortea izan dugunean eta Malagara hegaldi merkeak lortu ditugunean.

—Duela lau edo bost urtetik autoz ia-ia inoiz ere ez gara jaisten.

—Ez, zu kimioarekin hasi zinenetik... kimioak logura handia ematen zizun, ez zinen ongi sentitzen.

—Jada ezin dut 800 kilometroan gidatu. Orain falta dugun gauza bakarra da hortik kolpea hartzea, jada hamasei hildako dauzkagu, 400 istripu baino gehiago, zauritu pilo bat..." (E5)

Adineko pertsonentzat ere joan-etorriak bereziki gogorak dira. Hala ere, senideen autobusaren nahiz Mirentxinen erabiltzaileen artean, pertsona batzuek ez diote familia-bisitari uko egiten, eragozpenak eragozpen.

"Alde batetik busean joaten den adineko jendea dago. Nik 71 urte daukat, oraingoz ongi moldatzen naiz, baina 80 urte baino gehiagoko pertsona batzuk daude, Algeciraseraino joaten direnak. Beste pertsona batzuek etzanda bidaiatzeko arazoak daukate eta jesarrita egin ohi dute bidaia. Haientzat benetako infernua da. Normalean 4 edo 5 jesarleku uzten dira ohatze bihurtu gabe, jesarrita joan behar dutenentzat, eta bidaia guztietan baten batek okupatzen ditu. Hori jasatea ez da batere erraza, bidaian ematen ditugun ordu guztiak kontuan hartuta. Bizkarreko arazoak daukan jendea izan ohi da, edo goiko ohatzeetara igotzeko gauza ez den jendea, indarrik edo bizkortasunik ez dutelako... gauza horiek pasatzen zaizkigu. Kasu batzuetan bisitak egitera aitona-amonak joaten dira eta zailtasunak euren kasuetan agerian daude." (E8)

“Huelvara doan autobusean adineko jende pilo bat joaten da, eta haietariko asko mareatuta joaten dira, lo egin ezinda. Meritu handia dute, laurogei urterekin... berrogeita hamar urte baino gehiagorekin ere..., arraioa, egun osoa hor sartuta, gaueko hamarrak heltzen zaizkizu, hamaiakak... eta busetik goizeko seietan irteten zara. Gu autobusetik goizeko seietan irteten ginen Sevillan, eta Huelvara eramaten gintuen busaren zain zazpiak eta erdira arte egoten ginen. Huelvara joaten ginen, bisita egin, Sevillara arratsaldeko laurak edo bostak aldera itzuli, eta gaueko hamarrak arte han bertan itxaron, kalean edo kafetegi batean. Guretzat gogorra bazen, imajinatu pertsona horientzat, egun osoan ibilian, goizeko seietatik gaueko hamarrak arte, autobusarekin gora eta behera, hemendik hara... oso gogorra da.” (E4)

Batzuetan muturreko kasuak gertatzen dira, eta senidearekin elkartzeko erabakia indartsuagoa da sortzen diren eragozpenak baino. Elkarrizketatu batzuek azaldu digutenez, konplizitate handia zegoen euren semearen eta haren amamaren artean; amama gaixorik zegoen eta zaharra zen, baina konplizitate hori hain handia zen non ziur egon ziren biek elkar ikusi behar zutela, horrek ekar zitzaiekeen ahaleginak gorabehera.

“Beno, bada, amamak bere bizitzako azken urteetan ezin izan zuen hura ikusi. Hil baino bi urte lehenago, berak ikusi zuen gaizki zegoela eta gure semeak egun batean zera esan zigun, ‘ama- ma ikusi nahi dut, berdin dit zuek astebete opor hartu behar izatea eta lau egun behar izatea bera hona jaisteko, baina ikusi nahi dut’, eta orduan, bada, horixe egin genuen. Hegaldi bat hartu genuen, Madrilen geldialdia eginda, eta beste hegaldi bat Madriletik Granadara. Amama aulki gurgildunean, artean gaixorik zegoelako, eta gainera diabetikoa zelako. Gero hotel batera eraman genuen, gero taxi bat hartu, kartzelara joan, eta beno, bidaia harentzat ikaragarria izan zen eta gainera hura azken aldiz ikusi zuen eta berriz ere ikusteko gogoarekin hil zen. Bidaian hiru egun eman genituen; egun bat jaisteko, hotelean lo egin genuen, gero hurrengo egunean bisita egin genuen, hotelera itzuli egiten lo egiteko, eta hurrengo egunean itzuli egin ginen.” (E5)

Gure laguntzaileetako batek azaldu zigun zein modutan antolatzen zituen bere familiaren bidaiak, Frantzia zegoen espetxeraino, euren ohiko bizilekutik 800 kilometro baino gehiagora zegoen leku bateraino. Joan-etorria euren semearen beharrezanek baldintzatzen dute, erabateko mendetasun-gradua duelako.

“Gure semeak ez du ongi jaten, ez du modu normalean jaten, janari xehatua behar du (...) Baldintza egokiak dauzkan hotel bat behar duzu, aulki gurgildunetarako gutxieneko egokitzapenak dauzkana... eta gainera hizkuntzarekin ez zara ezin hobeto moldatzen, arazorik izango duzun eta, apur bat kikilduta joaten zara. Izugarritzko nahastea da. Normalean autoa hartzen dugu, eta bera non dagoen, hurbil dagoen hotel bat hartzen dugu. Orain hurbil dauden bi hotel edo dauzkagu eta ongi, eta han igarotzen dugu denbora, zure janaria eramaten duzu, mikrouhin labeari etekina ateratzen diozu, behar den azpiegitura guztia eta aurrera egiten duzu. Eta hori bera ere nahastea da; izan ere, bisita baterako egun batean 300-400 kilometro egiten badituzu, bazoaz, bisita egiten duzu, buelta bat eman eta egunean bertan etxera itzuli. Baina kanpoan egon behar izatea oso zaila da (...) pixoihalak jantzi behar ditu, eta aldatu egin behar dizkiozu. Gero kontu pilo bat dauzka, garun paralisiarekin bizkarrezurreko arazoak dauzka, ezin da denbora luzean jarrerarekin berean egon, berehala nekatzen da eta etzateko joera du... kontu pilo bat egin behar da. Ez da gauza erraza. Batez ere, nahitaez hotela hartzea eta gaua igaro behar izatea.” (E12)

2.2.2.3. Miaketa egiteari uko egiteagatik galdutako bisitak. Haztatze eta guztiko miaketen kasua

Espetxeetako funtzionarioen eta senideen arteko harremana berez ez da ikerketa honen helburua, baina ezinbestean aipatu behar ditugu testigantza batzuk, bisitak egin baino lehen haztatze eta guztiko miaketak egin behar izatea azaltzen dutenak, metodo horrekin miaketa egiteari uko eginez gero bisitarik ez egitearen baldintzapean. ETArekin lotutako terrorismo delituengatik preso dauden pertsonen FIES (talde bereziak) izaera dute, Espetxe Erakundeetako Idazkari Nagusiaren 12/2011 eta 2/2015 Jarraibideen ondorioz. 1/2009 Jarraibidea atera zenetik diskrezionalitate marjina bat dago, ardua duten funtzionarioek halakoak egin ditzaten. Hala ere, gogorra ekarri beharko litzateke inguruabar objektiboren bat egon beharko litzatekeela, miaketa horiek beharrezkoak direla ziurtatzeko³; azaldu dizkiguten testigantzetan, aldiz, ikusten da aurretiaz ez zegoelako halako inguruabarrik.

³ Adibidez, zentroan sartu nahi duen pertsona arku detektagailutik igarotzen denean arkuak soina ateratzea eta, gainera, funtzionarioek zinezko susmoa izatea.

Horrenbestez, arlo horretan espetxe-agintariek diskrezionalitate marjina zabal samarra izan dezaketan arren, gogora ekarri behar da horrelako miaketak errespeturik zorrotzenarekin egin behar direla. Gogora ekar dezagun Giza Eskubideen Europako Auzitegiak *Valsinas Lituaniaren aurka*⁴ epaian ezarri zuena, preso bati egindako miaketen kasuan: jarduera horiek egitean interesdunari ez litzaioke errespetu faltarik erakutsi behar, eta interesdun horrengan ez litzateke sortu behar estutasun edo gutxiagotasun sentimendurik, horren ondorioz umiliazioa eragin ahal baita. Hori preso baten kasuan esan bazen, arrazoi handiagoz hartu beharko genuke hori kontuan bisitak egitera joaten diren senideentzat, haiek ez daude-eta epaitegi batek ezarritako zigor baten mendean, baizik eta espetxe-araubidearen mendean, bisitari gisa.

Jarraian azalduko diren testigantzetan ikus daitekeenez, pertsona horiek, halako miaketak egin zizkietean, besteren bat euren intimitatean sartu zelako sententzia sentitu zuten, ezintasun sententzia.

“Neure iloba joan zen bisita batean, adingabea zela (ni ezin izan nintzen joan, ondoezik nengoe-lako, bertigoekin), suhia, iloba eta senarra joan ziren. Neska gela batera bera bakarrik sartu zuten, bera miatzeko, eta bularretakoa kentzeko agindu zioten. Ilobak izaera nabarmena dauka, eta zera esan zidan: ‘Zer uste zuen, axola izango zitzaidala berak niri bularretakoa kentzeko esatea? Kendu egin nuen, eta mahai gainera bota’. Baina hori legez kanpoko da, adingabea da eta ezin dute bera bakarrik gela batean sartu. Aita bertan ez badago, ezin dute gela batean bakarrik sartu. Batean niri ere gela batean sartzea agindu zidaten eta emakume batek goiko partea kentzeko eskatu zidan eta miatzen hasi zitzaidan, baina ez haztatzen, ukitzen baizik. Hankak ukitzen hasi zitzaidan, prakak jaisteko esan zidan, zapatak kentzeko... esan nion: ‘Egiten ari zaren hau zure amari egingo baliote, zer irudituko zitzazun?’. Orduan, antza, geratu zen hala, apur bat, ‘Nik aginduak betetzen ditut, baina’. Esan nion: ‘Modu asko daude aginduak betetzeko, modu asko’. Nik salaketa jarri nuen eta hango epaitegiak gutuna bidali zidan, esateko hura ez zela delitua. (E14)

“Une latza izan zen miaketa famatu horiena: senideak miatzeko politika ezarri zen, eta hori Kordoban jasan genuen. Gobernuak aginduta, gu sartzeko, inolako justifikaziorik gabe miatu behar gintuzten, eta erabaki genuen ez genuela onartuko halako miaketarik. Gero norberak bere duintasuna nahi duen bezala neurtzen du eta ez du zertan sartu ondokoaren duintasunean. Egia da 8 hilabetean sartu gabe egon ginela, miaketari uko egiten. Gero egia da errekurtsio bat egon zela eta arrazoia eman zigutela, benetan ezin gintuztela miatu: presoak miatu ditzatela eta ezer ere ez daramatela ikus dezatela bisitaren ostean miatu ohi ditzatela. Gu, sartu baino lehen behartuko gintuzketen, ezer barrura pasatuko bagenu ere; hala ere, presoari berari zerbait pasatzen badiogu, gero miatzen badute pasatutako hori aurkituko diote. Presoen senideak izate hutsagatik miatuko gintuzten. Sasoi hori ez zen batere erraza izan, zeren eta, miaketa funtzionario batek edo besteak egiten bazuen, era batekoa edo bestekoa zen. Hasieran erraketa erabili behar dute, nik sekula ez nuen onartu, eta gaur ere ez dut onartzen, atxilotu banindute bezala jar nazatela. Nire alabari duela gutxi esan zioten prakak jaitsi zitzala, eta esan nion ‘burutik egin zaizu, ala?, nola esango diozu 13 urteko alabari prakak jaitsi ditzala zarata atera dutelako?’. Haiek egiten dutena ez dute neurtzen, ez dute kontrolatzen deus ere, eskuak hormaren kontra jarrarazten dizkizute eta miatzen zaituzte, atxilotuta egongo bazina bezala. Nik andre oso zaharrak ikusi ditut. Ez dira kontrolatzen balazta gehiegi sakatzen ari direla. Nik ahotsa ez dut sekula goratu, eta ez dut sekula hala egingo, baina kexa asko jarri ditut.” (E2)

“Adibidez, niri, adingabea nintzela, esan zidaten miatuko nindutela. Nire ustez, eta zuzenbidean aditua izan gabe, eta heldu batekin banengo ere, hori ez da legezkoa. Erraketa eta hala, bai, baina miaketa egiteko haztatzea eta bularretako hutsean geratzeko eskatzea, gauza horiek... atea irekita egonda eta izeba begira daukazula ere, ez da legezkoa. Eta balantzan jarri behar duzu hori guztia: hura ikusteko edo ez ikusteko bidaia horrek eskatu dizun denbora eta ahalegin guztia, eta hori guztia une batean pentsatu behar.” (E1)

“Miaketen garaia oso latza izan zen Almerian, beti tokatzen zitzaigulako. Egin zuten lehenengo aldirian bertan nengoen, miatu behar gintuztela esan ziguten eta uko egin genion. Etortzeko bidaian, Mirentxinen, beste kartzela batzuetan berdin gertatu zela enteratu ginen, gobernuaren jarraibidea zela. Nik hain zuzen ere bisean biseko bat galdu nuen, uko egin niolako inork ni ukitzeari. Hainbat hilabetez ego ginen joaten eta bisean bisekorik izan gabe itzultzen, arrazoi horregatik. Baina Almerian egin ez zezatela lortu genuen.” (E10)

4 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Valsinas Lituaniaren aurka* kasua, 2001eko uztailaren 24a, 44558/98 zk.ko idatz-zatia.

2.2.3. Urruntzearen kostu ekonomikoa

Ohiko bizilekutik urruneko espetxeetan senideak dauzkaten pertsonentzat, hilero edo 15 egunez behin bidaiatzeak esfortzu ekonomiko handia dakar, sarritan horrekin batera ostaturako eta mantenurako gastuak doazelako.

“Bidaiatzen dugun heldu guztien artean autobusa ordaintzen dugu. Pertsona bakoitzak 125 € ordaindu behar ditu. Horrez gain, bazkaria eta afaria ordaindu behar ditugu, hori gutxienez.” (E8)

“Kontu honetan nik... lana daukat eta moldatu egin naiz, baina egia da beste gauza batzuetarako ezer ere ez zaizula geratzen. Aukeratu behar da. Jendeak galdetzen dit: nola moldatzen zara? Eta bai, hemendik eta handik kendu behar duzu zer edo zer, baina nik argi izan ditut beti lehentasunak. Diru asko gastatzen duzu, eta noizean behin joaten den jendeak, tira, baina bikotekidea han badaukazu eta hilero joan behar baduzu... eta gainera Almeriara.” (E10)

“Gure kasuan (nire emaztearen eta bion kasuan) biok soldata bana daukagu eta ez daukagu gastu handirik egiteko. Baina hasten bazara horri kentzen bidaia bakoitzak kostatzen duena, normalean 220 € izaten dira gasolioarengatik eta autobidearengatik, joan eta etorri –autobidea bakarrik 90 euro dira. Hori da hasteko behar duzuna. Normalean, hasteko etxean ogitartekoa jaten dugu, eta bideari ekiten diogu. Gero, lo egiteko ere ordaindu behar da. Han, Britainian, mota guztietako preso senideei edo preso beraiei, kartzelarik irteten direnean, zerbitzua ematen dioten sekularren zentro bat dago. Han lekua badago, ongi, merkea delako, baina lekuri egon ezean, hotela bilatu behar da eta orduan beste 50 edo 60 euro dira. Eta gero autoa, izan ere guk hemen autotxo bat geneukan gure ingurunean mugitzeko, baina noski, horrekin ezin gara Britainiaraino joan.” (E9)

“Egun bat lehenago irtetea, eta ahal dela janaria eramatea, hotelarekin eta besterekin dezente ordaindu behar da-eta. Lehengo egunean, Roanne-ra Iparraldeko lagunaren familiarekin joan gineanean, autobidetik joan beharrean, hau da Burdeos edo Limogetik, Angoulêmeetik joan ginen, autobiatik, bidesariaren erdia ordainduta, eta hau dela eta bestea dela zeu bakarrik bazoaz, bidesariaren eta gasolinaren artean egizu 350€ izango direla, joan eta etorri Roannetik, 1.600 kilometro, kristoren dirutza. Hura bisitatzera jende gutxi badoa eta 15 egunez behin bazoaz kristoren dirutza da, gehi janaria eta hotela (...) euskal presoak hurbileko kartzelatan egongo balira, aguantatzeko eta antolatze-ko erakutsi duten ahalmenarekin, ongi antolatutako bidaiak izango lirateke, gutxienezko kostu batekin eta ia-ia erabateko segurtasun-bermeekin.” (E6)

“Gure kasuan bilobek bi urte eta erdi eta lau urte eta erdi daukate. Bidaia oraingoz zerbait berria da eta eramaten dute, nik uste dut ez direla konturatzen horren guztiaren norainokoaz, horrek dakarren tamainaz eta kargaz. Hemendik bi edo hiru urtera nagusia zurrenik bueltak ematen hasiko zaio, ‘zergatik dago han?’, ziur galdetuko duela. Adin horrekin, bidaia horretan, haien zati bat behar duzu haiek ez nekatzea, ez aspertzea... nik gidatzen dut euren aita joan ezin denean, urrun lan egiten duelako, alaba, andrea, bi semeak eta bostok goaz. Alabak eta biok entretenitu egiten ditugu ipuinekin, kantuekin, gelditzen zara eta eurekin apur batean jolasten zara, bidaia oso luzea delako eta ahalik eta jasangarriena izan dadila saiatzen zara: hasi haize-errotetatik edo Parisko dorretik, ez dakit noiz baina negu batean laser-izpia zeukan-eta... umeak oraindik adin horretan bizipen horiek azal-azalean dauzka, sakontasun handiagorik gabe. Hori bidaiari berari buruz; gero alde ekonomikoan benetako odoljarioa da; izan ere, noski; bidaiaren erdian bi gelako ostalua han, janari aldetik dakarren guztia, etxetik zerbait eramaten saiatzen zarelako baina han beti zerbait erosi behar, begiratu ea hartzen duzun ostalua sukaldea edo mikrouhin-labea daukan, zerbait berotzeko, bestela... kristoren dirutza da, abenduan 1.000-1.500€ inguru utzi genituen.” (E6)

Lehenago agerian geratu denez, elkarrizketatuetako batzuek beharrezkoak diren senideekin bidaiatzen dute. Etengabeko zainketa behar duen semea duen laguntzaile horren kasuan, nahitaez espertxetik hurbilen dagoen hotel batean hartu behar dute ostalua, gaztearen ongizatea ziurtatzeko.

“Baldintza egokiak dauzkan hotel bat behar duzu, aulki gurrildunetarako gutxienezko egokitzapenak dauzkana... Normalean autoa hartzen dugu, eta bera non dagoen, hurbil dagoen hotel bat hartzen dugu. Orain hurbil dauden bi hotel edo daukagu eta ongi, eta han igarotzen dugu denbora, zure janari kontuak eramaten dituzu, mikrouhin labeari etekina ateratzen diozu eta aurrera egiten duzu (...) Ekonomia aldetik sekulako dirutza da, ez soilik hotela, baizik eta autobideetako bidesariak, gasolina eta beste... diru asko da.” (E12)

Joan-etorriek dakartzaten etengabeko gastuak are garestiagoak izan daitezke osasunarengatik, ikasketengatik edo bestelakoengatik ezinbestekoak diren beste gastu batzuk gehitzen baditugu, halakoek familientzat galera ekonomiko handi samarra ekarri ahal baitute.

“—Orain hau eraman behar diogu (erakutsi egiten du), lupa batzuk dira betaurrekoetan jartzeko, ea ikusten duen, orain daukanarekin letra txikia ezin duelako irakurri. Ezin du irakurri. Begi bat galduta dauka dagoeneko, eta bestean ehuneko 40 pasatxo. Berak betaurrekoan lupa hau jartzen du eta horrekin ikasten du. Orain hau bezalako lupa bat dauka, 1,5ekoa, baina hau, 3,5ekoa, eramateko eskatu digu. Sartzen uzten badigute... Berak eskatu du. (...) Bion artean kobratzen dugunarekin ez gara 1.000 euroetara heltzen. Gastu finko batzuk dauzkagu lekualdatzeetarako, gasolinarako, hango egonaldirako, egiten ari den ikasketen liburuetarako, eta gainera, hau erosi behar izatea bezalako kontu zehatz bat sortzen bada... gauza asko kendu behar izaten ditugu.

—Gainera, hileroko pekulia sartu behar diogu.” (E14)

Urruntze-politikaren eraginpeko presoaren bat duten familien kasuan, senide bat zigor bat betetzen edukitzeak dakartzan gastu arruntei (gorago aipatutako pekulioaren kasua, adibidez), joan-etorrien, ostatuaren eta mantenuaren hileko aparteko gastuak gehitzen zaizkie, eta horiek aztertzen dira atal honetan. Horrek guztiak kopuru handi samarra ematen du, honako testigantza honetan ikus daitekeenez.

“—Zuk dirua sartu behar duzu. Zuk dirua sartzen ez baduzu, presoak ezin dizu telefonoz deitu, deia txartelarekin egin behar duelako, telefonorako txartela Ekonomatuan erosi behar du. Deia denboragailu automatiko batek kontrolatzen du eta denboragailu horrek txistua jotzen du “Ama, hiru segundo”, eta eten egiten da, presoak ez du deia moztzen, automatikoki moztzen zaizu... baina dirua sartu behar diozu jan dezan, bestela gosea eduki dezake. Arropa ordaindu behar diozu, ikasketak ordaindu behar dizkiozu ikasten badago, irakurtzeko liburuak... benetako eromena da egoera hori, hainbestearaino non iaz Auzitegi Nazionalak Etxerateko kide batzuei dei egin zigun, galdeketa egiteko, ea dirua nork ematen zigun bidaiak ordaintzeko (...) Niri zehazki galdetu zidan ea nondik ateratzen nuen dirua bidaiak egiteko eta honetarako guztirako. Eta nik esan nion: hileroko nominatik. Baina kontua da adineko aita bati, Gipuzkoako agure bati galdetu ziola ea zeukan pentsioarekin nola moldatzen zen, ea nork ematen zion dirua, pentsio horrekin ez zuela hara jaisteko beste... Eta gizonak zera erantzun zion: “amilia daukadalako eta lagunak dauzkadalako, bestela ezin izango nintzateke jaitsi semea ikustera, eta horixe bera gertatzen zaie askori’, ezin dituzulako gastuak ordaindu, ezinezkoa da.” (E5)⁵

2.2.4. Urrunetik harremana izatea tartean gaixotasun larria dagoenean

Gaixorik dagoen senide bat zigorra betetzen ari izateagatik kezka izatea ulergarria da; horrez gain, aztergai dugun taldearen kasuan, kezka hori are handiagoa da batzuen eta besteen artean dagoen distantziarengatik. Horrez gain gaixotasunen bat dagoenean, urruntzearen aldagaia senideei antsietatea dakarkien elementua da. Ikus ditzagun fenomeno horren adibide batzuk.

“—Orduan kartzelan dauden gaixoen egoerarekin, nik orain gaixorik daudenen senideak ikusita, imajinatu ere ezin dut zer den hori. Izan ere, bera Granadara heldu zenean zera hartu zuen... kartzela Alboloten, beste kartzela guztiak bezala, hutsaren erdian dago, eta olibondo itsaso baten erdian dago, eta olibondoaren polenarekin alergia izaten hasi zen.

—Itsasoa diogunean, benetako olibondo itsasoa da, ehunka mila olibondo. Loratzen hasten direnean, hori benetako zera da... polena zorutik erratzez garbitu ahal duzu.

—Orduan asma atakeak izaten ditu. Adibidez, iaz atera behar izan zuten, txirrina jo behar izan zuten, zeren eta ziegan bakarrik egonda txirrin bat daukate, arazo larriren bat izanez gero, eta txirrina birritan jo behar izan zuten goizaldean, ito beharrean zegoelako, burua leihotik ateratzen arnasa hartu ezinda, alergiaren kontuarengatik, eta erizaindegira birritan eraman behar izan zuten oxigenoa eta kontu horiek jartzeko. Orduan beti daukazu kezka hori, normalean jesarrita egiten duelako lo. Batzuetan badakizu apur bat nola funtzionatzen duten. Medikuek lehengo aldiz joan zenean, gertatzen zitzaiona azaltzeko, hango mediku baten erantzuna zera izan zen: ‘Bada, orduan, jai daukazu, kartzela hau olibondo inguratuta dagoelako’. Eta esan nion: ‘Berme bat daukazu: ez zaituzte

5 Espetxeke egonaldirako arauak ezagutzeko ikus Barne Ministerioa (2010) *La prisión paso a paso*. Hemen eskuragarri: http://www.institucionpenitenciaria.es/web/export/sites/default/datos/descargables/publicaciones/Paso_a_Paso_en_castellano.pdf.

hemendik inora ere eramango; hemen gorriak ikusten dituzenez gero, hemen geratuko zara haiek erabaki arte'; eta, hain zuzen ere, duela sei urtetik dago Granadan.

—Kalean ez zeukan horrelako ezer ere. Kalean behin edo behin hautsari alergia izan zion... baina alergia asmatikorik ez, orduan orain han dago... Guk iragazki eta guztiko maskarak erosten dizkiogu, aitak kostata Interneten erosten dituenak, Ingalaterratik ekartzen dizkigute.” (E5)

Gaixotasun kroniko jakin batzuek aldian aldiko azterketak edo errehabilitaziorako ariketak eskatzen dituzte, eta jaso ditugun testigantzek diotenez, halakoak ezin dira beti egin.

“Gure semeak begi batean isuria izan zuen eta ikusmena galdu zuen. Salamancan oso arreta txarra dago. Azterketa egin beharko liokete hiru hilez behin, sei hilabetez behin gehienez... agian urtebete igarotzen da eta ez diote azterketarik egiten. Ospitale klinikora joan ginen hori salatzeraz, eta esan zidaten beste ospitale batera joan behar nuela. Pazientearentzako arretako pertsonarekin hitz egin nuen eta semeak zer daukan azaldu nion, zein azterketa behar dituen eta noiztik ez daukan halarorik. Zera erantzun zidan: ‘Ez da bidezkoa, zoaz lasai, hori konponduko dut-eta’. Handik egun gutxira azterketa egiteko deitu zioten. Baina noski, zer aurreratu zuen, ez bazioten txostenik eman? Betaurrekoak aldatu behar izan zituenean ez zioten txostenik eman. Ebakuntza egingo zioten, analisiak egin zizkieten, elektroa egin zioten, ebakuntza egiteko proba guztiak. Ez zioten deitzen, ez zioten deitzen... erreklamatu egin zuen, eta joan zenean zera esan zioten: ‘Pentsatu dut ez dizudala ebakuntzarik egingo, arriskuak daudelako...’. Hara, arriskuak... begi bateko ikusmena galtzea baino arrisku handiagorik... Nafarroako ospitalean ebakuntza egin nahi zioten. Gutun batzuk dauzkate, horietan euren burua eskaini zuten, hari harrera egiteko eta azterketak egiteko, eta ebakuntza behar izanez gero, ebakuntza egiteko. Baina ezetz esan zioten. Ez zutela lekualdatuko. Beraz, zirujau hark ebakuntza ez ziola egingo esan zion, eta ez zion ebakuntzarik egin. Beste kontu bat, zortzi urtez gutxi gorabehera odoluzkiekin egon zen, eta odoletan zituen. Oso gaizki egon zen, odoljario handiak zituelako. Gutxienez kolonoskopia bat egin zioten eta ezer txarrik ez zuela ikusi zuten. Odoluzki asko zituen odoletan, baina jakina, horretan, ez badaukazu elikadura egokia, ezin da ezer egin... Hain gaizki ikusi zuten non, nire alabak bisita egin zion batean, bisita amaitzean nire semea altxatu eta prakak, aulkia... Dena guztiz odolez blai. Handik hilabetera uste dut ebakuntza egin ziotela. Guri ez zigun ezer ere esan. Berak bakarrik igaro zuen ospitalean. Esan zidanez, “Zertarako esango dizuet, ez dizuete-eta sartzen utziko.” (E14)

“Semeak agerraldi psikotikoa jasan zuen kartzelan, Granadan. Azkenean horren guztiaren arrazoia izan zen tiroidea gaizki tratatu ziotela. Gibelaren analisi pilo bat egin zioten, drogen analisisia eta gauza horiek guztiak, eta gauza batzuk baztertzeko dituzte eta beste batzuk begiratzen dituzte. Ondorio batera heldu ziren, egia da arazoren bat izan zuela tiroidearekin, baina gaizki tratatuta zegoen. Orduan horregatik guztiarengatik agerraldia jasan zuen eta hor gaizki pasatu genuen, distantzia eta komunikazioa ikaragarria delako. Zaila da azaltzea... Orain, adibidez, Ibon Iparragirri buruz mintzatzeko direnean, nik haren ama gogoan daukat, eta hori zera da... ezin duzu deus ere egin, ezin zara mediku batekin mintzatu, hura ikustera zoaz eta harrezkero tratatu dute, eta ikusten duzu semearen begirada eta ez da berea, pastillak ematen ari zaizkio, eta zeure buruari galdetzen diozu ea onik egiten dioten, hura ongi tratatzen ari diren. Semea kartzelan gaixorik edukitzea da... Gainera, kartzelak ez zigun dei egin, presoren batek dei egin zuen, eta niri ez zidaten deus ere esan. Han eta hemen esaten zutena zen nire semea bere buruaz beste egiten saiatu zela. Orduan bai, lagunek deitzen zidaten eta ongi al zegoen galdetzen zidaten. Nire inguruan mugimendu apur bat arraroa ikusten nuen, baina azken batean ez zidaten esaten zer gertatu zen, eta azkenean abokatua jaitsi egin zen, medikuarekin harremanetan jarri zen eta orduan esan zidaten zer gertatu zen. Semeak bere burua zauritu zuen eta oso ongi gogoratzen zuen zer gertatu zen. Berak dioenez, hainbeste gauza sentitzen, entzuten zituen, eta hain sentimendu arraroak zeuzkan non min fisikoa jasan behar izaten zuen hori guztia ahazteko, baina ez zuela une batean ere bere burua hil nahi.” (E3)

“Anaiak espondilitisa dauka. Ez dauka sendabiderik, eta munduan sendagai batek ere ezin dio konpondu. Mina une batez kendu ahal du antiinflamatorioekin eta Nolutilarekin eta antzeko pastillekin, baina ezin da sendatu. Behar duena da aldian-aldian fisioterapeutarengana joatea, igeri egitea bizkarra sendotzeko, eta dieta ongi zaintzea. Hain zuzen ere, hiru gauza horiek kartzelan ezin ditu egin. Duela gutxi mediku batekin egon zen, Almeriako ospitale batera eramane zutelako, eta hark esan zion errehabilitazioa behar zuela. Anaiak erantzun zion ezin zela irten errehabilitazioa egiteko, eta errehabilitazioa ez ziotela kartzelara eramango. Azkenean ariketa batzuk irakatsi dizkio, bere kabuz egiteko, eta pastillak eman dizkio.” (E10)

2.2.5. Espetxeetara egindako bidaietan istripua izan dutenak eta hil direnak

Sakabanaketako politika orokorrak dakarren kosturik agerikoena eta tragikoena espetxeetarako bidean istripuak izan dituzten pertsona guztiek ordaindu dute. Jakina denez, istripu horietako batzuen ondorioa heriotza izan da, eta 16 lagun hil dira.

Laneko eta familiako betebeharrak edo bestelako betebeharrak baldintzatu egiten dituzte bizilekutik hain urrun dauden espetxeetara bisita egiteko egin beharreko joan-etorri luzeak eta, alde batetik, betebeharrak horiek; eta, bestetik, joan-etorri horiek kontraesankorrak izaten dira. Orduan sortzen den tentazioa presarekin edo nekearen bidaiatzea da, eta horrekin lortzen den gauza bakarra errepidean dagoen arriskua asko handitzea da. Hala onartzen du elkarrizketatu batek, agerian jartzen baitu senideek laneko bizitza eta bidaiak uzartu behar izateagatik nolako presioa sentitzen duten.

“Adibidez, ni pasa den urtera arte lanean ari nintzen eta gauez irteten nintzen 22:30ean, orduan 11etan bideari ekiten genion, bidai osoa gauez egiten genuen, lehengusinak, nik eta lagunak batek, gurekin norbait joan ahal bazen. Larunbatetan irteten ginen gaueko 11etan eta bisitara hurrengo goizean heltzen ginen. Igandean, bisita egiten genuen, ia-ia lorik egin gabe, nik astelehenean lan egin behar nuelako eta lehengusinak eskola zuelako. Bada, sustoren bat izan dugu, arriskutsua delako, gainera eguzkiarekin ez duzu ongi ikusten, ordu txarrak dira, gainera agian beste autoari gehiegi hurbildu eta bolante-kolpea eman, bazterbidetik irten... Ez zaude gidatzeko moduan. Eta garraio publikoa hartuz gero mugatuta zaude orduen aldetik, beraz ahal duzun moduan moldatzen zara.” (E1)

“Nik istripu txiki pare bat izan dut, ezer larririk ez, baina... eta gero matxura pilo bat furgonetan. Madrileran, Soto del Realera joaten nintzenean, batean espaloira igo nintzen eta farola bat jo nuen, despistatu nintzelako. Beste batean hainbat autok bata bestearen aurka talka egin zuten eta ni tartean nengoan. Kordoban matxura potoloa izan nuen, ia-ia hiru mila euro kostatu zitzaidan. Ni urtean 30.000 kilometro egiten egon naiz Castellonen egon zen garaian.” (E4)

Testigantza horrek agerian jartzen duenez, senideek bisita-araubidean sartzeko errepidean bidaiatzen eman behar duten ordu-kopuruaren poderioz, haietariko gehienek ezbehar ugari jasaten dituzte, larriagoak edo arinagoak.

“Alabak istripua izan zuenean kamioi bat aurreratzen ari ziren, ez dakit kamioikoak bolante-kolpea eman zuen edo zer, eta hainbat kanpai-buelta eman zituzten. Eta gero niri Eginon, joateko bidaian, kamioi batek zama galdu zuen eta guri etorri zitzaigun gainera. Ez zitzaigun guri ezer ere gertatu, baina autoaren gurpilak leherrarazi zizkigun eta horrela, alaba txikia, lagun bat eta hirurok gindoa-zen... eta gauza horiekin beldurra hartzen duzu, orain kamioi bat igarotzean zama ea nola daraman begiratzen diozu.” (E3)

“Alcalara joaten ginen sasoiari istripua izan genuen itzuleran, Burgos parean. Lagun batekin nihoan. Onik atera ginen, betikoa, lepoaldekoak, bihurritua... Ni gaztea nintzen eta ez nuen arazorik izan. Orduz geroztik, bizkarra... beti zer edo zer geratzen zaizu. Eta gero beldurra, beldurra hartzen duzu eta konturatzen zara zein arrisku duzun. Beti diot ez dudala ulertzen, hainbeste aste, hainbeste kilometro hainbeste jende egiten dituenak, proportzioan, eta zein istripu gutxi jasan ditugun. Kalkulua egingo bagenu, errepidean zenbat kilometro eta nolako egoeratan egiten ditugun... izan ere beti diozu ‘atseden hartu behar da’ baina jakina, bisitarako garaiz ere heldu behar da... Michelin gidakoa inprimatzen duzunean eta zera dakarrenean, ‘orain gelditzea tokatzen da, bi ordu gidatu duzu-eta’. Bai horixe, gelditu egingo naiz, Almeriara goizeko bederatzieta heldu nahi dut baina!” Ez dira baldintza egokiak, gizalegearen kontrakoa da egin behar izaten duguna.” (E10)

“Guk bi istripu jasan ditugu zuzenean. Behin basurde batzuk harrapatu genituen La Brújulan, autoak salto egin zuen eta gainetik igaro ginen, eta beste batean, ilobarekin gentozen, bera gidatzen ari zela, azeri batek gure aurrean errepidea zeharkatu zuen eta iraultzeko zorian egon ginen. Zortea duzu gertatu ez delako, baina ikusi duzu zer gertatu ahal zaizun, ongi ikusi gainera.” (E5)

“Noski, autoz joatea, alde batetik, errazagoa da, autoa hartu eta bazoaz... baina arriskuz beteta dago. Ez soilik bidai luzea delako, baizik eta nekearengatik ere. Ni bizirik nago kasualitatez. Ni lo geratu naiz birritan. Behin, Poitiersetik 50 kilometrorra, kamioi batera gehiegi hurbildu nintzen eta jo egin nuen, autoaren kontrola galdu nuen, baina hotzean erreakzionatu nuen, ez dakidala nola, eta norabidea zuzendu nuen. Beste batean lo geratu nintzen, baina semea nire ondoan zegoen eta ohar-

tarazi ninduen eta bazterbidean aparkatu ahal izan nuen. Birritan, esperientzia izugarria. Oso kontu serioa da. Jende asko dabil errepidean, bai, baina gurea ez da lanera joatea, ezta oportetan ere. Gu beste animo batekin goaz, beste gogo batekin, estresarekin, buruan pentsamendu pilo bat daramagula... ez zara lasai joaten, batere lasai ez.” (E9)

—Senide batzuei itxaroten egon ginen, bagenekien joan behar zutela, eta zorte handia izan zuten.

—Matrikularik gabe heldu ziren, aurrealdea hala... hala-moduz jarraitu ahal izan zuten eta bisitara doi-doi heldu ziren.

—Justu heldu ziren, azken 5 minutuetan.

—Eta gero, jakina, itzuli egin behar da. Hori zuhurtziari gehitu behar zaio. Ez zaizu zuri zuzenean gertatzen, baina hona datorren bati gertatu zaiola ikusteak, burua ukitzen dizu, ez da erraza aintzat hartzea.

—Une horietan nahiko estu zabilta, urduritasuna metatzen zaizu. Ez dira oporrak, eta ez dakizu zer aurkituko duzun, egun bakoitzean edozer sortu ahal zaizu, bai bidaian, bai egun batean edo bestean han dauden funtzionarioekin.” (E13)

Azkeneko utzi ditugu kontakizunik gogorrenak, zeinetan hildakoak gertatu ziren istripuak azaltzen diren. Gure testigantzen artean lehenengoak dioenez, gure laguntzailea furgoneta batean zihoan, eta furgoneta horrek talka egin zuen lehenago istripua izan zuen beste ibilgailu batekin. Elkarrizketatuak oso zauri larriak jasan zituen, eta, tamalez, beste ibilgailuko bidaiari bat hil egin zen. Bigarren testigantzan, preso baten bikotekideak hura bisitatzera zihoala jasan zuen istripua kontatzen da.

“Istripua itzultzeko bidaian izan zen. Bisean bisekoa larunbatean izan genuen, eta igandean bueltan gindoazen. Geldialdia egin genuen Tuterako zerbitzugunean, zerbait jateko eta etxeraino bidean apurka jarraitzeko. Gure aurka talka egin zuen autoa Zaragozarantz zihoan, autobideko beste erreititik, Donostian eguna pasatzen egon ziren. Ez dakit zer gertatu zitzaion gidatzen ari zen mutilari, baina kontrola galdu zuen, eta autobidearen tarte horretan ez dagoenez ez hesirik ez ezer, galtzadatik irten zen, erdibitzailea zeharkatu eta gu gindoazen erreia okupatzen geratu zen, gure aurre-aurrean. Barruan bikote bat zihoan, ezkonberriak. Emakumea hil zen, eta gainera haurdu zegoen. Benetako tragedia. Gu bihurtuak batetik irteten ari ginen eta bete-betean topo egin genuen. Nire senarra eta seme zaharrena aurreko jesarlekuetan zihoazen, eta airbagari esker ez zuten lesio larririk jasan, baina hainbat hilabetez min asko jasan zituzten. Ni atzeko jesarlekuan nindoan, segurtasun-uhala jantzita, eta bularrezurra eta besoa apurtu nituen. Bi urtez errehabilitazioa behar izan nuen. Zortzi hilabetez ezin izan nuen bidaiatu; haustura baten ostean bularrezurra bere lekura itzultzen da, baina denbora behar du. Ezin nuen segurtasun-uhala jantzi bidaiatzeko.” (E7)

—Nire semearen bikotekideak istripu hilgarria jasan zuen, hura bisitatzera zihoala. Autoak aquaplaininga egin zion. Valdemorora zihoan.

—Eguraldia oso txarra zen.

—Esan genien kontuz ibiltzeko errepidean, oso eguraldi txarra zegoelako, eta ez zirenez heldu, semeak pentsatu zuen azkenean ez bidaiatzea erabaki zutela. Pentsatu zuen “Ez dira etorriko eguraldi txarrarengatik”.

—Bi neska zihoazen. Bestea ere preso baten senidea zen. Istriputik bizirik irten zen, helikoptero batean ebakuatu ahal izan zuten. Asko kostatu zitzaion, baina aurrera egin zuen. Gurea unean bertan hil zen.

—Autoak esku artetik ihes egin zien eta zutoin baten kontra jo zuen.

—Hainbeste proiektu zeuzkaten, bera unibertsitatean ari zen lanean eta pozik zegoen. Benetako tragedia izan zen.” (E14)

2.2.6. Itxaropenak eta etorkizunerako gogoetak

Azkenik, gure laguntzaileei eskatu genien bizitzen ari diren egoeraren balorazio orokorra egin zezatela eta etorkizunerako zer espero zuten esan zezatela. Honako pasarte hauetan ikusten denez, senideek ikusten dute zigor baten partaide direla, auzitegi batek ere ezarri ez duen zigor bat, baina ondorio guztiz nabarmen-

nak dituen, euren etxeko ekonomia nahiz euren eguneroko jarduerak baldintzatzen baititu, baita euren bizi-kalitatea ere.

“Nire ustez, sakabanaketa-politika aplikatu zaion preso baten senidea izateagatik mugatuta bizi zara. Bizi-kalitatea mugatzen zaizu, eskubideak mugatzen zaizkizu. Zure bizimodua osorik aldatzen da. Oso bidaia luzeak egiteko planak egin behar dituzu, aldez aurretik antolatu, denbora hori zure aisialditik kendu, diru hori zure mantenutik deskontatu... Esan behar dut bidaia horietan hainbat pertsonaren elkartasun handia izan dudala haiekin harremanetan jarri naizenean herrietan, jatetxeetan, hoteletan. Batzuetan, ikusten dutenean hurrekin heltzen ginela, Galizian, zera esaten ziguten, “ez dago eskubiderik zuek horrela ibiltzeko. Pertsona horrek kartzelan egon behar badu, zergatik ezin da han egon? Eta hala, zuek ez zarete ibili behar leku batetik bestera”. Esan nahi dut oso harreman onak egin ditugula, eskerrak eman behar ditut, eta oso jende ona ezagutu dugu Galizian, Andaluzian, Madrilan... jende zintzoa, euren etxea eskaini diguna, “zatoz dutxa bat hartzera eta nahi baduzu lo egitera, horrela ez duzu hotel batera joan behar”. Nik elkartasun sentimendu hori bizi izan dut, kontatzen hasten zarenean zer egin behar duzun, senidea izateagatik nolako zigorra jaso duzun.” (E7)

Beste informatzaile batzuek ohartarazi gaituzenez, adineko pertsonak ikusten dute epe labur/ertainean halabeharrez ez dutela osasun egokia izango hain joan-etorri luzei aurre egiteko, eta ziurtasun horrek desgaste emozional nabarmena sortzen du.

“Ez dauka inolako zentzurik. Benetan zigorra betetzen ari denarentzat, bada, zigorra betetzen ari da eta kito, baina gainerakoentzat zentzugabea da guztiz, guk inondik ere arrazoirik ez duen plus hori ordaindu behar izatea. 700 kilometrorra egotetik 100era egotea izugarritzko diferentzia da, zeharo mezezi gabeko zigorra da, guk ez dugu ezertxo ere egin, eta ordaindu egiten dugu, sano garesti ordaindu, gainera, denbora luzean. Eta noski, semearekin daukadan arazoa, onartuta daukazun arazoa da, baina nire gurasoek adibidez 18 urte daramatzate kontu honekin, eta nire gurasoak beti daude gauza horrekin, urte asko dauzkatela eta unerren batean egoeraz jabetzen dira, eta jakina, bisitak egin nahiko lituzkete, ahal izango balitz 15 egunez behin, baina plan hori, 700 kilometro edo gehiago egitearena, bada, badakite gero eta gehiago kostatzen zaiela, eta izugarria da. Eta noski, depresioaldi batean sartzen dira, kristoren etapa txar batzuetan.” (E12)

“Gogora ekarri behar da, apur bat, sakabanaketa-politika honek adinekoentzat dakarren desgaste itzela; izan ere, tira, zenbat eta urte gehiago izan, hainbat eta ahalmen txikiagoa eta baliabide fisiko gutxiago bidaiako egoerei aurre egiteko, nekeari, desgaste horri... Oraingoz alaba gaztea da, ongi dago, osasuntsu, eta gu ongi, orduan aguantatu egiten duzu, badakizu zer tokatzen den, badakizu espetxe-politikak zein helburu izan duen, baina diozu, beno, eusteko eta erresistitzeko moduan zaudete. Eta hemendik 10 urtera animo txikiagoa izango dugu, fisikokiko ahulago, animoen aldetik desgastatuta, beno, inertiaren poderioz.” (E6)

Elkarrizketatuek zalantzarik gabe adierazi zuten preso dauden euren senideak aldi-aldi bisitatzeko asmoa dutela. Agerian utzi digutenez, horrek ez du esan nahi egoera horrek normaltasun kutsurik daukanik edo senideen eskubideak errespetatzen ari direlako itxurak egitearen tentazioari amore eman zaionik; aitzitik, esan nahi du egoera aldatzeko eskaria indarrean dagoela.

“Gizartea anitza da, eta era berean gu geure artean ere bai, gu egoera berdinean egoteagatik ez dugu zertan berdin pentsatu edo hori berdin kudeatu. Baina, adibidez, jende askok esaten dit ‘zein ongi, oso ongi daramazu!’ Bada, 21 urte daramatzat horrela, bisita bat egitera jaisten naizen bakoitzean zigorrarekin neure burua jo behar badut bizitza amaituko zait, eta eramateko oso modu latza izango litzateke hori, eta horregatik nahiago dut horrela eraman. Hala eta guztiz ere, nik gogo guztia jarriko dut egoera hori aldatzeko eta indar guztiarekin eta behar den jende guztiari hala egin dezala eskatzeko, egoera hori behingoz aldatzeko.” (E1)

“Frantzia preso bati esan diote ez dutela Euskal Herriko kartzeletara hurbilduko, bisitak aldi-aldi jasotzen dituelako. Espainian berdin, gure arrebak astero jasotzen ditu bisitak bere familiak eta lagunak gauza asko sakrifikatzen dituztelako, ez erraztasunik dagoelako.” (E4)

“Kartzeleki buruz mintzatzen garenean, etortzeari edo ez etortzeari buruz, semeak esaten dit ‘niri berdin dit, nik horma besterik ez dut ikusten’, berdin dio Alboloten egotea edo Zaballan edo Cuencan egotea, haiek horma besterik ez dutelako ikusten, arazoa guretzat da, ez haientzat... Zuk ezin duzu Granadara joan eta etorriko bidaia bat egin neska txiki batekin edo gaixorik dagoen pertsona batekin, ezin dituzu 2.000 kilometro egin segida batean, zeren eta, bidean bizitza arriskuan jartzen baituzu,

neguan negua delako, eta udan mundu guztia Andaluziara doalako eta errepedean sekulako jende pilo dagoelako. Onartu egiten duzu, bizi duzu eta aurrera egiten duzu. Eta hain argi daukazu, ahal duzun bitartean eta gorputzak uzten dizun bitartean, haiekin egoten jarraituko duzula eta inoiz ere ez dituzula bakarrik utziko. Nik batzuetan pentsatzen dut: "Baina ez dira konturatuko berdin diola? Baita haiek New Yorkera eramanda ere, joan egingo garela? Ez ditugu bakarrik utziko, bizitza bera kostata ere." (E5)

Sentsaziorik ohikoena bidegabekeriarena da, euren ardurapean ez dauden ekintza batzuegatik kriminalizatuta dagoen talde batekoak izatearen sentsazioa. Gure elkarrizketatuen arrazoibideak oso pragmatikoak izan dira, etorkizunari buruz dauzkaten iguripenak adierazterakoan. Pertsona batzuk baikorrakoak dira beste batzuk baino, baina gehienek ohartarazten gaituzte salbuespenezkoa dela bizi duten egoera, eta ez dagoela argudiorik haiek egoera horretan mantentzeko, sufrimendu antzua sorrarazten dien eta euren eguneroko bizimoduan hartzen dituzten erabaki guztiak baldintzatzen dizkien egoera batean.

"—Guk uste dugu zigortuta gaudela epaiketarik gabe, horrela sentitzen gara.

—Orain, adibidez, alaba haurdun dago berriro, eta prozesu guztia berriro hasiko dugu. Beno ez, askoz okerrago; izan ere, bera haurdun egonda Salamancara joaten zen ia-ia azkenera arte, eta haurtxoa, jaio eta hilabetera eraman zuen, baina orain pentsatzen ari da noiz joan ahal izango den erditu arte, 8 orduko bidaia delako. Behin edo behin hegazkinez egin dugu, baina ezinezkoa da hori, hain garestia da-eta. Gainera, emakume haurdunei arazoak jartzen dizkiete hegazkinean. Ekainean edo uztailean erdituko da eta jada pentsatzen ari da datorren hilean azkeneko joan ahal izango dela, beraz bere neba ikusteko aukera kenduko diote pilo bat hilabetetarako, zeren eta gero, hain txikia den haurtxo batekin... Guztiz diferentea da hiru orduko bidaia egitea edo zortzi ordukoa egitea.

—Batzuetan hori egiten duzunean hain ohituta zaude errutinara, eta hain ohikoa da, non ez duzun kontatu ere egiten... Baina jakina, bidaia bakoitza benetako borroka da, urduri egotea hainbat egunez, estu egotea, hara helduko zara eta ahal izango duzu edo ezin izango duzu... Eta hori mundu guztiak komentatzen du, ez da gure kasua soilik. Ni, adibidez, ez nago lasai aste guztietan, ez soilik niregatik, baizik eta lagunengatik, zeren eta ni, jakina, ez bainoa ni, baina astero badoa norbait." (E13)

"Urruntzea salbuespenezko egoera da, eta uste dugu gaur egun ez dagoela arrazoirik horri eusteko. Alde horretatik guretzat zaila da positiboki pentsatzea eta itxaropena edukitzea. Adibidez, Frantziako nazionalitatea duten bost preso Iparraldeko kartzelataratu hurbil ditzatela eskatu da, eta Frantziako estatuak ez du erantzunik eman. Orduan, ez dakizu." (E8)

"Nik esaten dut sakabanaketaren aurka borrokan ari naizela, gure borroka nagusiaren xedeak gunganako zigor politika basati hori suntsitzea izan behar du, bidaia horiek amai daitezela, gure bizitzak eta umeen bizitzak baldintzatzen dituen hori amaitu dadila. Ni horrek kezkatzen nau, psikologo batzuekin eta gai horretan adituak diren batzuekin mintzatu naiz, zeren eta ni kezkatuta bainago bidaia horiek neskari sorrarazi ahal dizkioten ondorioengatik, gorrotoa dela-eta; izan ere, ni saiatu egiten naiz gorrotoan oinarritutako hezkuntzarik ez ematen —nik uste dut bizikidetzaren alde bizi behar dela eta uste dut bizikidetzaren horren alde lan egin behar dugula, nahikoa jasan dugu-eta—, baina askotan ikusten dut hark nola begiratzen dien haiei eta diot "arraioa, zein sustrai moztu beharko ote dugu hor", hark bizi duena izugarria da-eta, eta hark bizi duena ez da soilik bere aita espetxean egotea, hori ere izugarria da, baina bidaiek erru handia dute haiei botatzen dizkien begiradetan, heltzea eta halako neke hori, halako zerbait sartzen zait." (E2)

3. Presoen familiek espetxe-legerian duten zeregina

Honako hau da gure abiapuntua: espetxe-politika berezi bat dago, ETArek terrorismo-deltuengatik zigorra betetzen ari diren pertsonen zuzendua, Espainian zein Frantzian. Politika horren ezaugarriak nabarmenenetako bat da presoak bi estatu-tako geografian sakabanatutako espetxeetan sartzea eta zigortuen eta euren familien ohiko bizilekuetatik urruntzea. Gure azterlanaren xede zehatzetako bat ez den arren, gogora ekarri ahal

da tratamenduko lehen graduaren sailkapenaren mendean ere badaudela, euren komunikazioetan orokorrean esku hartzen dela edo fitxategi zentralizatu batean (FIES) sartzen direla, euren familia- eta gizarte-inguruneke pertsonetik harremanari eragiten dioten beste neurri batzuen artean⁶. Hain zuzen ere espetxe-politika horren izaera orokor eta berezi hori da lehenengoz aztertu behar duguna; izan ere, ikusten dugunez, egindako delitu motaren arabera definitu da, eta ez zigortuaren ezaugarri pertsonalen edo ingurunearen arabera.

Abiapuntu gisa gogora ekarri behar da espetxe-jardueraren abiaburu inspiratzaileetako bat honako oinarri hau dela: presoek gizartearen zati izaten jarraitzen dute, eta inola ere ez dira gizarte horretatik baztertzen. Hortaz, eskubideen subjektu izaten jarraitzen dute, salbu eta preso izateagatik edo zigor-epailetan hala aurreikusia egoteagatik kendu behar zaizkien eskubideei dagokienez. Horren ondorioz, Espetxe Erregelamenduaren 3. artikulua dioenez, espetxeko bizimoduan erreferentzia izan behar da aske bizitzea, ahal dela espetxe barruan egotearen eragin kaltegarriak murriztuz eta gizarte-loturak bideratuz. Ikuspegi hori bat dator konstituzioaren 25.2 artikuluan aurreikusten den manuarekin; manu horrek ezartzen duenez, askatasuna kentzeko zigorraren helburua epaituak birgizarteratzea eta berreztea da. Horrekin bat etorruta, Espetxe Erregelamenduak ezartzen duenez, espetxe-jardueraren helburu nagusia zigortuak berreztea eta gizarteratzea da. Arrazoi horregatik, espetxe-agintariak diskrezionalitate marjina daukate, zigortu batek bere zigorra zein espetxetan bete behar duen zehazterakoan, baina Espetxei buruzko Lege Organiko Orokorren 12.1 artikulua azaltzen duenez, lehenago aipatu diren printzipio horiekiko koherentziak zera eskatzen du: espetxeen lurralde banaketan, espetxe administrazioak zigortuen deserrotze soziala saihestea hartu behar du kontuan irizpide gisa.

Printzipio horietatik guztietatik ondorioztatu ahal dugunez, preso dauden pertsonak ezin dira norbanako bakartuak izan; aitzitik, gizartearekiko lotura mantendu behar dute, gizartearen barruan jarraitzen dutelako, euren zigorra bete ondoren gizarte horren eremu publikora itzuliko baitira. Hori da, hain zuzen ere, birgizarteratzearen funtsa. Familiak dira hari eroale nagusia, presoak euren oraingo izaerarekin eta etorkizuneko izaerarekin lotzen dituen lokarrik sendoena. Horrenbestez, familien egoerari erreparatzean, zigortuak babesten dituzten eskubideen ikuspegia ez ezik espetxe politikaren xede onaren inspirazio diren printzipioak ezin hobeto betetzea hartu behar da kontuan.

Familiak eta, areago, familien gizarte-inguruneak espetxe-politikaren birgizarteratze helburuetan duten zeregin estrategiko hori Espetxei buruzko Lege Organiko Orokorrean bertan azpimarratzen da; lege horren 59.2 artikulua espetxe-tratamenduari agintzen dio zigor-legea errespetatzeko borondatea eta gaitasuna duten norbanakoei prestakuntza ematea; horretarako, norbanako horiengan familienganako zein gizarte osoarenganako errespetuzko eta banakako erantzukizuneko jarrera garatu behar da. Xede horiek lortzeko, espetxe-tratamenduak indibidualizatua izan behar du, presoaren nortasunaren eta historiaren arabera, eta ziurrenik zein ingurunetara itzuliko den eta hori ere kontuan hartu behar da (Espetxei buruzko Lege Organiko Orokorren 63. artikulua). Printzipio horrek Espainiako ordenamendua gidatzen du, baina horrez gain, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean adostutako eta sendotutako eskakizuna da. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epai batzuek gogora ekartzen dutenez, Europako zigor-araudiaren inspirazioa birgaitzearen ideia da, hau da, zigortua gizarteratzea, eta espetxe-betearazpena banakako planek gidatu behar dute, kontuan hartuta preso bakoitzaren egoera eta arriskugarritasun kriminalari buruzko aurreikuspena⁷.

Horrenbestez, ikus daitekeenez, presoen familia-bizitzak funtsezko zeregina du espetxe-politikaren barruan, baldin eta espetxe-politika horren inspirazioa presoak izaki sozial gisa ikustea bada eta espetxe-tratamenduaren bokazioa birgizarteratzea bada. Horrez gain, eta are garrantzitsuagoa, familia-bizitza funtsezko eskubidea da, eta zigortuei ezin zaie eskubide hori kendu. Hala onartzen du Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak, Espainiak eta Frantziak sinatu eta berretsi zuten hori, 8. artikuluan. Alde horretan tamalgarría da Konstituzio Auzitegiak jurisprudentzia aldetik hartutako norabidea; izan ere, behin eta berriz ulertu du Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua bere aplikazio-eremuaren barruan ez duela kontuan hartzen gurasoek, seme-alabek edo beste-lako senideen elkarrekin egoteko aukera izan dezaketetik. Interpretazio horren bitartez urruntzen da Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (GEEA) ezarritako doktrinatik. Doktrina horrek, hain zuzen ere, behin eta berriz ulertu du bizitza pribaturako eta familia-bizitzarako eskubidearen barruan sartzen dela familia bateko kideen

6 ETAko presoaren egoera juridikoari buruzko azterlan zehatzago bat, euren gizarteratzerako gomendioak ere ekartzen dituen, honako txosten hau da: Bengoetxea, Joxerramon eta Landa, Jon Mirena (koord.): *Reinserción y personas presas de ETA: análisis jurídico de sus estado actual y orientaciones de futuro*. (Euskaraz ere erabilgarri: *Gizarteratzea eta ETAko presoak: horien egungo egoerari buruzko azterketa juridikoa eta etorkizuneko orientazioak*). Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, 2014ko abendua.

7 Jurisprudentziaren ildo hori osorik biltzen da honako kasu honen epaian: *Vinter eta beste batzuk Erresuma Batuen aurka*, 2013ko uztailaren 9a, 66069/09, 130/10 eta 3896/10 zk.ko idatz-zatiak, § 115 eta 116.

arteko bizikidetzarako eta harremanerako aukera, baita espetxe-eremuan ere. Are gehiago, GEEAk Espainiako estatua zigortu du, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua urratzeagatik, Konstituzio Auzitegiak mantentzen duen interpretazio horren ondorioz⁸. Badirudi presoak urruntzeko politikaren justifikazioak hain garrantzitsuak den funtsezko eskubide baten konstituzio arloko interpretazioa bera baldintzatzen duela, eta hala Konstituzio Auzitegiak bere burua isolatzeko jarrera hartu duela Estrasburgoko Auzitegiaren interpretazioaren aurka. Gogora ekarri behar da hemen, Espainiako Konstituzioaren 10.2. artikulua agintzen duenez, funtsezko eskubideei buruzko arauak Espainiak sinatutako nazioarteko tratatuen arabera interpretatu behar direla.

Estrasburgoko Auzitegiak hainbat aldiz esan duenez, presoak izateak berez dakar norberaren familia-bizitza mugatu behar izatea, baina ezin da auzitan jarri 8. artikulua dakartzan eskubideak galdu ezin direla. Egia da Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak presoek ez diela bermatzen zigorra betetzeko lekua aukeratzeko eskubidea, baina egia da, halaber, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak onartu egin duela gizarte- eta familia-inguruetik urrun dagoen espetxe batean sartuz gero bisita egitea eragozteko edo galarazteko 8. artikulua interferentzia dela. Alde horretan, geure buruari galdetu ahal diogu ea talde bateko kideak familien bizilekuetatik urrun dauden espetxeetan orokorrean kokatzen dituen espetxe-politika bat inplementatzea ez al den, definizioz, zigorren tratamendu individualizatuaren printzipioaren urraketa, horren ondorio sistematikoetako bat presoek euren senideekin daukaten harremanaren interferentzia nabarmena baita. Hala, 8. artikulua urraketa ez litzateke izango espetxe-agintari jakin batzuen jardueraren zehatz baten emaitza, baizik eta ondorio orokor, sistematiko eta aurrez pentsatua.

Gai hau gehiago argitzeko, komenigarria da honako hau gogora ekartzea: Europako Kontseiluak, 2006ko urtarrilaren 11n egindako gomendioan (*Rec (2006) 2, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak estatua kideei egindako Gomendia, Europako espetxe-arauei buruzkoa*) ezarri zuenez, presoak euren bizilekuri edo birgizarteratze-zentrotik hurbilen dauden espetxeetara eraman behar dira. Era berean, Nazio Batzuen Batzar Nagusiak 1988ko abenduaren 9ko 43/173 Ebazpena hartu zuen (*Edozein motatako atxiloteta edo espetxea jasaten ari diren pertsona guztien babeserako Printzipio Multzoa*). Multzoko 20. printzipioan aurreikusita dagoenez, preso dauden pertsonak, ahal den neurrian, euren ohiko bizilekutik arrazoizko distantzia batera dagoen atxiloteta-gune batean egongo dira.

Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako kontseiluak, Genevan 1995ean egindako *Delituaren Prebentzioari eta Delinkuentearen Tratamenduari* buruzko lehen biltzarrean, eta 1957ko uztailaren 31ko 663C (XXIV) eta 1977ko maiatzaren 13ko 2076 (LXII) Ebazpenen bidez onetsita, herrialde demokratikoetako espetxe-legerietan aurreikusitako printzipio asko laburbildu zituen, honako hau azaldu zuenean:

Tratamenduan ez da azpimarratu behar presoak gizartetik baztertuta daudenik; aitzitik, gizarteko kide izaten jarraitzen dutela azpimarratu behar da. Helburu horrekin, ahal dela, komunitateko erakundeen arteko elkarlana baliatu behar da, establezimenduko langileei laguntzeko presoak birgizarteratzeko zereginean. Espetxe bakoitzak gizarte-langileen laguntza izan beharko du, presoaren harremanak mantendu eta hobetzeko bere familiarekin nahiz erabilgarri ahal zaizkion gizarte-erakundeekin

Horrenbestez, zera ikusten da: esanda geratu denez, Espainiako Konstituzioaren 25.2. artikulua ez du azaltzen presoek euren bizilekuetatik ahalik eta hurbileneko espetxeetan egoteko eskubidea dutenik, baina familia-bizitzarako funtsezko eskubidearen edukari erreparatuz, eta espetxe-politiken birgizarteratze-helburua gidatzen duten printzipioak kontuan hartuta, preso talde bat euren familien bizilekuetatik orokorrean urruntzea ez dago justifikatuta, eta gainera, ez da lege arloan inon ere kokatzen. Are gehiago, konstituzioaren manualetan helburua birgizarteratzea da; bada, orduan, hizpide duguna bezalako neurri orokorrek, presoak ere familiengandik urruntzea helburu duten horiek, desozializazioa lortze dute helburu de facto, eta ondorioz, halako neurriak konstituzioaren manualetan kanpoan geratuko lirateke.

Norbanakoa suntsitzea helburu ez duen espetxe-sistema batek kontuan hartu behar du askatasunez gabeztzeko zigor batek berekin dakarrela gizartetik eta familiarengatik urrundu behar izatea; ondorioz, onartzen badugu espetxe-tratamenduen jomuga birgizarteratzea dela, ez lirateke ontzat eman behar presoak bere gizarte-inguruetik urruntzea xede duten jardunbideak, hain zuen ere ingurune horretara itzuli behar baitu, eta are gutxiago onartu beharko lirateke jardunbide horiek, talde baten aurkako politika orokor baten barruan daudenean, hala espetxe-tratamenduen izaera individualizatua saihesten baita.

Esandako hori guztia Konstituzioaren 25. artikuluan agertzen den eta Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorrean garatzen den manualetan ondorio normala da; aldi berean, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren

⁸ GVA Espainiaren aurka kasuan, 2015eko martxoaren 17ko horretan, –35765/14 zk-ko idatz-zatia–, Konstituzio Auzitegiaren azaroaren 4ko 186/2013 epaiak dioenaren kontrakoa esaten da.

eta Espainiako Konstituzioan bildutako funtsezko eskubide bati, familia-bizitzarako eskubideari, alegia, edukirik ez kentzen saiatzen da (aipatu denez, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia bazter utzita). Orduan, antza denez, zigortu bat bere familiaren ohiko bizilekutik ahalik eta hurbilen dagoen zentro batean sartzeak araua izan beharko luke, eta kontrakoak salbuespena izan beharko luke, eta behar bezala justifikatu beharko litzateke, presoak espetxe barruan daukan arriskua edo preso horren inguruneak dauzkan arriskuak oinarri hartuta.

Hain zuzen ere, urruntzeak, orokorrean eta senideen testigantzei buruzko atalean ikusiko dugunez, ez du lortu senideek bisitak egiteari uztea, baina argi dago honako hau: senideen artean nahiz presoaren artean sortzen den sentsazioa, hau da, isolamendua eta inguruetatik deskonektatuta egotearen sentsazioa, espetxe-zigorri gehitzen zaion zigorra da, eta ez dago aurreikusita zehapen-araubidean, ezta zigor-epaian ere. Hortaz, Espetxe Erregelamenduak beren-beregi aipatzen duenez, espetxe-jarduera Konstituzioak eta legeak ezartzen dituzten mugen barruan egingo da, eta zigortuen eskubideei jarri ahal zaizkien murriztapen bakarrak legezko arauak ezartzen dituztenak izango dira.

Hain zuzen ere, azaldutako arrazoiengatik, espetxe-agintariek ez dute erabateko diskrezionalitatearik presoak euren administraziopean dauden espetxeetan banatzerakoan. Lehenago aipatu da Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorraren 12.1 artikulua, baita artikulua horrek zigortuen deserrotze soziala saihesteko ezartzen duen irizpidea ere. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ildo beretik gauza bera adierazi du hainbat aldiz: agintariek baloraziorako marjina bat daukate askatasunez gabetzeko zigorrak betearazteko modua zehazterakoan, baina bizitza pertsonalaren eta familia-bizitzaren errespeturako eskubidea dela-eta Estatuek betebeharrak positibo bat daukate: presoek laguntzea, euren familia-gunearekin benetako harremanari eusten⁹.

“8. artikulua Estatuari eskatzen dio presoek lagun diezaien, bidea dagoen heinean, espetxetik kanpo dauden pertsonekin loturak sortzeko eta mantentzeko, zigortuen birgizarteratzea sustatze aldera. Gauzak horrela, presoek euren zigorra zein lekutan bete behar duten zehaztea oso garrantzitsua da”¹⁰

Alde horretan, esan liteke orokorrean presoaren talde bat euren familien bizilekuetatik hurbileko espetxeetatik urruntzen dituen espetxe-politika batek nahita egiten duela Giza Eskubideen Europako Auzitegiak hizpide duen betebeharrak positibo horren aurka. Senideak espetxeetaraino joan dira eta presoek bisita egin diete aldian-aldian; horrek, gure ikuspuntutik, ez du esan nahi espetxe-agintariek betebeharrak urratu izana arinago denik, edo are gutxiago, urratutakoa oneratu denik. Tamalez, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak *Labaca Larrea Frantziaren aurka* kasuan ez du puntu hori kontuan hartu.

Ezerk ere ez du frogatzen, hain zuzen ere, euren senideek egindako joan-etorriek arazo gaindiezinik edo konpontzen zaila den arazorik sorrarazi dietenik. Auzia, beraz, ez da Khodorkovskiy eta Lebedev, Vintman eta Rodzevillo Ukrainaren aurka auzien antzekoa; auzi horietan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak kontuan hartu zuen distantzia geografiko handia, baita garraio-sareen egoerak (konparazio modura, Khodorkovskiy eta Lebedev auzian, espetxeak demandatzaileen bizilekutik milaka kilometrora zeuden); Vintman auzian, demandatzaileak ama ez zuen berriz ere ikusi ia-ia hamar urtez; Rodzevillo auzian, demandatzaileak 2007 eta 2015 bitartean zazpi aldiz soilik jaso zuen amaren bisita, eta familiako beste kide batek ere ez zion bisitarik egin”¹¹.

Beraz, harrigarria da 8. artikulua urraketa egiaztatzeko erabilitako irizpidetzat kilometro kopuruaren konparazioa¹² eta senideek egindako bisita kopurua izatea, eta ez Hitzarmena sinatu zuten estatuetako agintarien ekintzak edo ez egiteak.

9 Kasu hauen epaietan aipatzen da: *Khodorkovskiy eta Lebedev Errusiaren aurka*, 11082/06 eta 13772/05 zk., 2013ko uztailaren 25a, § 836 eta hurrengoak; *Vintman Ukrainaren aurka*, 28403/05 zk., 2014ko urriaren 23a, §78; *Messina Italiaren aurka*, 25498/94 zk., 2000ko irailaren 28a, § 61.

10 Hala azaltzen da Giza Eskubideen Europako Batzordeak (gaur egungo Auzitegiaren aurrekaria) *Wakefield Erresuma Batuen aurka* kasuan emandako epaian, 15817/89 zk., 1990eko urriaren 1a.

11 Ez-onartze autoa, *Labaca Larrea Frantziaren aurka* kasua, 56710/13 zk., 2017ko otsailaren 7a, § 45

12 Egia da *Khodorkovskiy* kasuko presoak milaka kilometroko distantzia batera bidali zituztela, baina egia da, halaber, Errusiako azalera, orografia, klima eta azpiegiturak oso diferenteak direla Frantziaren eta Espainiaren daudenekin alderatuta. *Vintman* kasuko distantziak –700 km eta 1.000 km– dagozkigun kasuetako distantzien antzekoagoak dira, Auzitegiak bere arrazoinamenduan horri ez ikusiarena egin dion arren. Egia da, halaber, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak *Vintman* kasuan 8. artikulua urraketa egon zela ebazteko erabilitako irizpide erabakigarria honako egitate honen mendean dagoela: zigortuak ez zuen amaren bisita bat ere jaso, ama hori antza denez zuzeneko senide bakarra zen, eta egitateak gertatu ziren unean emakume hura adinekoa zen eta osasuna hondatuta zuen. Horrek esan nahi al du Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean eskubide baten urraketa senideen kopuruaren, adinaren, osasunaren, erosteko ahalmenaren edo erabaki-ahalmenaren mendean jartzen dela, estatu sinatzaileetako agintarien ekintzen edo ez-egiteen mendean jarri beharrean?

4. Ondorioak eta gomendioak

Jarraian, aurreko ataletan azaldutako datu kuantitatiboetatik eta kualitatiboetatik abiatuta ikerketa taldeak atera dituen ondorioetako batzuk zerrendatuko dira:

-Sakabanaketa politika izenez ezagutzen dena, modu orokorrean aplikatuta, espetxe-legerian agertzen den zigorren tratamendu indibidualizatuaren printzipioaren urraketa da.

-Tratamendu indibidualizatu horren helburua zigortuen birgizarteratze eta birgaitzea lortzea da, eta horretarako, alderdi instrumentalean, zigortuen deserrotze soziala saihestea beharrezkoa da. Ebidentzia askok erakusten dutenez, urruntze-politikak eragozpen ugari sorrarazten dizkie familia- eta gizarte-inguruneei, preso dagoen pertsonarekin aldian-aldian harremana eduki ahal izateko. Bisita presentzial horien bitartez lotura horrek irautea, gure iritziz, ezinbestekoa da legearen helburuak betetzeko.

-Egia da presoek ez diotela utzi aldian-aldian senideen bisitak jasotzeari, baina testigantzek agerian jartzen dutenez, bisita horiek senideek euren kabuz egin dituzte, eta ordaindu duten kostu ekonomiko, fisiko eta emozionalari bidegabea deritzogu.

-Familiak prest daude aurre egiten jarraitzeko joan-etorri horiei nahiz joan-etorri horiek dakartzaten oinazeei. Prestasun hori, hala ere, ezin da aitzakiatzat hartu dagoen arazoaren aurrean ezikusia-rena egiteko, eta bide horretatik ezin da ulertu urruntzearen espetxe-politikak eragozpenik jartzen ez dionik presoek eta euren familiek elkarrekin egoteaz gozatzeko duten eskubideari. Gure iritziz, familia-bizitzarako eskubidea berresten duen Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua fiskalizatzerakoan Estatuaren ekintza edo ez-egitea hartu behar da oinarri, ez joan eta etorriko bidaia arriskutsuetan ehunka edo milaka kilometro egin behar dituztenen eroapena. Era berean, gure ustez, Konstituzioaren 18.1. artikulua barruan familia bateko kideek elkarren presentzia fisikoaz gozatzeko duten eskubidea ere dagoela ulertu beharko litzateke.

-Baloratu ahal izan dugunez, urruntze-politikak oinaze berezia dakarkie adineko eta adingabeko senideei eta mugikortasun murriztua duten senideei; izan ere, joan-etorri luzeek euren bizi-kalitatea hondatzen dute, eta are gehiago, bidaia hori osatu ezin denean presoarekiko harremana eragoztera heldu ahal dira.

-Gure kezka azaltzen dugu, gaixotasun larriak edo kronikoak jasaten dituzten presoek familiek sentitzen duten antsietateari buruzko testigantzak direla-eta. Bereziki, antza denez egoera bartzuetan ez direlako beharrezko azterketak egiten presoek osasun-egoeran gertatutako narriadura monitorizatzeko edo ez delako administrazio-elementurik –adibidez txosten edo diagnostiko medikorik– eskura jartzen.

-Estatu demokratikoen espetxe-politikek, Europako Kontseiluak edo Nazio Batuek ezarritako estandarren arabera, tratamendu indibidualizatuak hartu behar dituzte gida gisa; tratamendu horietan, familiek birgizarteratzean duten zeregina kontuan hartu behar da. Gure iritziz, presoek euren bizilekue-
tatik eta euren familiengandik urruntzea ez dator bat espetxe-politikaren birgizarteratze helburuekin, eta ez dio onik egiten arlo horretan familiek bete ahal duten zereginari.

Banan-banan azaldu ditugun alderdiek azken hausnarketa honetara bideratzen gaituzte: urruntze eta saka-
banatze politika horrek sorraz du ETArekin lotutako terrorismo delituengatik preso dauden pertsonen familiek eta inguruneak jasaten duten sufrimendua. Horrenbestez, modu orokorrean aplikatzen den urrun-
tze-politika hori Estatu demokratikoen espetxe-legeriaren eta Europako Kontseiluko edo Nazio Batuen Era-
kundeko kide diren herrialdeen barneko nahiz nazioarteko estandarren printzipio gidariekin bateraezina
direla uste dugunez,

-Gomendatzen dugu presoek euren bizilekueetatik urruntzearen politika orokorra bertan behera utz
dadila eta zigorren tratamendu indibidualizatu berriz ere egiten has dadila. Honako honek izan
beharko luke arau orokorra: zigorrak betetzea zigortutako pertsonen eta beren senideen ohiko bizi-
lekueetatik hurbil dauden espetxeetan. Tratamendu indibidualizatu justifikatzeko, egiaztatu beharko
litzateke preso bakoitzaren arriskugarritasuna, barneko eta kanpoko adierazleetan oinarrituta. Urrun-
tze-politika bat orokorrean aplikatzea bateraezina da zigor-legeriak espetxe-betearazpenari agintzen
dion birgaitze eta birgizarteratze zereginarekin.

-Urruntze-politika horrek denbora aldetik iraun egiten duenez, gure gomendioa premiaz egin behar du, senide asko bizi dituzten egoerak –txosten honetan azaldu zaizkigun horiek– kroniko bihurtu ez daitezten. Hain zuzen ere, egoera horietako batzuen ezaugarriei erreparatuta ikus daiteke kroniko bihurtzen ari direla; hortaz, komenigarria litzateke terrorismo delituengatik zigorra betetzen ari diren senideengan bidegabekeria horiek saihestuko dituzten jardunbideetara itzultzea espetxe-betearazpenaren arloan.

5. Aipatutako bibliografia

EUROPAKO KONTSEILUA; Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak estatu kideei egindako Gomendioa, Rec (2006)2, Europako espetxe-arauei buruzkoa. Ministroen Batzordeak 2006ko urtarrilaren 11n hartua, Ministroen Ordezkarien 952. bileran.

BENGOETXEA, Joxerramon eta LANDA, Jon Mirena (koord.) *Reinserción y personas presas de ETA: análisis jurídico de sus estado actual y orientaciones de futuro*. (Euskaraz ere erabilgarri: *Gizarteratzea eta ETako presoak: horien egungo egoerari buruzko azterketa juridikoa eta etorkizuneko orientazioak*). Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, 2014ko abendua.

ETXERAT, *Dispersión. El precio del derecho a las visitas*, 2017ko maiatzaren 20an kontsultatu zen. (Euskarazko bertsioa: *Bisita eskubidearen prezioa*). Hemen eskuragarri: <http://www.etxerat.eus/index.php/eu/txostenak/dosieres-eu>

BARNE MINISTERIOA (2010) *La prisión paso a paso*. Hemen eskuragarri: http://www.institucionpenitenciaria.es/web/export/sites/default/datos/descargables/publicaciones/Paso_a_Paso_en_castellano.pdf

NAZIO BATUAK; *Edozein motatako atxiloteta edo presoaldia jasaten ari diren pertsona guztiak babes-teko printzipio-multzoa*. Batzar Nagusiak onartua 1988ko abenduaren 9ko 43/173 Ebazpenean

NAZIO BATUAK, Ekonomia eta Gizarte Kontseilua, Genevan 1955ean egindako *Delituaren Prebentzioari eta Delinkuentearen Tratamenduari* buruzko lehen biltzarrean onetsitako 1957ko uztailaren 31ko 663C (XXIV) eta 1977ko maiatzaren 13ko 2076 (LXII) Ebazpenak.

SARE, *Datos sobre las personas vascas gravemente enfermas*, 2017ko ekainaren 10ean kontsultatu zen. Hemen dago eskuragarri: <http://sare.eus/wp-content/uploads/2015/11/liburuxka-datos.pdf> Euskarazko bertsioa: Larrik gaixorik dauden euskal presoengatik inguruko datuak, hemen eskuragarri: <http://sare.eus/wp-content/uploads/2015/11/liburuxka-datuak.pdf>

ZIMMER, Gabi eta beste batzuk, *Europako diputatuengatik txostena, arrazoi politikoengatik euskal presoengatik Giza Eskubideei buruzkoa*, 2016ko apirila.



A large, bold, grey number '2' is the central focus of the page. It is partially overlaid by a white, torn-paper-like graphic that originates from the top left and extends across the upper half of the page. To the right of the number, there is a vertical grey dot, a teal circle, and the word 'dokumentua' written vertically.

● dokumentua

Sailarteko lantaldeak
gizarteratze-politika publikoen
esparru bat aurreikusteko
hartutako oinarrizko testua, justizia
leheneratzailearen Europako
korrontearen ildotik

“Justizia leheneratzaile eta terapeutikoa”
Europako Kongresuan, 2016ko ekainaren
17an, Donostian aurkeztutako txostena

Gizarteratzea eta justizia leheneratzailea

Eusko Jaurlaritzaren bizikidetza-politiketan

Hizlaria: **Jonan Fernandez**
Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako
idazkari nagusia



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetza
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

Lehen zatia. Atariko oharrak

1. Testuingurua

Txosten honen edukia berariazko testuinguru batean dago kokatuta. Duela bost urte terrorismoaren amaiera iragarri zuen ETAk, bost hamarkadaren ostean. Harrezkero, bakea sendotzea eta bizikidetzaren normalizazioa helburu duten politika publikoak gauzatzen ari da Eusko Jaurlaritzak.

Indarkeriak arrasto ikaragarria utzi du: atsekabea, sufrimendua, injustizia eta biktimak. Biktimen eskubideei erantzuteak berebiziko garrantzia hartu du euskal gizartearen garatzen ari den bake- eta bizikidetzaren prozesuan. 1990etik hasita, gero eta gehiago gailendu da. 1990 baino lehenago, biktimak baztertuta zeuden, ez zitzaizkien arretarik ematen. Gaur egun, oraindik ere eztabaida handiak ditugu biktimen eta bizikidetzaren arloko politika publikoen harmonizazioari buruz.

Bestalde, ETako kide edo laguntzaile izateagatik espetxeratutako pertsonen kopurua 500etik 900era birtartekoa izan da azken hamarkada horietan. Gaur egun, 360 pertsona inguru daude espetxean. Espetxe-politikak, oro har, eta gizarteratze-politikak, bereziki, eztabaida handiak sortu dituzte azken hogeitun urteetan. Gaur egun ere, eragin handia dute bizikidetzaren normalizatzeko prozesuan.

2016ko ekainean, zorionez, ETaren indarkeria iraganeko oroitzapen gaizto bat da. Horrek egoera berberetan berriro erortzeko arriskua desagerrarazi du, eta hori guztia erabakigarria da bi arlo hauetarako: alde batetik, biktimen eskubideak bermatzeko (alegia, berriro ez dela horrelakorik gertatuko bermatzeko) eta, bestetik, espetxe- eta gizarteratze-politikarako.

Berariazko testuinguru horretan gaude. Eta, egoera horretan, hedadura estrategikoa duen galdera hau egin dezakegu: Euskadiren historiaren une erabakigarri honetan, biktimei buruzko politikak eta gizarteratze politikak ikuspegiaren talka izan behar dute ala elkartzea eta bizikidetzaren ardatz hartuta kudea daitezke?

Txosten honetan, Eusko Jaurlaritzaren xede hau azaltzeko ahalegina dago: espetxe-politika eta gizarteratzearen bizikidetzaren politika izan dadila gizarteratzearen eta elkartzearen politikak biktimei erantzuten. Esparru horretan, justizia leheneratzaileak funtsezko eginkizuna du.

2. Aurrekariak

2013ko azaroaren 26an, Eusko Jaurlaritzak onetsi egin zuen “2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Plana. Gizartearen elkartzea helburu”. Planak biltzen dituen 18 ekimenen artean, espetxe-politikaren eta gizarteratzearen arloan Hitzeman programa jasota dago. Programa hori presoak gizarteratzeko lege-prozesuak bideratzeko da.

2014ko urriaren 1ean, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak “Hitzeman” dokumentua aurkeztu zuen, eta bost hilabeteko epea jarri zuen ekarpenak eta dokumentua hobetzeko iradokizunak biltzeko. Prozesu horren ondorio nagusia hau izan zen: Hitzeman programa erabat hedatu aurretik, esperientzia pilotuaren fasea bete behar zen.

2015eko martxoan hasita, lan pilotua egin da bi arlotan. Alde batetik, juristek eta adituek osatutako talde bat lanean aritu da, presoekin eta preso ohiekin harremanetan, gizarteratze-prozesuaren jarraipena egiteko protokolo bat sortzeko. Bestetik, Eusko Jaurlaritzaren barruan, sailarteko mahai batek espetxealdien osteko gizarteratze-prozesuetan laguntzeko modua aztertu du, kasu praktikoak oinarri hartuta.

3. Lan-hipotesia

Aurrekari horiei erreparatuta, eta euskal gizartearentzat gai horrek duen garrantzia kontuan izanda, lan-hipotesi hau bere egin du Eusko Jaurlaritzak: Euskadin espetxe- eta gizarteratze-politika sustatzeko, Konstituzio Legearen arabera eta zer une historikotan aplikatuko den aintzat hartuta, arautuko duen dekretu baten arauzko estaldura behar du politika horrek.

Arau horrek ezarri beharko ditu Eusko Jaurlaritzak presoak gizarteratzeko arloan egin ahal izango dituen jarduerak. Legealdi honen amaieran, proiektu hori utzi du prest Eusko Jaurlaritzak hurrengo legealdian zabaltzeko, zabaldu behar bada.

Arau horrek bi arlo aintzat hartu behar ditu. Alde batetik, gizarteratzearen arloa, zeina preso oraindik espetxean dagoenean hasi behar baita eta balio hauekiko konpromisoa sustatu behar baitu: giza eskubideak, bakea, bizikidetzaren, aniztasuna eta printzipio demokratikoak. Bestetik, birgizarteratzearen arloa, zeina presoak espetxetik irteten hasten denean hedatzen baita eta espetxealdiaren ostean birsozializatzeko laguntzei erreparatu behar baitie.

4. Definizioak

Balizko arau-proiektu horri begira, bi kontzeptu bereizten dira, elkarren osagarri diren bi jardura mota hauek definitzen dituztenak: *gizarteratzea eta birgizarteratzea*.

-Gizarteratzeko proiektua. Lege-prozesu batzuk bultzatzean datza; horrenbestez, terrorismo-delituengatik kondenatutako pertsonak aukera izango du, egindako delitutik urruntze kritikoa egiaztatuz, biktimei egindako kaltea aitortuz eta bakearen eta bizikidetzaren aldeko konpromisoaren bitartez, birsozializatzeko prozesuan aurrera egiteko.

-Birgizarteratzeko programa. Espetxealdiaren ostean laguntzeko prozesuak sustatzean datza, presoek espetxetik irteteko prozesuan bizitza sozialera ongi egokitze izan ditzaketen behar materialak dagokienez.

5. Oharrak

Txosten honek eta hemen azaltzen den arau-proiektuak bi alderdi dituzte: alde batetik, gizarteratzeko bidean erakundeek laguntzea; eta, bestetik, espetxealdiaren ostean birgizarteratzeko laguntza ematea. Horrek guztiak lotura zuzena du, lotura bakarra ez bada ere, Euskadiren kasuan terrorismo-delituengatik kondenatutako hainbat pertsona espetxean egotearekin.

Balizko dekretu-proiektu horren bidez, gizarteratzeko bidean erakundeek lagunduko dute berariaz terrorismo-delituengatik espetxean egon diren pertsonen kasuan. Izan ere, une honetan legediak berak, salbuespen gisa, berariazko betekizunak ezartzen dizkie delitu horiengatik kondenatutako pertsonari.

Arau horretan jasotako espetxealdi ostean birgizarteratzeko laguntza oro, dena dela, beste edonolako delituengatik kondenatutako pertsonari ere aplikatuko zaizkie, baldin eta betekizun baliokideak betetzen badira.

6. Abiapuntuak

Hiru abiapuntuak definitzen dute Eusko Jaurlaritzak *nondik* planteatzen duen presoen gizarteratzea eta birgizarteratzea bideratzeko tresna izango den araua bultzatzeko eta onesteko aukera. Hiru ikuspegi dira. Lehenengoa bigarren aukeraren etikarekin lotuta dago, bigarrena bizikidetzaren balio nagusiarekin, eta hirugarrena justizia leheneratzailearekin.

6.1. Presoen ikuspegia: bigarren aukeraren etika

Bigarren aukeraren etika da arau-proiektu horren sustatzeko lehen abiapuntua. Abiapuntu horrek aukera ematen du gizarteratzearen gaiari presoen ikuspegitik heltzeko.

Paradoxikoa bada ere, sistema demokratikoa eta legedia giza izaerarekiko mesfidantzaren printzipioan oinarritzen dira. Legeen eduki gehientsuenak eratu dira portaera negatiboenak kontuan hartuta eta jarduera horiek mugatzeko. Horiek horrela, giza izaeraren alde onenari, autokritika egiteko eta zuzentzeko gaitasunari, itxaropen-tarte bat ematen dion lege-instituzio bakanetako bat da gizarteratzea. Bigarren aukeraren etikan oinarritzen da.

Gizarteratzea printzipio konstituzionala da, delituak egin dituenari bigarren aukera ematen diona. Biziarako espetxealdia eta heriotza-zigorra aukera horren aurkakoak dira. Gizarteratzea sustatzeko politika publikoak antolatzeak esanahi etiko, politiko eta pro-sozial sakona du. Gizarte gizatiarragoak, integratuagoak, demokratikoagoak eta desberdintasun gutxiago dituztenak eratzeko lagungarriak dira.

Gizarteratzeko politikak oso garrantzitsuak dira. Politikak bere zeregin prestuenari erantzutea bideratzen duen eginkizunaren zati dira. Zio horiek direla-eta, Eusko Jaurlaritzak beste espetxe-politika baten aldeko konpromisoa hartu du bere gain, eta gizarteratzeko legezko bideak sustatzen ditu, horretarako ahalmena duen neurrian.

6.2. Gizartearen ikuspegia: bizikidetzaren balioa

Demokrazian, jarduera politiko guztien azken xedea da balio nagusi hau lortzea: justiziaz adostutako bizikidetzak. Bizikidetzak adostua da proiektu demokratikoen printzipioa, helburua eta balioa. Espetxe-eta gizarteratze-politika bizikidetzaren aldeko politika pro-sozial baten osagai izan behar da, are eta nabarmenago indarkeria eta zatiketa iraunkorrean bizi izan den gizarte baten kasuan.

Esparru horretan kokatu behar da presoen gizarteratzeari eta birgizarteratzeari buruzko arau-proiektu hori. Bizikidetzaren balioak gai horri gizartearen ikuspegitik heltzea bideratzen du.

Legezketasuna eta ahalik eta adostasun handiena hartu behar dira oinarri, bizikidetzak-politika ere izango den espetxe-politikaren euskarri izan daitezten. Oinarri horren gainean, erakundeek, alderdi politikoez, gizarte zibil antolatuek eta herritarrek lagundu behar dute politika, zigorrak eta espetxealdiak normalizatzeko prozesuan, baita presoak birsozializatzeko prozesuan ere.

Eusko Jaurlaritzaren asmoa da, legeetan eta Konstituzioan jasotako printzipioak helburu hartuta, printzipio horiek garatuko dituen espetxe- eta gizarteratze-politika sustatzea. Hau da, zigorraren eginkizun berrezitzailea eta birsozializatzailea xede hartzea. Helburua da euskal gizartearen normalizazio sozial eta politikoa sendotzea. Horretarako, espetxe- eta gizarteratze-politikak bizikidetzarako eta etorkizuna eraikitzeko politika izan behar du giza eskubideak, printzipio demokratikoak eta aniztasuna errespetatzea oinarri hartuta.

6.3. Biktimen ikuspegia: justizia leheneratzailearen esparrua

Hirugarren abiapuntuaren ardatz nagusia biktimen ikuspegia da. Espetxe-politika eta biktimen eskubideak ezin dira aurkakotasunean oinarrituta kudeatu, elkartzean oinarrituta baizik. Bizikidetzak izan behar du elkargune. Eta gainditu ezin den muga zigorgabetasuna da. Ikuspegi horretatik, justizia leheneratzaileak justizia ulertzeko era berritzailea eta biktimen eskubideei erantzuteko beste modu bat dakartza.

Justizia leheneratzailea da delitu batek eragindako kalteak ahal den neurrian konpontzeko esan edo egin daitezkeen hitzak edo ekintzak identifikatzeko aukera ematen duen prozesua. Horretarako, kalteak eragin dituztenen eta kaltetuen arteko harremana edo interakzioa sortzen da. Testuinguru horretan, kalteak sortu duen kaltea konpontzeko zer egin behar duen erabakitze prozesuan parte hartzeko aukera dute biktimek.

Euskadiko kasuan biktimei entzutearen esperientziak erreparazioaren printzipio orokor bat identifikatzeko aukera ematen digu. Biktimei eragiten zaien (konpontzeko moduko) kalte nagusia da erasoari balio handiagoa ematea eraildako edo erasotako pertsonaren biziari baino. Zentzu honetan, biktimak justizia konpontzailearen edo leheneratzailearen bidez lor dezakeen ekintza nagusia da mina eragin zionari entzutea egindakoak ez zuela justifikaziorik, ezta zentzurik ere biktima bakoitzaren biziak baino balio handiagoa zuenik.

Eragindako kaltearen injustizia aitortzea biktimen egoera leheneratzen eta konpontzen laguntzeko modu bat da. Autokritika hori justizia leheneratzailearen prozesuaren abiapuntu nagusia da. Orobat, egindako delituarekiko urruntze kritiko hori gizarteratzea egoki beteko dela iragartzen duen adierazle hoberena da. Horrek guztiak aukera ematen du Euskadiko kasu zehatzaren esparruan justizia leheneratzailea edo konpontzailea garatzeko eta aplikatzeko. Ikuspegi horrek funtsezko eginkizuna du Eusko Jaurlaritzaren bizikidetz-politiketan eta gizarteratzea sustatzeko politikan.

Bigarren zatia. Eusko Jaurlaritzaren gizarteratze-arloko bizikidetza-politikak erregulatzeko arauaren oinarriak

Txosten honek Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak birgizarteratze-arloan eta Hitzeman programaren barruan bultzatutako lanen eta aurrekarien ostean ateratako ondorioak laburbiltzen ditu. Puntu honetatik aurrera ageri diren edukiak har daitezke Eusko Jaurlaritzaren bizikidetzarako politika publikoak gizarteratzearen eta birgizarteratzearen arloan arautuko dituen dekretu-proiektuaren oinarritzat.

1. Zioen azalpenerako proposamenak

Azken bi hamarkadetan, ETAko presoen kasuan, espetxe-politika terrorismoaren aurkako borrokarako tresna gisa erabili da. Helburu hori oinarri hartuta, hainbat neurri justifikatu dira, hala nola presoak urruntzea eta sakabanatzea, eta 2003an zenbait lege organiko onartu ziren, zigorraldiak luzatzeko, bi-ziarteko espetxealditik oso gertu dauden maximoetara iritsi arte. Horiek guztiek berariaz baldintzatzen dituzte espetxealdiak betetzeko modua eta terrorismo-delituengatik kondenatutako pertsonak gizarteratzeko prozesuak.

2011ko urritik hasita, terrorismoaren mehatxua desagertu egin da Euskadiko politikatik. Espetxe-politika hainbat urtean terrorismoaren aurkako borrokarako tresna izan bada, bidezkoa dirudi, terrorismoa amaitu den honetan, bizikidetzarako politikaren osagaitzat hartzea. Izan ere, aldaketa historikoa gertatu izanaz gainera, Konstituzioan ezarrita dago zigorraren eginkizuna berreziketa eta birsozializazioa bultzatzea dela. Hau da, bizikidetzarako eta birgizarteratzeko proiektu pro-soziala.

Alabaina, 2011n terrorismoa amaitu ostean, Estatuko Administrazioak ez du planteamendu berririk egin espetxe-politikaren arloan. Eusko Jaurlaritzak ildo horretan egin dituen eskaera eta proposamenak gorabehera, ETAREN jarduerak jarraipena izango balu bezala bete da espetxe-politika urte horietan.

Euskal gizartearen barne-errealitatearen ikuspegitik, espetxe-politikak eta gizarteratze-politiken sustapenak garrantzi handiko eragina dute bizikidetzaren esparruan. Izan ere, beste zio batzuen artean, prozesu horiek iraganaren berrikuspen kritikoa oinarritutako ariketa soziopolitikoari heltzea eskatzen dute, eta jarduera hori funtsezkoa da memoria eta bizikidetzara eraikitze, baita biktimen erreparazio moralak bideratzeko ere.

Zio horiek aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzak eta euskal erakundeek behin eta berriro adierazi dute beste espetxe- eta gizarteratze-politika bat sustatzeko asmoa, banakotzearen, gizatasunaren eta gizarteratzearen legeko printzipioak oinarri hartuta.

Gernikako Estatutuak espetxeen gaineko eskumena Eusko Jaurlaritzari transferituko zaiola adierazten du, 10.14 eta 12.1 zerbakietan ezarrita dagoenari jarraituz. Lege organiko hori onartu ostean, 37 urte igaro dira, eta eskumen horiek oraindik ez dira eskualdatu. Hala eta guztiz ere, esparru horretan Eusko Jaurlaritzak baditu zenbait ahalmen, mugatuak badira ere, eta ahalmen horiek jarduteko aukera ematen diote.

Zehazki, eskumen horiek eskualdatzen ez diren bitartean, Eusko Jaurlaritzak susta ditzake, presoarekin adostuta, gizarteratzea helburu duten zenbait jarduera, hala nola birgizarteratzeko laguntza ematea.

Gizarteratzearen ikuspegitik, arau horrek zehatz-mehatz azalduko du presoak Eusko Jaurlaritzaren laguntza egin ahal izango duen prozesua, batzorde aditu bat gizarteratzea iragartzen duen aldeko txostena egiteko moduan egon arte. Txosten horretan oinarrituta, irizpen ofizial bat helaraziko dio Eusko Jaurlaritzak espetxeko tratamendu-batzarrari, bai eta espetxe-zaintzako epaitegiari ere. Prozesu horretan borondatez parte hartzea erabakitzen duen presoak txosten hori erabili ahal izango du, espetxe-gradutan aurrera egiteko eskaerekin eta gizarteratzeko beste neurri batzuk hartzeko eskaerekin batera aurkezteko, aditu-froga gisa.

Birgizarteratzearen ikuspegitik, arauak definituko ditu arlo hauetan emango diren laguntza-baliabideak: etxebizitza, prestakuntza eta lanerako trebakuntza, enplegurako orientabidea eta laguntza, osasuna eta gizarte-laguntza. Halaber, baztertuta geratzeko arriskuan dauden beste kolektibo batzuek dituzten aukera berberak izango dituzte espetxetik ateratzean premia-egoera objektiboan dauden pertsonen.

Arau-proiektu honen helburuak lau kontzeptu hauetan laburbiltzen dira: legezketasuna, justizia leheneratzailea, biktimak eta bizikidetzak. Lehenik, Eusko Jaurlaritzaren helburua da, legeetan eta Konstituzioan jasotako printzipioak helburu hartuta, printzipio horiek garatuko dituen espetxe- eta gizarteratze-politika sustatzea, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearekin bat datorrena. Hau da, zigorraren eginkizun berrezitzailea eta birsozializatzailea xede hartzea, bizikidetzarako politika pro-sozial baten osagai gisa.

Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen espetxe- eta gizarteratze-politika justizia leheneratzailearen Europako joeren esparruan kokatzea da hizpide dugun arau-proiektuaren bigarren helburua. Europar Batasunaren 2012/29/EB Zuzentarauak, delituen biktimen eskubide, laguntza eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituenak, biktimaren eta urratzailearen arteko interakzioak berariaz aintzat hartzen ditu, justizia leheneratzailearen kontzeptuaren barruan, eragindako kaltea erreparatzeari begira. Delituaren Biktimaren Estatutuak barne-zuzenbidean sartzen du zuzentarau hori, eta 2015eko azaroaz geroztik nahitaez bete behar da. Zehazki, helburua da Europar Batasunaren zuzentarau horrek ezarritakoa garatzea eta terrorismo -delituengatik kondenatutako presoek aplikatzea, gizarteratze-prozesuetan baldin badaude eta borondatez onartzen badute.

Aurrekoarekin lotuta, hirugarren helburua da biktimen erreparazioan laguntzea bizikidetzarako politika publikoen bidez. Politika horiek iraganean gertatutako edonolako terrorismo, indarkeria edo giza eskubideen urraketaren deslegitimazioa egiaztatu beharko dute, eta biktimek pairatutako kaltea eta injustizia berariaz aitortu beharko dute.

Amaitzeko, hizpide dugun proiektuaren azken helburua da euskal gizartearen normalizazio sozial eta politikoa sendotzea. Horretarako, espetxe- eta gizarteratze-politikak bizikidetzarako eta etorkizuna eraikitzeko politika izan behar du, aniztasuna, giza eskubideak eta printzipio demokratikoak errespetatzea oinarri hartuta.

Balitzko arau-proiektu horrek, une honetan, lau kapitulu handi ditu. Lehenik, arauaren xedea eta aplikazio-eremua osatzen duten xedapen orokorrak ageri dira.

Bigarren kapituluak arauan xedatutakoaren oinarrian dauden printzipioak jasotzen ditu. Labur esanda, banakotzearen, gizatasunaren eta gizarteratzearen printzipioak azaltzen ditu.

Hirugarren kapituluak gizarteratzeko proiektuaren garapena arautzen du, eta honako hauek zehazten ditu: edukia; sartzeko, garatzeko eta burutzeko prozedura; kudeaketaz arduratuko den batzordearen izaera eta funtzionamendua.

Laugarren kapituluak espetxealdiaren osteko birgizarteratzeko laguntza-programa garatzen du. Ikuspegi horretatik edukia eta laguntza zer arlotan ematen den zehazten ditu eta baita laguntza-programan sartzeko prozedura eta garapena ere.

2. Proposatutako artikulua

2.1. Xedapen orokorrak

2.1.1. Xedea

Arau-proiektu honen xedea da Eusko Jaurlaritzak garatuko dituen jardura hauek arautzea: berriaz terrorismo-delituengatik kondenatutako presoak gizarteratzeko banakako prozesu legalak sustatzea eta laguntzea eta presoak, oro har, birsozializatzeko prozesuetarako laguntza ematea.

2.1.2. Aplikazio-eremua

Edozein preso, preso ohi edo espetxetik irteteko prozesuan dagoen pertsona oro arau honetan xedatutakoari heltzeko moduan egongo da, baldintza hauek guztiak betetzen baditu.

-Gizarteratzeko prozesurako:

— Terrorismo-delituengatik kondenatutako pertsona izan behar du.

-Gizarteratzeko zein espetxealdiaren ostean birgizarteratzeko prozesuetarako:

— Presoak bost urtetik gorako kondena beteko duen edo bete duen pertsona izan behar du.

— Presoak Euskadin jaiotakoa izan behar du, edo espetxean sartu aurretik autonomia-erkidego honetan bi urtez, gutxienez, bizi izan dena.

- Arau honetan aitortutako laguntzako prestazioak aplikatuko zaizkie espetxetik irteteko unean askatasunean bizitza berregiteko baliabide nahikoak ez dituztela egiaztatzen duten presoak.
- Espetxetik ateratzen den pertsonak delitu-jardueretan parte hartuz gero arau honetan aurreikusitako edozein prestaziori ezezkua emango zaio edo baliogabetuko da.

2.2. Jarduteko printzipioak

- Askatasunaz gabetzeko zigorraren helburu nagusia berreziketa eta birsozializazioa bultzatzea da, Konstituzioaren 25.2 zenbakiak adierazitakoari jarraituz. Helburu hori garatze aldera, hiru printzipio hauek aintzat hartzen dira: banakotzea, gizatasuna eta gizarteratzea. Hiru printzipio horietan oinarritzen da arau-proiektu hau ere.

-Arau honen bidez erregulatzen diren espetxe-arloko Eusko Jaurlaritzaren bizikidetzarako politika publikoak banakotzearen printzipioan oinarrituko dira. Printzipio horren garapena lau espetxe-gradutan sailkatutako tratamenduan oinarritzen da. "Banakotze zientifikoa" ardatz hartzen duen printzipioari jarraituz, espetxe tratamendua pertsonalizatu egin behar da. Espetxe-graduetan aurrera egiteko eta gizarteratzeko prozesuetarako aldeko balioespina preso bakoitzak egindako ibilbidearen azterketa pertsonalizatuan oinarrituko da.

-Arau honen bidez erregulatzen diren espetxe-arloko Eusko Jaurlaritzaren bizikidetzarako politika publikoak gizatasunaren printzipioan oinarrituko dira. Askatasunaz gabetzen duten zigor eta neurriak bete-itzaren oinarria da presoak eskubideen subjektutzat hartzea; ez dago gizarteratze bultzatzeaz; aitzitik, haren zati da. Horren ondorioz, espetxeko bizitzak askatasunean egiten den bizitza hartu behar du erreferentziatuz, espetxean egoteak dakartzan ondorio kaltegarriak ahalik eta gehien murriztu behar ditu, gizar-

-loturen alde egin behar du, erakunde publiko eta pribatuen lankidetzeta eta parte-hartzea sustatu behar ditu eta prestazio publikoak eskuratzeko aukerak bultzatu (Espetxe Erregelamenduaren 3.4 zenbakia).

-Arau honen bidez erregulatzen diren espetxe-arloko Eusko Jaurlaritzaren bizikidetzarako politika publikoak gizarteratze-printzipioan eta bigarren aukeraren etikan oinarrituko dira. Gizarteratzea printzipio konstituzionala da, delituak egin dituenari birgizarteratzeko beste aukera bat ematen diona. Bigarren aukeraren etika zentzuzkoa da honako hau aintzat hartuz gero: baliteke pertsona bat, beste egoera batean, lehengo jokaerak errepikatzen ez kondentatuta egotea. Helburua da espetxean dagoen pertsonak zigor-legea errespetatuz bizitzeko asmoa eta gaitasuna izatea.

2.3. Gizarteratze-prozesuetan laguntzeko proiektua

• *Berariaz terrorismo-delituengatik kondenatutako presoak gizarteratzeko prozesuak sustatzeko eta aholkua, euskarria eta laguntza emateko proiektua* (aurrerantzean, proiektua) garatuko du Eusko Jaurlaritzak, arau honek xedatutakoaren arabera.

2.3.1. Proiektuaren edukia

• Proiektuaren jardura-eremua espetxe-tratamenduaren graduen araberako sailkapenaren esparruan eta sailkapen horretan lehenengo gradutik baldintzapeko askatasunera arte aurrera egiteko aukeren arloan dago. Progresio horri lotuta dago gizarteratzearen legezko prozesua, ordenamendu juridikoaren arabera.

• Gizarteratzea sustatzeko proiektu honen helburua da terrorismo-delituengatik kondenatuta dauden eta zigor-legea errespetatuz bizitzeko asmoa eta gaitasuna egiaztatzeak aukera emango dien ibilbidea egin nahi duten presoek aholkua, euskarria eta laguntza ematea.

• Egiaztapen hori ibilbidearen amaieran adieraziko da bakearen eta bizikidetzaren aldeko konpromiso hirukoitzaren bidez, iraganari, orainari eta etorkizunari lotuta. Preso bakoitzak bere hitzen eta gaitasunen bidez adierazi ahal izango du konpromiso hori, betiere askatasunez eta borondatez:

-Etorkizunari begira, indarkeriari uko egiteko eta bide baketsu eta demokratikoei heltzeko konpromisoa.

-Orainari begira, gizarte pluralean elkarrekin bizitzeko konpromisoa, eta biktimen erreparazioarako borondatea, beste pertsonan batzuei kalteak sortutako delitua izanez gero.

-Iraganari begira, egindako delitutik urruntze kritikoa edo autokritikoa adieraztea, batez ere giza eskubideen urraketa eragin bazuen.

• Proiektu honetan parte hartu nahi duten presoek euskarria eta laguntza emateko prozesua gizarteratze-prozesuetarako aholku-batzorde baten (aurrerantzean, Batzordea) jardura dinamizatzailearen bidez egingo da. Batzordearen osaketa 2.3.5. puntuan zehazten da.

2.3.2. Proiektuan sartzeko prozedura

• Arau hau onartu ostean, terrorismo-delituengatik kondenatuta dauden eta arauaren edukiaren eragina izan dezaketen preso guztiei indarrean jarriko dela jakinarazi beharko die Eusko Jaurlaritzak. Informazio horri bi idazki-eredu erantsi beharko zaizkio: proiektuari buruzko informazioa eskatzekoa eta proiektuan sartzeko eskabidea.

• Terrorismo-delituengatik kondenatuta dagoen edozein presok, arau honen eraginpean egon badaiteke, batzordera edo eskumena duen sailburuordetzara edo idazkaritza nagusira jo dezake, edukiari buruzko informazioa eskatzeko. Batzordeak edo Eusko Jaurlaritzak eskaera horri erantzun beharko diote, informazioa bidaliz.

Proiektu honetan parte hartzeko interesa duten presoak bertan sartuko dira batzordeari helarazitako parte hartzeko idatzizko eskaeraren bidez. Eskaera horrek borondatezkoa izan behar du, norberak adierazi behar du, eta proiektuaren eduki eta inplikazioen jakitun izan behar du eskatzaileak.

- Proiektuan sartzeko eskabidearekin batera, euskal gizartean bizikidetzan laguntzeko borondatearen adierazpena aurkeztu beharko da, bai eta eskaera egiten duen presoaren espetxe-egoerari buruzko oinarritzko informazioa eta proiektuan sartzeko zioak ere.
- Batzordeak eskabide hori onartzeak proiektuan ofizialki sartzeari dakar, bai eta eskatzaile bakoitzaren araberako pertsonalizatuta abian jartzea ere.

2.3.3. Proiektua garatzea

- Proiektua abian jarri ostean, batzordea presoarekin harremanetan jarriko da, idatziz edo espetxean elkarriketa bat antolatuta, beharrezkotzat jotzen den guztietan. Batzordeak kasu bakoitzerako arduraduna izendatuko du batzordekideen artean.
- Hasierako harremanen helburua da bakean eta bizikidetzan laguntzeko ibilbide pertsonal bat adostea presoarekin. Terrorismo-delituengatik kondenatutako presoek ibilbide horiek onartzeak bideratuko du, edo, hala badagokio, arinduko du birgizarteratze-prozesuen aldeko txostena.
- Batzordeak eta proiektuan parte hartzen duen presoak bakean eta bizikidetzan laguntzeko ibilbide pertsonalizatua adostu ahal izango dute. Ibilbide hori diseinatu ahal izango da baliabide propioekin edo askotariko erakunde kolaboratzaileekin adostutako lankidetzaren bidez:
 - Konpromiso akademikoaren ibilbidea, unibertsitateekin eta beste prestakuntza-erakunde eta erakunde akademiko batzuekin lankidetzan.
 - Elkartze-konpromisoaren ibilbidea, gizarte zibileko erakundeekin lankidetzan.
 - Erakundeekiko konpromisoaren ibilbidea, udalekin eta beste erakunde publiko batzuekin edota hezikuntza-erakundeekin.
 - Konpromiso solidarioaren ibilbidea, solidaritatezko proiektu jakin batzuekin lankidetzan.
 - Konpromiso berezien beste ibilbide batzuk, preso bakoitzaren berezitasunen arabera egokituak.
- Ibilbide horietako bakoitzean presoak egingo duen ekarpenaren edukia diseinatuko da espetxeko bizitzak ezartzen dituen mugak eta espetxe-egoera bakoitza aintzat hartuta. Egoera murriztaileentzat ibilbide horiek gutun bidezko harremanen bitartez eta presoaren, erakunde kolaboratzailearen eta batzordearen arteko bisiten bitartez egin beharko dira.
- Ibilbideak bateratu ahal izango dira beste jarduerak batzuetan borondatez parte hartzeko ekintza gehigarri eta osagarri batzuekin: mintegiak, tailerrak, biktimekin egindako erreparazio-bilerak, berariazko prestakuntzak eta hausnarketa kolektiboak.
- Egindako ibilbidearen amaieran, presoak ateratu dituen ondorioak aurkeztu beharko ditu bere gaitasunen arabera, idatziz edo ahoz, harremanetarako izendatutako batzordekidearekin egingo duen elkarriketan. Ondorio horiek amaierako proiektutzat hartuko dira, eta gizartearentzat konstruktiboa izango den ekarpena edo hausnarketa eratu beharko dute.
- Ibilbide horien garapena erraztu eta indartu egingo da eskumenak dituzten espetxe-instantziak proiektuaren garapenean lankidetzan jarduten badute. Horregatik, aipatutako gizarteratze-ibilbideak garatze aldera, lankidetzaren formulak proposatu ahal izango ditu Eusko Jaurlaritzak, bai espetxe-erakundeekin, bai garapenean lagunduko duten erakunde kolaboratzaileekin.
- Eusko Jaurlaritzak komunikazio-bideak ere ezarriko ditu, gizarteratzea helburu duten baliabide horien hedapenari buruzko informazioa epaitegietara eta auzitegietara helarazteko, birsozializazio-prozesuak legez xedatutako baldintzetan bideratzeko, hala badagokio.

2.3.4. Proiektua burutzea

- Ezarritako ibilbidea amaitzean, batzordeak azken irizpena eman beharko du. Irizpen hori presoak birgizarteratzeko prozesuaren aldekoa edo aurkakoa izan daiteke. Honako alderdi hauek aztertu beharko ditu irizpenak: garatu den ibilbidea, egin diren jarduera gehigarriak eta konklusioak.
- Gizarteratzearen aldeko irizpenak egiaztatu behar du, funtsean, presoak jarraitu duela aurrez definitutako ibilbidea, zigor-legea errespetatuz bizitzeko asmoa eta gaitasuna duela, bakearekin eta bizikidetzarekin duen konpromisoak giza eskubideen urraketaren aurkako arrazoibidea dakarrelako, iraganari, orinari eta etorkizunari begira, eta biktimei eragindako kaltearen aitortzearen adierazpen kritikoa adierazi behar du.
- Batzordeak, irizpen hori prestatzeko prozesuan, pronostiko positiboaren aldeko balioztat hartuko ditu pre-soak garatutako balizko jarduera gehigarri hauek:
 - Giza eskubideekin, bizikidetzarekin edo memoriarekin lotutako mintegietan, tailerretan edo berariazko prestakuntzetan parte hartu izana gizarteari ekarpen konstruktiboa egiteko asmoaren adierazpen gisa interpretatu behar da.
 - Biktimekin egindako erreparazio-bileretan parte hartzea, Europar Batasunaren 2012/29/EB Zuzentarauan eta Delituaren Biktimaren Estatutuan xedatutakoaren esparruan, biktimen erreparaziorako konpromisoaren adierazpen gisa interpretatu beharko da.
 - Indarkeria erabili zuten erakundeak armagabetzeko, desagertzeko edo desagertzeko prozesuetan laguntza pertsonala ematea banda armatu, erakunde edo talde terroristak horrek delitu gehiago egitea eragotze aldera agintariekin hartutako lankidetzak-konpromisoaren adierazpen gisa interpretatu beharko da.
 - Testigantza pertsonalak ematea, bakearen eta bizikidetzaren balioei buruzko hausnarketa kolektibo bidez egindako idazkietan parte hartzea eta giza eskubideen urraketari eta urraketa horien ondorioei buruzko hausnarketa kritikoa edo autokritikoa egitea delituzko jardueren gaitzespenaren eta indarkeria uztearen adierazpen gisa interpretatu beharko dira.
 - Preso bakoitzaren ahalmenen arabera, biktimen aurrean duen erantzukizun zibilari erantzuteko jarraera, bai eta beste edozein erreparazio-jarduera ere, biktimei eragindako kaltea berariaz aitortzeko borondatearen adierazpen gisa interpretatu behar da.
- Azken irizpena eman ostean, irizpen hori aldekoa izanez gero, Eusko Jaurlaritzak egiaztapen hori baliozkotuko du eta espetxe-erloto instantzia eskudunei igorriko die. Presoak txosten hori aurkeztu ahal izango du, espetxe-graduetan aurrera egiteko eskaerarekin edo gizarteratzeko beste edozein neurri hartzeko eskaerarekin batera, aditu-froga gisa.

2.3.5. Gizarteratze-prozesuetarako aholku-batzordea

- Gizarteratze-prozesuetarako aholku-batzorde bat sortuko da, eta haren ardura izango da presoekin gizarteratze-ibilbideak adostea eta diseinatzea, bai eta kasu bakoitzean garatutako prozesua dinamizatzea, laguntzea eta berariaz ebaluatzea, arau honetan xedatutakoaren arabera, gizarteratze-prozesuaren aldeko edo aurkako azken irizpenaren bidez.
- Giza eskubideen arloan eskumena duen sailburuordetzak edo idazkaritza nagusiak jarri beharko ditu egin-kizunak garatzeko beharrezko bitarteko ekonomiko eta materialak eta giza baliabideak.
- Batzordekideek legezotasunaren, independentziaren, konfidentzialtasunaren, lankidetzaren eta eragin-kortasunaren printzipioen arabera jokatu dute.
- Batzordekideak ibilbide plurala, diziplina anitzekoa eta aitortua duten ospe handiko pertsonak izango dira. Zehatz-mehatz honako hauek osatuko dute batzordea:
 - a) Arau honen bidez erregulatzen den arloko hiru aditu, giza eskubideen arloko eskumena duen sailburuordetzak edo idazkaritza nagusiak izendatuak. Hiru pertsona horietako bat batzordeburu ere izango da.

- b) Arau honen bidez erregulatzen den arloko hiru aditu, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeak izendatuak.
- c) Arau honen bidez erregulatzen den arloko hiru aditu, Legelarien Euskal Kontseiluak izendatuak.
- d) Batzordeko idazkari teknikoa Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko langile bat izango da. Hitz egiteko eskubidea izango du, baina ezingo du botorik eman. Zuzenbidean lizentziaduna izan beharko du, eta giza eskubideen arloko sailburuordetzak edo idazkaritza nagusiak izendatuko du.

2.4. Espetxealdiaren osteko birgizarteratze-prozesuetan laguntzeko programa

- Eusko Jaurlaritzak *espetxealdiaren osteko birgizarteratze-prozesuetan laguntzeko programa* bat garatuko du (aurrerantzean, programa), arau honetan xedatutakoaren arabera.

2.4.1. Programaren edukia

- Programa honek espetxealdiaren osteko gizarte-laguntzaren esparruan izango du jarduera-eremua, espetxetik irteten diren presoek birgizarteratzea ahalbidetzeko baldintza materialak sustatzea xede hartuta.
- Programa honen kudeaketa birsozializazio-prozesuetan laguntzeko sailarteko zerbitzu baten jardueraren bitartez egingo da (espetxealdiaren osteko laguntza-zerbitzua). Sailarteko zerbitzu horretan parte hartuko dute arau honen bidez erregulatzen den arloan eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako sailletako ordezkariak.
- Birgizarteratzeko behar diren baliabide materialei erreparatuta berariaz egoera ahulean daudenez, programa honek espetxetik ateratako pertsonen eskainiko dizkien aukerak izango dira EAEko administrazio publikoaren sustapen- eta laguntza-ekintzetan kolektibo ahulenetako pertsonen edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenen duten tratamenduaren parekoak, aukera-berdintasunaren arabera.

2.4.2. Laguntza emateko arloak

- Espetxealdiaren ostean laguntza emateko programa osatuko duten lehentasunezko arloak honako hauek izango dira:

-Eskura dauden baliabideei buruzko informazioa eta aholkua emateko leihatila bakarra

- Zigorrek Kudeatzeko Euskal Zerbitzuak (Herri Administrazio eta Justizia Saila) espetxetik atera diren edo laster irtengo diren pertsonen informazioa edo aholkua eskuratzeko egiten dituzten eskaerak jasotzeko leihatila bakarra sortuko du. Leihatila horretan laguntzeko ardura programa honi buruzko prestakuntza jaso duten saileko langileek izango dute.
- Leihatila horrek telefono-zenbaki bat, helbide elektronikoa bat eta posta-helbide bat izan behar du. Halaber, bulego horrek webgune bat izango du, bai eta preso batek espetxetik ateratzen den anek eskura dituen laguntza-prestazio guztiei buruzko informazio guztia biltzen duen liburuxka bat ere.

-Diru-sarrerak bermatzeko errenta

- Presoen bidaliko zaien laguntza-prestazio eskuragarri buruzko informazioa ematen duen liburuxkari informazio gehigarria erantsiko dio Lanbideek, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko betekizunei buruz, bai eta Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskumenekoak diren beste prestazio batzuk eskuratzeko bete behar direnei buruz ere. Berariazko ohartarazpenaren bidez jakinaraziko du behar bezala erroldatuta egotearen garrantzia, bai eta diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzeko aukera ere, preso hiruaren graduan sailkatu ondoren.

-Etxebizitza- eta ostatu-baliabideak

- Informazioa ematen duen liburuxkari informazio gehigarria erantsiko dio Etxebizitza Sailburuordetzak, Eusko Jaurlaritzako etxebizitzaren arloko zerbitzuek eskaintzen dituzten aukerak eskuratzeko bete behar diren baldintzei buruz. Berariazko ohartarazpenaren bidez jakinaraziko du behar bezala errolatuta egotearen garrantzia.
- Euskaditik kanpo dauden espetxeetan kondena betetzen ari diren presoek kasuan, familiaren egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dagoela egiaztatuz gero, Etxebiden izena emateko berariazko mekanismo bat arautuko du Etxebizitza Sailburuordetzak, alokatzeko etxebizitzaren ohiko eskuratzeko bideratzeko.
- Espetxetik ateratzean oso egoera ahulean edo baztertua geratzeko arriskuan dauden pertsonen kasuan, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzak berariazko prozedurei buruzko informazioa emango die, pareko egoeran dauden beste kolektiboetako pertsonen kasuei erreparatuta.

-Prestakuntzako eta lanbide-orientabideko baliabideak, unibertsitate-ikasketak eta enplegu-sustapena

- Informazioa ematen duen liburuxkari informazio gehigarria erantsiko dio Lanbidek, Euskal Enplegu Zerbitzuak prestakuntzaren eta lanbiderako trebakuntzaren arloan dauden baliabideei buruz. Informazio horrek azpimarratu beharko du hirugarren graduaren sailkatutako presoek zerbitzuan eskura dituztela honako aukera hauek: eskarrietan alta ematea, lanerako orientabide orokorra eta espezializatua, bitartekotza orokorra eta espezializatua, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko aukera.
- Kontratazioa sustatzeko planetarako, espetxealdiaren ostean birgizarteratze-prozesuetan dauden pertsonak bazterketa arrisku-egoera berezian dauden kolektibotzat hartuko dira.
- Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzak espetxean dauden pertsonen artean unibertsitate-ikasketak egitea bultzatuko du, bai gizarteratzeko faktore pro-sozial objektiboa osatzen duten aldetik, eta birgizarteratzeko baldintza egokiak prestatzeko bitarteko direla kontuan hartuta. Horren ondorioz, liburuxka orokorrari erantsiko dio unibertsitate-ikasketak egiteko eskura dituzten aukerei buruzko informazioa, eta ikasketak egiteko laguntzen berariazko mekanismoa arautuko du.
- Justizia Sailburuordetzak, Gizarte Politiketako Sailburuordetzak eta Lanbidek lankidetzahitzarmenak sinatuko dituzte lurralde historiko bakoitzean bigarren eta hirugarren graduaren pre-soak komunitatean sartzea bultzatzeko jardueretan, espetxetik ateratzen direnei lan bat bilatzen laguntzeko eginkizunetan eta enpresekin bitartekotzan diharduten hirugarren sektoreko erakundeekin.

-Osasun-baliabideak baliabide soziosanitarioak

- Liburuxkari informazioa erantsiko dio Osasun Sailburuordetzak, Euskadiko osasun-sistemak Osakidetzaren bidez espetxe-esparruan ematen dituen prestazioei buruz. Zehazki, honako hauek dira: lehen mailako arreta EAEko espetxeetan; arreta espezializatua EAEko espetxeen barruan garatutako berariazko programen bidez, aurrez aurre edo telekontsulta bidez; ospitaleko arreta Osakidetzaren zentroetan, larritasunagatik edo gaixotasun terminalak diagnostikatu ostean ospitaleratu behar izanez gero; eta ospitalizazio psikiatrikoa zentro publiko eta hitzartuetan, beharrezkoa izanez gero.
- Osasun Sailburuordetzak, Gizarte Politiketako Sailburuordetzarekin eta foru-aldundietako eta udal-letako gizarte-ekintzako sailekin batera antolatuko ditu, kasu bakoitzean eta banan-banan, arreta soziosanitarioa taldeka kudeatzeko egituraren barruan egingo diren ibilbide soziosanitarioak, batez ere kasu kronikoak eta beste arazo batzuekin lotuta ageri direnak izanez gero (arazo psikiatrikoak edo adikzioak edo mendekotasunak edo desgaitasunak edo baztertzea).

-Gizarte-baliabideak

—Liburuxka orokorrari informazioa erantsiko dio Gizarte Politiketako Sailburuordetzak, arrisku-egoera berezian dauden kolektiboentzako eskura dauden baliabideei buruz, espetxealdiaren ostean birsozializazio-prozesuetan dauden pertsonak egoera horretan daudela joko baita. Zehazki, baliabide hauek dira: lehen mailako arreta, informazioa, ebaluazioa, diagnostikoa eta orientabidea emateko zerbitzuan; gizarte-heziketan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua, baztertuta dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua; gaueko harrera-zerbitzua; baztertuta geratzeko arriskuan dauden eta bigarren mailako arreta duten pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitza, mendekotasuna, desgaitasuna, bazterketa eta babesik eza ebaluatzeko eta diagnostikatzeko zerbitzua; gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo eguneko zentroa; gizarteratze-premiei erantzuteko gaueko harrera-zentroa; baztertuta eta marjinatuta dauden pertsonentzako egoitza-zentroak.

-Beste baliabide batzuk

—Justizia Sailburuordetzak, oraindik zehaztu gabe dagoen epealdi batean berariazko laguntza juridikoa emango du espetxetik atera ostean, espetxeratuen lege-laguntzaren txandan ematen den antzekoa.

—Programaren barruan aurreikusitako jarduerak garatzeko eskumena duen sailburuordetza edo idazkaritza nagusi bakoitzak presoekin lanean diharduten Hirugarren Sektoreko erakundeekin akordioak antolatu ahal izango ditu, gizarteratzeko eta birgizarteratzeko prozesuak sendotzea etaosatzea helburu hartuta.

2.4.3. Programan sartzeko prozedura eta garapena

- Arau hau onartu ostean, espetxealdiaren osteko laguntza-zerbitzuak arauaren edukiaren eragina izan dezaketen preso guztiei indarrean jarriko dela jakinarazi beharko die. Informazio horri bi idazki-eredu erantsi beharko zaizkio: programari buruzko informazioa eskatzekoa eta programan sartzeko eskabidea.
- Arau honen eragina izan dezaketen preso, preso ohi edo espetxetik ateratzeko prozesuan dagoen pertsona orok espetxealdiaren osteko laguntza-zerbitzura jo dezake, eskura dauden baliabideei buruzko informazioa eta aholkua emateko leihatila bakarraren bidez, arauaren edukiari buruzko informazioa eskatzeko. Espetxealdiaren osteko laguntza-zerbitzuak, eskaera horri erantzuteko, preso batek espetxetik ateratzen den nean eskura dituen laguntza-prestazio guztiei buruzko informazio guztia biltzen duen liburuxka orokorra bidal dezake.
- Programa honetan parte hartu nahi duten presoak, preso ohiak edo espetxetik ateratzeko prozesuan dauden pertsona interesdunak espetxealdiaren osteko laguntza-zerbitzura bidalitako eskabidearen bitartez sartuko dira programan. Eskabideak eskatzailearen espetxe-egoerari buruzko oinarritzko informazioa eman behar du, eta jaso nahi dituen prestazioak definitu behar ditu.
- Espetxetik irten ostean programan sartu nahi duten pertsonak 24 hilabeteko epea izango dute prestazioak jasotzeko eskaera egiteko, baldintzapeko askatasuna eskuratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
- Laguntza-prestazioak jasotzeko eskabidea aurkeztu ostean, espetxealdiaren osteko laguntza-zerbitzuak kasua aztertuko du, eskatzaileari erantzuna eta orientabidea emateko.
- Espetxealdiaren osteko laguntza-zerbitzuak argi eta garbi adierazi beharko dio eskatzaileari zer prestazio jasotzeko eskubidea duen, arau honetan xedatutakoaren arabera. Halaber, bete behar dituen baldintzak eta egin behar dituen izapideak zehaztuko dira, eskatzailearekin adostuta.
- Eskatzaileak espetxealdiaren osteko laguntza-zerbitzuari informazio gehiago edo argibideak eskatu ahal izango dizkio beharrezkoak direla iritzitakoan.

-Espetxealdiaren osteko laguntza-zerbitzuak eskatzaileei laguntzeko edo aholku emateko aukera eskaini dezake espetxe-arloan diharduten eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzak-akordioak dituzten hirugarren sektoreko bitartekotza-erakundeen bitartez.

2.4.4. Birgizarteratze-prozesuetan laguntzeko sailarteko zerbitzua

- Birgizarteratze-prozesuetan laguntzeko sailarteko zerbitzu bat sortuko da (espetxealdiaren osteko laguntza-zerbitzua). Sailarteko zerbitzu horren xedea izango da *birgizarteratze-prozesuetan laguntza emateko programa* kudeatzea.
- Espetxealdiaren osteko laguntza-zerbitzuko mahaia osatuko duten kideek legezketasunaren, independen-tziaren, konfidentziasunaren, lankidetzaren eta eraginkortasunaren printzipioen arabera jokatuko dute.
- Honako kide hauek osatuko dute birgizarteratze-prozesuetan laguntzeko sailarteko zerbitzuko mahaia:
 - Eusko Jaurlaritzan **Giza Eskubideen** arloan eskumena duen saileko zuzendari bat.
 - Eusko Jaurlaritzan **Justizia**-arloan eskumena duen saileko zuzendari bat.
 - Eusko Jaurlaritzan **Gizarte-gaien** arloan eskumena duen saileko zuzendari bat.
 - Eusko Jaurlaritzan **Etxebizitza**-arloan eskumena duen saileko zuzendari bat.
 - Lanbideko** zuzendari bat.
 - Eusko Jaurlaritzan **Osasun**-arloan eskumena duen saileko zuzendari bat.
 - Eusko Jaurlaritzan **Unibertsitateen** arloan eskumena duen saileko zuzendari bat.
 - EUDE**leko ordezkari bat.
 - Foru Aldundi** bakoitzeko ordezkari bana.

Azken gogoeta

Justizia leheneratzailearen ikuspegitik, delituari ematen zaion erantzun bakarra zigorra izatea ez da ezinbestean biktimen beharrak asetzeko erantzun hoberena. Paradigma zabalago bat eskaintzen du, biktimen premiei erantzuteko prozesua biktimaren, biktimarioaren eta komunitatearen arteko interakzioaren ildoan sartzen duelako.

Euskadiko kasuan, justizia leheneratzailean oinarritutako prozesua zabaltzen da hasieran *erreparazioaren printzipio orokorra* esan dena aplikatuta; alegia, honako hau aitortzea: giza eskubideen urraketak ez zuen justifikaziorik, ezta zentzurik ere, biktima bakoitzaren biziak baino balio handiagoa zuenik.

Hitz horiekin edo beste batzuekin esanda, biktimei eragindako kalte bidegabearen aitortpena argi eta garbi adierazteaz ari gara. Hainbat biktimak adierazi dute behin eta berriro oinarritzko aitortpen horren beharra dutela. Premisa hori da, hain zuzen, terrorismo delituengatik zigortutako presoek gizarteratzea sustatzeko Arau-proiektu honen abiapuntua.

Oinarri horren gainean, justizia leheneratzailearen balio nagusiak garatzen ditu. Balio horiek lau kontzeptu hauetan laburbildu dituzte zenbait egilek: elkartzea, erreparazioa, birgizarteratzea eta parte-hartzea.

- Elkartzea. Arau-proiektu honek biktimak, presoak eta prozesuan parte har dezaketan erakunde kolaboratzaileak zuzenean elkartzeko aukera ematen du, betiere askatasunez eta borondatez hartutako erabakien esparruan.
- Erreparazioa Arau-proiektu honek biktimen erreparaziorako zenbait modu aurreikusten ditu, presoaren ekarpen pertsonalizatua ahalbidetzen duten zenbait ibilbide garatzeko aukeraren bidez.
- Birgizarteratzea. Arau-proiektu honek biktima kokatzen du bizikidetzaren gizar-erakuntzaren eragilearen tokian. Horrenbestez, presoak birgizarteratzeko prozesuan laguntzen du biktimak, bakerako eta bizikidetzarako lankidetzaren pro-sozialen jarduteko gaitasuna duen aldetik.
- Parte-hartzea. Arau-proiektua printzipio gidari honetan oinarritzen da: biktimen eta presoek parte-hartzea, askatasunez eta borondatez, prozesu leheneratzailearen fase guztietan.

Oso prozesu konplexuak ari gara, zalantzarik gabe; baina, biktimentzat eta gizarteratzaileentzat sortutako erreparazio-ondorioak biziagoak eta sakonagoak izan daitezke zigor-justizia hutsaren aplikazioak sortzen dituenak baino. Presoak ere bizitasun eta balio pertsonal, sozial eta politiko handiagoa duen prozesuan parte hartzen dute. Bestalde, ezin dugu ahaztu ikuspegi hau ez dela burutazio bakan bat; izan ere, Europako joera bat arauetan berretsi dute europar erakundeek 2012/29/EB Zuzentarauaren bidez, eta Delituen Biktimaren Estatutua eratu da.

Azken finean, justizia leheneratzailean oinarrituta gizarteratzeko eta birgizarteratzeko politika batek, Eusko Jaurlaritzak Hitzeman programaren bidez sustatzen duenaren modukoak, prozesu bat garatzeko eta balio erantsia duten emaitza batzuk lortzeko aukera ematen du. Erreparazioaren, bizikidetzaren eta delituen prebentzioaren pedagogia da, eta irismen handiko eragin hezitzailea du.

Balio erantsi hori ideia xume batean laburbiltzen da: elkarrekin eta hobeto bizitzea, gizatasun handiagoa lagun dugula. Horixe da, azken finean, ahalegin honen helburua.



A large, bold, grey number '3' is the central focus of the page. It is partially overlaid by a white, torn-paper-like graphic that extends from the top left towards the center. To the right of the number, there is a small grey circle, a teal circle, and the word 'dokumentua' written vertically.

dokumentua

Espetxe-politikaren arloko Eusko
Jaurlaritzaren ekimenen eguneratzea
2020ko urtarrilean

Espetxe-politikaren arloko Eusko Jaurlaritzaren ekimenen eguneratzea 2020ko urtarrilean

2020ko urtarrila

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetz
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia



GOBIERNO VASCO

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

Sarrera

Eusko Jaurlaritzaren XI. Legegintzaldirako Programari buruzko akordioaren hirugarren kapituluan “Bizikidetzatza eta giza eskubideak” aipatzen da. Lehenengo atalak zazpi premisa definitzen ditu. Seigarrenak honako hau dio: “Bizikidetzatza normalizatzeko, legezko aukeren esparruan, presoek aukerari, espetxe-politikari eta errealitate sozial berriaren araberrako gizarteratzeari heldu behar zaie”.

Gobernu-programa horren beraren “Oinarrizko diagnostikoa” atalean, espetxe-politika aipatzen da, ETArekin behin betiko desegitearekin eta iraganari buruzko memoria kritikorekin batera, testuinguru berri horretan egiteke dauden hiru gai nagusietako bat bezala. Gobernu Programaren “164. konpromisoaren” esparruan, berriz ere azaltzen da. Azkenik, “Lan-agendan” eta konpromiso horrekin lotuta, hiru ekimen zehazten dira.

Lehenengoa: “Espetxe-politika bideratzeko oinarri-proposamen bat bultzatzea, gizarteratzea funtsezko helburutzat hartuko duena, eragin humanitario handieneko arazoei lehentasuna emango diona, presoak hurbiltzen lagunduko duena eta espetxeen eskumena EAEra transferitzeko eskatuko duena”. EAJ-PNVk eta PSE-EEK sinatutako Gobernu Programaren aurreikuspen horiek hitzez hitz sartu ziren 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planean.

Espetxe-politika bideratzeko oinarri-proposamena, 164. konpromisoak aipatzen duena, 2017ko martxoaren 14an egin zen, eta Iñigo Urkullu lehendakariak Mariano Rajoy Espainiako orduko Presidenteari aurkeztu zion. Proposamen hark, besteak beste, ETArekin presoak Euskaditik 250 kilometro baino gutxiagora dauden espetxeetara hurbiltzeko plan bat proposatzen zuen. Zentsura-mozioa onartu ondoren, 2018ko ekainaren 25ean, Lehendakariak espetxe-politika birbideratzeari buruzko proposamen hori bera entregatu zion Pedro Sanchez Espainiako Gobernuko Presidente berriari, urtebete lehenago Rajoy Presidenteari eraman ziona.

Proposamen horren arabera, presoak hurbiltzea zen Konstituzioaren eta espetxe-legeriaren espiritua eta letra betetzeko modurik benetakoena. Orain aurkeztu den dokumentu horrek lotura bera du proposamen haren lege-esparruarekin, eta zati batean eguneratzen ditu eduki batzuk, lau faktore kontuan hartuta:

- ETArekin aldebakarreko, atzeraezinezko eta behin betiko desegitea erabat berrestea eta berrerortzeko arriskua desagertzea;
- ETArekin lotutako presoek guztizko kopuruaren beherakada nabarmena;
- urruntzeak gizarteratzea sustatzen ez duenaren egiaztapen enpirikoa;
- eta euskal gizarteraren gero eta ulertezintasun handiagoa urruntze-politikak mantentzeari dagokionez, haien ondorio nagusia familien sufrimendua larriagotzea baita.

Dokumentu honek Eusko Jaurlaritzak espetxe-politikari buruz duen ikuspuntua aurkeztu du Espainiako Gobernuaren aurrean. Eta Espainiako Gobernuak eratu eta bere Legegintzaldiko agintaldia hasi berri den unean egiten du hori. Dokumentu hori, beraz, Eusko Jaurlaritzaren proposamen-abiapuntua da testuinguru zehatz horretan. Dokumentuak bi atal ditu: (1) aurrekarien laburpena eta (2) 2020ko proposamenen eguneratzea, zenbait eranskinekin osatzen direnak.

Lehen zatia

Aurrekariak

Oinarriak

Azken urteotan, Eusko Jaurlaritzak jarduera-ildo bati eutsi dio espetxe-politika berri bat bultzatzeari dagokionez, eta hiru oinarri nagusiren inguruan finkatu da:

I. Espetxe-politika berri batek presoak beren bizilekuetatik gertu dauden espetxeetara hurbiltzeko prozesu bat egituratzea eskatzen du Espainiako Gobernuaren aldetik honela zehazten baitu Espetxeei buruzko Lege Organikoaren 12.1 artikulua. Gaixo dauden presoentzako ere Espetxeei buruzko Erregelamenduaren 104.4 artikulua ezartzea. Halaber, presoak gizarteratze eta birgizarteratze aldera politika aktiboa bultzatzea espero behar da Espainiako Gobernuarengandik, Konstituzioaren printzipio bat den heinean. Azkenik eta Gernikako Estatutuak 10.14 artikuluan agintzen duena betetze aldera, espetxe-eskumenaren transferentzia gauzatu beharko litzateke.

II. Espetxe-politika aldatzeko, halaber, presoek banakako legezko bideak erabili behar dituzte graduen progresioaren ondoriozko espetxe-onurak eta gizarteratzeko legezko prozesuak eskuratzeko. Era berean, garrantzitsua izango litzateke, preso bakoitzak erabil ditzakeen birgizarteratze-prozesuetarako eta bizikidetzaren sozialaren eta politikoaren normalizaziorako baliagarria izan dadin, preso horien ingurune politikoak balorazio kritikoa egitea, ETak iraganean eragindako giza eskubideen urraketek buruz.

III. Presoen familiek hurbiltetaren eta preso gaixoen inguruan egiten dituzten gizatasun eskaerak babestea espero behar da euskal gizartetik eta bere instituzioetatik. Euskal instituzioei dagokie, halaber, Estatuko instituzioen aurrean espetxe-politika desberdin bat eta espetxe-eskumenaren transferentzia defendatzea. Era berean, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze sozial eta politiko laguntzak bultzatzeko politika aktiboak garatu behar ditu espetxe ondoreneko birgizarteratzea babeste aldera.

Egindako jarduera nagusiak

Azaldutako oinarriak aintzat hartuta, jarduketa-ibilbide bat garatu da, eta hauxe da haren laburpena:

·2014ko urriaren 1ean, Eusko Jaurlaritzak Hitzeman Programa aurkeztu zuen. Terrorismo delituengatik kondenatutako presoak gizarteratzeko bide legalak bultzatzeko lan-plangintza bat, erakundeen eta gizarteraren estaldurarekin eta egindako delituaren aurrean presoaren urruntze kritikoa erekin, bereziki giza eskubideen urraketa egon baldin bada.

·Urte bereko azaroaren 29an, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak Zuzen Bidean Proposamena aurkeztu zuen. Dokumentu honek hogeit hamar proposamen jasotzen ditu, ETaren amaieraren ostean, normaltasuna berregiteko zuzenbide penalean eta espetxe-zuzenbidean. Modu oso berezian, Espainiako Gobernuari eta zigor-, espetxe- eta epai-arloko aktoreen multzoari zuzenduak.

·2014. urtearen amaieran eta 2015. urtearen hasieran, Eusko Jaurlaritzak hainbat bilera egin zituen EPPK-ko ordezkariekin. Bilera horien helburua Eusko Jaurlaritzak landutako bi proposamenak ordezkariari aurkeztea izan zen: Hitzeman Programa eta Zuzen Bidean Proposamena. Hilabete batzuk geroago, Eusko Jaurlaritzak EPPKren gutun bat jaso zuen, esanez «berandu baino lehen» jasoko genuela bere aldetik erantzun bat Hitzeman eta Zuzen Bidean agiriei buruz. Hala ere, erantzun hori ez zen iritsi.

·Preso guztiei ondorengo gutunak bidali zizkien Eusko Jaurlaritzak:

2014/10/10. Presoak birgizarteratzeko legezko prozesuak laguntzeko Hitzeman Programari laguntzen zion gutuna.

2015/01/21. Zigor- eta espetxe-arloan salbuespena gainditzeko 20 neurri zehatz daramatzen Zuzen Bidean Proposamena aurkezten zuen dokumentuarekin gutuna.

2015/04/30. Hitzeman Programaren esperientzia pilotua abian jartzeko Eusko Jaurlaritzak emango zituen urratsei buruzko informazio-gutuna.

2016/04/06. Gradu-bilakaeran eta espetxe-onura legalen gaien terrorismo-delituagatik zigortutako pertsona batek eman ditzakeen urrats legalei buruzko informazio-gutuna.

2017/06/15. Espetxe-politikan aldaketa emateko beharrezko ekintzei buruzko Eusko Jaurlaritzaren iritzia jasotzen zuen gutuna.

·Aldi berean, Rajoy Presidentearekin izandako bilera guztietan, Lehendakariak espetxe-politikaren gaiari heldu zion, eta idatziz entregatu zizkion proposamenak, eta eguneratzen joan zen. 2017ko martxoaren 14an egindako bileran Lehendakariak dokumentu hauek helarazi zizkion Presidenteari:

- Espetxe politika berbideratzea partekatzeko akordio-proposamena;
- Euskal presoak Presondegietan berkokatzeko irizpide-proposamena (Bertsio laburtua);
- Euskal presoak Presondegietan berkokatzeko irizpide-proposamena (Bertsio zabala);
- SAREren 1. dosierra preso gaixoen inguruan;
- SAREren 2. dosierra preso gaixoen inguruan.

·2016ko ekainaren 16tik 18ra Donostian egindako Justizia leheneratzailearen Europako Biltzarraren esparruan, Eusko Jaurlaritzaren proposamen garatu eta xehatu bat aurkeztu zen, ETAko presoen gizarteratzearen eta birgizarteratzearen arloan.

·Frantziako Gobernuari dagokionez, 2017ko uztailetik, Eusko Jaurlaritzak elkarrizketa zuzena izan du Justizia Ministerioko Kabinetarekin, eta Frantziako espetxe-politikaren orientazio berria babestu du, ETAko presoei dagokienez.

·2017ko azaroaren 24an, Eusko Jaurlaritzak «Urruntze espetxe-politikak familietan duen eraginari buruzko txostena» aurkeztu zuen. Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak egina, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren enkarguz.

·2018ko ekainaren 25ean, Lehendakariak espetxe-politika birbideratzeari buruz urtebete lehenago Rajoy Presidenteari eraman zizkion dokumentu eta proposamen berberak eman zizkion Pedro Sanchez Espainiako Gobernuko Presidente berriari.

Bigarren zatia

Proposamenen eguneratzea

Behin-behinekotasun epe luze baten ondoren, 2020ko urtarrilean Espainiako Gobernu berria eratu da. Tes-tuinguru horretan eta dokumentu honen bidez, Eusko Jaurlaritzak bere posizionamendu-oinarriak eta bere proposamenak eta ekimenak eguneratzen ditu, espetxe-politika bideratzeari dagokionez. Azalpen hori bi ataletan egituratzen du: lehenik, 2017ko dokumentuari dagokionez eguneratzen den proposamena, eta, bi-garrenik, ukitu gabe mantentzen diren proposamenak.

I. Presoak hurbilen dauden espetxeetan kokatzeari buruzko 2017ko proposamenaren eguneratzea

2017ko martxoan, Lehendakariak presoak kokatzeko proposamen bat aurkeztu zion Rajoy Presidenteari, Euskaditik 250 kilometro baino gutxiagora dauden 10 espetxeetan. Orduetik, ETArekin lotutako preso-en kopurua % 20 baino gehiago murriztu da. Dokumentu hau idazteko unean 200 pertsona baino apur bat gehi-geago geratzen dira Espainiako Estatuko espetxeetan.

Esparru horretan, eta ikuspuntu praktiko eta material batetik egingarria delako, Eusko Jaurlaritzak Espai-niako Gobernuari proposatzen dio arrazoizko epe batean prestatzea ETako presoak hurbilen dauden zazpi espetxeetan birkokatzeari: Zaballa, Basauri, Martutene, Iruña, El Dueso, Logroño eta Burgos, Espetxe Lege Organiko Orokorraren 12.1 artikuluan aurreikusitakoa bete ahal izateko.

Eusko Jaurlaritzak beti bereizi ditu *hurbilketa* eta *gizarteratzea*. Ez Legeak ez epai batek ere ez dute zigo-rraren zatitzat ezartzen *urruntzea*. Alderantziz, Legeak dio ahal den neurrian presoak beren inguru sozial edo familiarretik gertu dauden espetxeetan kokatu behar direla. Eta hori esaten du beste baldintza erantsi batzuk ezarri gabe. Legeak graduak aldatzeko eta gizarteratzeko betekizun esplizituak ezartzen ditu, bes-teak beste, eragindako kalte bidegabera aitortzearekin zerikusia dutenak, edo, bestela esanda, egindako delituarekiko urruntze kritiko eta indibidualizatuarekin zerikusia dutenak.

Eusko Jaurlaritzak, espetxe-legezketasunaren ildotik, alde batetik, hurbiltzea defendatzen du; eta, bestetik, eragindako kalte bidegabera aitortzea gizarteratze-prozesuetan beharrezko urratsa dela uste du. Hori izan da Eusko Jaurlaritzaren jarrera espetxe-politikaren arloan. Eta hori da, halaber, Gobernu Programan nahiz 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planean jasotako jarrera.

Eusko Jaurlaritzaren ustez, ildo horretan, Espainiako Estatuan aplikatzen ari den espetxe-politikak bere ikuspegia eguneratu behar du. Gizarteratzea hurbilketarako aurretiazko baldintza gisa jarri beharrean, hur-bilketa planteatu beharko litzateke, gizarteratzea eta iraganari buruzko hausnarketa kritikoa erraztu deza-keen faktore gisa. Hurbilketa ez da presoentzako sari gisa ulertu behar, baizik eta, batez ere, familientzako egoera bidegabera arintzeko eta gizarteratze-prozesuak bultzatzeko neurri gisa.

Azkenik, ezin dugu azpimarratu gabe utzi azken urteotan egiten ari diren inkesta eta iritzi-azterketa guztiek islatzen dutela euskal gizarteak eta euskal alderdi guztietako hautesleek, salbuespenik gabe, salbuespenik gabe, hurbilketaren alde egiten dutela, uste baitute urruntzea preso-en familiek ordaintzen duten zigor eran-tsia dela. Euskal gizarteak ez du ulertzen lege-babes osoa duen gai horri irtenbiderik ez ematea.

II. 2017ko Proposamenean jasotako beste proposamen batzuk, 2020ko urtarrilean indarrean mantentzen direnak

• Eremu humanitarioa

-Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari proposatzen dio:

-Espetxeen Arautegiko 104.4. artikulua irizpide humanitarioarekin aplikatzea gaixotasun larriak dituzten presoentzat.

-Beren ardurapean adin txikikoak dituzten presoak Euskadiko presondegia berdinean elkartzea.

-Espetxeen Arautegiko 196. artikulua modu normalizatuan aplikatzea 70 urte baino gehiago dituzten presoetara.

(Proposamen hauek Zuzen Bidean txostenaren lehen zatian jasota daude)

• Gizarteratzea

-Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari proposatzen dio:

-Gizarteratze-politika bat garatzeko oinarriak eta neurriak adostea, bere definizio konstituzionalaren eta ohiko espetxe-onurei buruzko Espetxeen Arautegiko 4.1. eta 4.2. artikuluen arabera, eta Biktimei buruzko 2012/19 Europako Zuzentarauan jasotako Justizia Leheneratzailearen ildoarekin bat.

-7/2003 Lege Organikoa aldatzea, gizarteratzerako konstituzio-printzipioa bideragarria izan dadin, berriro indarkeria erabiltzeko arriskua eta mehatxua desagertu direnean, modu frogagarri eta behin betikoan. (Proposamen hau Zuzen Bidean txostenaren lehen zatian jasota dago)

• Espetxe-kudeaketa

-Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari proposatzen dio:

-Eusko Jaurlaritzari presondegien eskumenaren transferentziaren edukiei buruzko negoziazioari ekitea, Gernikako Estatutuaren 10.14 eta 12.1 artikulua betetze aldera. (Proposamen hau Zuzen Bidean txostenaren lehen zatian jasota dago)

-Espetxe-zaintzaren kudeaketa Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentraletik, preso dagoen espetxe bakoitzaren lurralde-esparruko Espetxe Zaintzako Epaitegietara itzultzea. (Proposamen hau Zuzen Bidean txostenaren bigarren zatian jasota dago)

• Zigor- eta espetxe-normaltasuna

-Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari proposatzen dio:

-Ebazpen judizialen elkarrekiko aintzatespenari ekitea Europako Batasunaren eremuan, Europako Kontseiluaren 2008/675/JAI Erabaki Markoaren interpretazioaren arabera, Auzitegi Gorenaren 186/14 epaian adieraten den bezala. (Proposamen hau Zuzen Bidean txostenaren bigarren zatian jasota dago)

-Giza eskubideen nazioarteko erakundeek zein Nazio Batuen kontariak eta giza eskubideen mekanismoak, berme demokratikoen ikuspegitik, egiten ari diren gomendio zehatzak aplikatzeko akordio posible zabalena bilatzea. (Proposamen hau Zuzen Bidean txostenaren bigarren zatian jasota dago)

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia
2020ko urtarrilaren 23a





4

● dokumentua



Eusko Jaurlaritzak espetxe-politikan
azken bi Legegintzaldietan egindako
jardunaren panoramika

Eusko Jaurlaritzak espetxe-politikan azken bi Legegintzaldietan egindako jardunaren panoramika

2019ko urria

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetz
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia



GOBIERNO VASCO

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

Dokumentu honek “Eusko Jaurlaritzak ETAre armagabetzean eta desegitean izandako zereginaren deskribapena eta balorazioa” txostenaren laburpen batzuk eskaintzen ditu, espetxe-politikari buruzkoak. Eusko Jaurlaritzak azken bi legegintzaldietan arlo horretan egindako jardunaren ikuspegi integrala eskaintzen dute.

(...)

4. Presoen gaia

4.1. Espektatiba kontraesankorren testuingurua

2011ko urrian, indarkeriaren behin betiko etetea iragarri zuen ETAk. 2012ko, 2013ko, 2014ko, 2015eko eta 2016ko urtarilean eta hurrengoetan, urtero bezala, presoen eskubideen aldeko manifestazio handi bat egin zen Bilbon. 2014ko urtarilean egin zenak gertakari garrantzitsuak ekarri zituen aurretik:

- 2013ko irailaren 30ean, Herrira ETAko presoen babes taldearen aurka sarekada poliziala gertatu zen, 18 atxiloturekin “terrorismoa goratzea”, “talde armatuan integrazioa” eta “finantzatzea” leporatuta. Ondoren, 18 atxilotuak aske utzi zituzten baina Herrira taldearen jarduerak etenda geratu ziren agindu judizialaren bidez.

- 2013ko urriaren 20an, Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Parot doktrinaren inguruan Inés del Ríok jarritako helegitea ebatzi zuen. Doktrina hau ezartzeak ordura arte aplikatzen ari ziren espetxe-onurengatik zigorrak murriztearen eredu-aldaketa ekarri zuen, zigor osoaren arabera eta ez legeak ezarritako maximoaren arabera, indargabetutako 1973ko Kode Penalarekin bat. Doktrina honen aplikazio atzeraeraginezkoa da Europako Giza Eskubideen Auzitegiak zuzendu zuena. Auzitegiak Inés del Río-ren kasuaz baino ez bazuen eman epaia, erabilitako argudioak zigorren murrizketa kontatzeko modu hau atzeraeraginez aplikatu zitzaizen beste presoei ere luzatu zitzaizkien. Egun gutxitan ETAko 60 preso aske geratu ziren.

- 2014ko urtarrilaren 8an, Arantza Zulueta, Jon Enparantza eta ETAko presoak defenditzen zituzten abokatuen taldea osatzen zuten beste sei lagun atxilotu zituzten. Akusazioaren esanetan, Koordinazio Taldea (KT) deiturikoaren parte izatea leporatu zitzaizen, ETAre eta presoen artean solaskide izatea. Kartzeleratuak izan ziren. Epaietaren zain, espetxetik azkenak ateratzen Jon Enparantza (2016ko martxoan) eta Arantza Zulueta (2017ko otsaila) izan ziren. Azken honen espetxeratze-baldintzak behin eta berriz salatu zituzten instantzia desberdinek gogortasun altuko isolamendua jasan zuelako.

- Ezker abertzaleak berak Eusko Jaurlaritzari adierazi zion bezala, Herrira taldearen eta abokatu talde honen aurkako polizia-operazioek ETAko presoen kolektiboarekin komunikazio-bideak oso kaltetuak utzi zituzten. Iturri berdinen arabera, honek azalduko lituzke, neurri batean behintzat, presoen kolektiboaren barruan erabakiak hartzean gertatuko ziren atzerapenak justifikatzeko arrazoiak.

Testuinguru hartan, 2013ko abenduaren bukaeran, –garrantzitsua aurreikusten zen– iragarpena egin zuen EPPK presoen kolektiboak, ordura arte, espetxe-legediaren aurrean, mantendu izan zuen posizioa aldatu zezakeena. Historikoki, ETAko presoen kolektiboak zenbait espetxe-eskubide edukitzeko bide legalak onartzeari uko egin zion, legez egokitu ahal izango zitzaizkienak. Bide legalei uko egiten zitzaizen: “irtenbide indibidualak” zirela adieraziz eta “irtenbide kolektiboak” baino ez zirela onartuko esanez.

Irizpide hau betez, ETAko presoek hamarkadetan zehar ukatu zuten, esate baterako, gradu aldaketa eskatzea, lanagatik zigorrak kentzeari uko egin zioten, edo hirurogeita hamar urtetik gorako presoei baldintzapeko askatasuna onartzen dien Espetxe-Legediaren 196. artikuluari ez zioten heldu. Testuinguru honetan bertan, “gizarteratze” kontzeptua madarikatutzat hartu izan zen eta EPPK-k aukera legal hau “damuarekin” lotu izan zuen mespretxuz.

2013ko abenduaren 28an kaleratutako EPPK presoen kolektiboaren komunikatuak, hilabete batzuk lehenago, espetxe-politikaren gaien Euskal Herriko Foro Sozialak ezarritako jarraibideak hartzen zituen bere

gain. EPPK-k “bide legalak” onartzeko borondatea eta preso bakoitzaren erantzukizunak banan-banan bere gain hartzea adierazten zuen. Egun gutxi batzuk beranduago, 2014ko urtarrilaren 4an, “Parot doktrina”ren indargabetzearen ondoren aske utzitako preso ohiak eta aurretik aske utzitako preso ohiak bildu ziren Durangon. Beren komunikatuan¹, egun batzuk lehenago EPPK-k ezarritako irizpideekin bere “ados-tasun osoa” adierazi zuten.

Jarraitutako estrategian aldaketa nabarmena adierazten zuen bi komunikatu hauen edukiak. Hala ere, bi adierazpenak benetan nabarmenak izango ziren, zentzuzko epe batean segidako urrats praktikoak ekarri izan balituzte. Baina hau ez zen horrela gertatu.

4.2. Hitzzen eta ekintzen arteko distantzia

EPPK-ren komunikazio haiek, 2013ko abenduaren 28an, eta preso ohiena, 2014ko urtarrilaren 4an, pentsa arazten zuten bere edukiak laster mugimenduak ekarriko zituela presoen aldetik banan-banan bide legalak onartzera begira. Hala ere, denbora asko pasako zen oraindik EPPK-k erabakitzeaz azkenik espetxeetan bide legalak jorratzera zabaltzen zela benetan.

2017ko uztailearen 1ean, ia lau urte beranduago, EPPK-k barne-prozesuaren² amaieraren berri eman zuen. Bertan, espetxe-legediak eskaintzen dituen aukeren arabera preso bakoitzak bere egoera banan-banan kudeatzeko aukera edukitzeko erabakia hartzen zen. Honek ere ez zuen ekarri presoen espetxe-eskubidearen defentsa eraginkorra berehala aplikatzea. Urte bete beranduago, orientabide berri horren garapenak oraindik oso mugatua izaten jarraitzen zuen. 2018ko urriaren 10ean, Sare kolektiboak ezagutzera eman zuen une horretan espetxean zeuden ETako 269 presoetatik, 46 baino ez zutela eskatu gradu-bilakaera³.

Egia da, Alderdi Popularraren Gobernuak espetxe-politikan ez zen mugitu. Euskaditik, presoen hurbilpenari eta preso gaixoei edo zaurgarritasun egoeran zeuden presoei neurri humanitarioak aplikatzeko egin zitzaizkion proposamen eta eskaera guztiei ez zien jaramonik egin. Jarrera hau sendoa izan zen eta behin eta berriz salatua Eusko Jaurlaritzaren eta gainontzeko euskal erakundeen eta gizarteko elkarte eta izen handiko pertsona ugariaren aldetik. Espetxe-politika hau mantendu izanaren erantzukizun nagusia urte horietan Alderdi Popularraren Gobernuarena izan zen.

Dena den, adierazi behar da, manifestazioen deialdiez gain, EPPK eta bere inguru politikoa ez zirela gai izan egoera aldatzea lagunduko zuketan mugimendu errealeko minimoak sortzeko. Erabakiak urtetako atzerapenarekin hartu ziren. Egoera hobetzen laguntzetik urruti, are konplikatuagoa egingo zuten atzerapenek.

4.3. Eusko Jaurlaritzak egindakoa

Gai honetan Eusko Jaurlaritzak egindakoari dagokionez, hurrengo erreferentziak azpimarratu behar dira:

- 2014ko urriaren 1ean, Eusko Jaurlaritzak Hitzeman Programa (B.1. eranskina) aurkeztu zuen. Terrorismo delituengatik kondenatutako presoak gizarteratzeko bide legalak bultzatzeko lan-plangintza bat, erakundeen eta gizartearen estaldurarekin eta egindako delituaren aurrean presoaren urruntze kritikoarekin, bereziki giza eskubideen urraketa egon baldin bada.

- Urte bereko azaroaren 29an, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak Zuzen Bidean Proposamena aurkeztu zuen (B.2. eranskina). Dokumentu honek hogeit hamar proposamen jasotzen ditu, ETaren amaieraren ostean, normaltasuna berregiteko zuzenbide penalean eta espetxe-zuzenbidean. Modu oso berezian, Espainiako Gobernuari eta zigor-, espetxe- eta epai-arloko aktoreen multzoari zuzenduak.

- Raxoi Presidentearekin egindako bilera guztietan, espetxe-politikaren gaia jorratu zuen Lehendakariak eta eguneratzen joan zen proposamenak eraman zizkion idatziz. Raxoi Presidenteak espetxe-politikan aldaketa ematearen beharra ulertzen zuela adierazi izan zuen beti; baina harmen horrek ez zuen inoiz ekarri aldaketa errealik.

1 <https://www.youtube.com/watch?v=6HN4pGQ1Ud8>

2 https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2017-07-01/hemeroteca_articles/eppk-da-el-paso-para-vaciar-carceles-con-87-de-participacion-y-73-de-si

3 <http://www.etxerat.eus/index.php/eu/albisteak/1939-gradu-aldaketa-lortzeko-eskaerei-erantzunez-jasotako-ezezeko-ebazpenek-kalte-egiten-digute-senideoi-presoen-etxeratzea-atzeratzen-duelako>

·Preso guztiei ondorengo gutunak bidali zizkien Eusko Jaurlaritzak:

2014/10/10. Presoak birgizarteratzeko legezko prozesuak laguntzeko Hitzeman Programari laguntzen zion gutuna. (B.3. eranskina)

2015/01/21. Zigor- eta espetxe-arloan salbuespena gainditzeko 20 neurri zehatz daramatzen Zuzen Bidean Proposamena aurkezten zuen dokumentuarekin gutuna. (B.4. eranskina)

2015/04/30. Hitzeman Programaren esperientzia pilotua abian jartzeko Eusko Jaurlaritzak emango zituen urratsei buruzko informazio-gutuna. (B.5. eranskina)

2016/04/06. Gradu-bilakaeran eta espetxe-onura legalen gaian terrorismo-delituagatik zigortutako pertsona batek eman ditzakeen urrats legalei buruzko informazio-gutuna. (B.6. eranskina)

2017/06/15. Espetxe-politikan aldaketa emateko beharrezko ekintzei buruzko Eusko Jaurlaritzaren iritzia jasotzen zuen gutuna. (B.7. eranskina)

2015eko urtarrilaren 28an eta 29an, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkari Nagusiak hiru bilera eduki zituen Mikel Albisu *Antzarekin* eta Soledad Iparraguirre *Anbotorekin*, Pariseko Sud Francilien espetxearen barruan, EPPKko solaskide ziren neurrian. Bileren aurretik EPPKk espetxetik kanpo Euskadin zituen ordezkariekin zenbait hartu-eman izan ziren. Ordezkariek haiek esan zuten EPPKrekin komunikazio ofiziala edukitzeko bidea Frantziako espetxeetan zeuden ordezkariengana jotzea zela. Beharrezko gestioak egin ondoren, Frantziako agintariek bilera hauek erraztu zituzten, diskrezio handienaren barruan.

EPPKko ordezkariak Eusko Jaurlaritzaren Hitzeman Programa eta Zuzen Bidean Proposamena aurkeztea izan zen bileren helburua. Bi proposamenek xede berdina zuten: espetxe-bide legalak ahalik eta gehien zabaltzen erraztea, presoek laguntza eskatzen zuena. Bileren garapena ez zen emankorra izan, eta EPPKko ordezkarien jarrera ere ez zen bereziki harkorra izan.

Hilabete batzuk beranduago, Eusko Jaurlaritzak EPPKren gutuna jaso zuen 2015eko urtarrilaren 31ko datarekin (B.8. eranskina), non tonu eraikitzaileagoan, komunikazio bidea zabalduta mantentzeko prest eta "goizago beranduago baino" Hitzeman eta Zuzen Bidean dokumentuei zegokien erantzuna jasoko genuela baieztatzen. Dena dela, erantzuna ez zen iritsi, eta EPPK ez zen jarri harremanetan Eusko Jaurlaritzarekin.

4.4. Paradoxak

Hitzeman Programa oso gogor deskalifikatu zuten Ezker abertzaleko buruzagiek eta bozeramaileek: "harrokeria", "ezerezero bidaia", "distrazioko azpijokoa", edo "salbuespen legezketasuna legitimatzen eta bermatzen duen ekimena" eta beste batzuk izan ziren erabilitako adierazpenak.

Hala ere, Hitzeman Programa mespretxatu eta handik urte bete eta bi hilabete beranduago, Fiskaltzaren, *Dignidad y Justicia* eta AVT herri akusazioen eta 04/08 sumarioko akusatuen artean adostasun akordio berri bat emango zen, Segurako Mahai Nazionala⁴ ren kasua bezala ezagututakoan.

Batasuna, ANV eta EHAK alderdietako 35 buruzagi 10 urteko espetxe-zigorretara arriskatzen ziren. Lortutako adostasunaren bidez espetxean sartzea saihestu zen, trukean erruduntasuna onartuz eta terrorismoa gaitzetsiz. Beranduago, formula berdina erabili zen Ekin 1 eta Ekin 2 bezala ezagutu ziren epaiketetan. Bi prozesu horietan guztira 13 lagunek saihestu zuten espetxea baldintza beretsuak beteaz.

Filkaltzarekin adostasun-akordio haiek sinatu zituztenak "gertaeretan parte hartu izana" aitortu zuten "beren jokabidea egungo legediaren aurkakoa izan zela onartuz", eta "indarkeriaren erabilerarekin harreman zuten edozein ekintzari uko eginez konpromisoa" adierazi zuten "aitorpen horrek terrorismoaren biktimen erreparazioan –eragin zaien minarengatik eta sufrimenduagatik– lagunduko zielakoan".

Filkaltzarekin akordioa lortu behar zen momentu berean, Rufi Etxeberria Ezker abertzaleko buruzagiak adierazi zuen "presoen kaleratzea mahai baten akordiotik etorririko ez zenez", legaltasuna eta banakako neurriak erabili behar zirela. Fernando Barrenak, 2016ko urtarrilaren 14an eskaini zuen prentsaurreko

4 <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/2016/01/14/politica/miembros-de-batasuna-avt-y-fiscalia-acuerdan-en-la-audiencia-nacional-por-primera-vez-una-sentencia>

batean, baieztatu zuen fiskaltzaren, terrorismoaren biktimen elkarteek osatutako akusazio partikularren eta 04/08 sumarioan akusatutakoaren artean lortutako akordioa euskal presoekin ere aplikatu zitekeen "eredua" zela⁵.

Eusko Jaurlaritzak bat etorri zen balorazio honekin. Izan ere, akordio hauek gauzatzea publikoki aldeko jarrerarekin baloratu zituen. Funtsean, akordio haiek Hitzeman Programak urte bete lehenago adierazten zuen bidea balioestera zetozen, oinarri gisa indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen bidez eragindako minaren bidegabekeria aitortzea zuena. Dena den, gertaera berritzaile haiek epe motzean ez zuten eraginik eduki.

Ezker abertzalea espreski aldendu izan da ETaren terrorismotik bi testuingurutan: Sortu legeztatze-estatutueta eta Ezker abertzaleko buruzagien aurkako aipatutako epaiketetan, Segurako Mahai Nazionalaren kasuan eta Ekin kasuan, hain zuzen.

Sortuko Estatutuek azaltzen dute erakunde honek bere jardura garatuko duela "indarkeriaren gaitzespenetik ekintza politiko tresna edo helburu politikoak lortzeko método gisa, edozein delarik bere jatorria edo izaera; gaitzespen honek ETA erakundea barne hartzen du argi eta garbi, pertsonen eskubideak eta oinarrizko askatasunak urratzen dituzten jokabideen subjektu aktibo den neurrian".

Hau baliozkoa izan bazen ere ustezko hauetan aplikatzeko, ez da aplikatzen edozein presok bere gizarte-ratze-prozesua errazteko formula gisa erabili dezan. Ez hori bakarrik, Eusko Jaurlaritzak kritika gogorrak jaso zituen iraganean giza eskubideen urraketa ekarri duen edozein deliturekiko urruntze kritikoa adieraztea beharrezkoa dela planteatu duelako.

(...)

6. Desegitea

(...)

6.3. Aldaketa-ameskeriak espetxe-politikan

Armagabetze- eta desegite-prozesuekin paraleloan, espetxe-politikaren gaiak zabalik jarraitzen zuen. Merezki du eztabaida honen eboluzioan geldiaraztea, egoera politiko orokorrean eta indarkeriaren eta bikidetzaren normalizazioaren amaiera ordenatuaren prozesuan duen eraginagatik.

2013tik Iñigo Urkullu Lehendakariaren eta Mariano Raxoi Presidentearen artean edukitako bilera guztietan, beti hitz egin izan zen espetxe-politikaz. 2017ko martxoaren 14an egindako bileran, ETaren armagabetzearen aurreko asteetan, Lehendakariak dokumentu hauek helarazi zizkion Presidenteari:

- Espetxe politika berbideratzea partekatzeko akordio-proposamena (B.9. eranskina);
- Euskal presoak Presondegietan berkokatzeko irizpide-proposamena (Bertsio laburtua) (B.10. eranskina);
- Euskal presoak Presondegietan berkokatzeko irizpide-proposamena (Bertsio zabala) (B.11. eranskina);
- SAREren 1. dosierra preso gaixoen inguruan⁶;
- SAREren 2. dosierra preso gaixoen inguruan⁷.

5 <https://www.youtube.com/watch?v=Swl5rxvclSY>

6 <http://sare.eus/wp-content/uploads/2015/11/preso-gaixoak-eusk.pdf>

7 <http://sare.eus/wp-content/uploads/2015/11/liburuxka-datuak.pdf>

Une horretatik aurrera, espetxe-politikan bi gobernuen arteko harremanek honako ibilbidea izango zuten:

·2017ko uztailaren 19a. Lehendakariaren eta Presidentearen arteko bilera berria. Bilera honetan berrikuntza garrantzitsu bat gertatzen da. Raxoi Presidenteak bi Gobernuen artean solaskidetasun diskretua eta egonkorra zabaltzea onartu zuen espetxe-politikan aldaketak adoste aldera. Raxoi Presidenteak izendatutako solaskidea Angel Yuste izan zen, Espetxeetako Idazkari Nagusia, eta Lehendakariak izendatutakoa Jonan Fernandez Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkari Nagusia.

·2017ko uztailaren 28a. Akordio haren ondorioz, berehala lehen bilera bat egin zen izendatutako bi solaskideen artean, espetxe-politikaz aritzeko. Bilera Lermako hotel bateko kafetegian egin zen. Eusko Jaurlaritzak proposatu zuen lanerako eskema –martxoan aurkeztutako proposamenen arabera–, bi eremuetan banatu zen: egiturazko aldaketak (hurbiltzea eta gizareratzea) eta kasuen kudeaketa, horrela egituratuta: Langraitz Bideko presoak, Hitzeman proposamenari lotutako presoak, publikoki ezagunak ez ziren preso gaixoak, 70 urtetik gorako presoak, adin txikiko seme-alabak zituzten emakumezko presoak eta bere zaugarritasun-egoeragatik premiazko kasuak.

·2017 uztailaren 31. Eusko Jaurlaritzako ordezkariak Espainiako Gobernuko solaskideari gutun bat bidali zion uztailaren 28ko bileran ahoz adierazitakoa idatzita berretsiz. Orduetik, komunikazio dinamika jarraia hasten da, telefono deien bitartez, mezu zein bileren bidez.

·2017ko irailaren 7a. Bigarren bilera Madrilen Espainiako Gobernuko ordezkariaren eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariaren artean. Espainiako Gobernuak ez zegoen prest egiturazko aldaketak proposatzeko espetxe-politikan; baina prest zegoen kasuz kasu lan egiteko. Gaixo psikiko edo egoera zaugarrian zeuden pertsonen kasuak identifikatu ziren. Solaskidetasuna sendotu egin zen. Bide bat zabaltzen ari zela zirudien. Sara Majarenas presoaren kasuan konponbide azkar eta epe motzekoa aurreikusi zen.

·2017ko urriaren 9a. Hirugarren bilera bi solaskideen artean Madrilen. Azken hilabeteetan jorratutako guztiarekin balaztada atzematen da. Bilera horretatik aurrera, Espainiako Gobernuko Espetxeetako Idazkari Nagusia identifikatutako kasuen kudeaketan iheskor agertzen da. Irekitako aldaketa-aukera guztiak kasu batzuen eta besteen artean geldiarazi egiten dira Kataluniako krisiak aurrera egitea ez duela uzten argudiatuta.

·2018ko urtarrilaren 17a. Laugarren bilera Madrilen Angel Yuste eta Jonan Fernandezaren artean. Aurreko bileratik, dei eta mezuen trukaketan agiaztatu ahal izan zen geldialdia berresteko balio izan zuen bilerak.

Data horietarako, desegitea aditzera emango zuen ETaren hurrengo erabakiari buruzko informazioak konfirmatuta zeuden. Testuinguru honetan, urtarrileko bileran Espetxeetako Idazkari Nagusiak onartu egin zuen bere gobernuak ez zuela une hartan inongo mugimendurik egingo, bi edo hiru hilabete beranduago, ETaren desegitea baieztatuta ondoren, baldintza hobea agotatu egingo zuela adieraziz.

2017ko udatik 2018ko hasierara, espetxe-politikan aurrerapen txikiak egin ziren. Kasu guztietan erabaki judizialekin izan zuten zerikusia, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren edo Arartekoaren ekiteagatik: Langraitz Bideko presoek kaleratzeak, Hitzeman Programari lotutako pertsonen hobekuntzak, Ibon Iparragirre Aita Menni Ospitalera ekartzea eta Sara Majarenasen lekualdaketa iragankorra Donostiara. Espetxe-erakundeek aldetik bi presoek espetxe-aldaketa eman zen soilik horietako baten testuinguru psikologiko hobea errazteko.

Hala ere, hau ez zen berrikuntza bakarra izango espetxe-politikan. Aldaketa esanguratsuenak Macron Presidentearen buru zuen Frantziako Gobernu berriaren eskutik etorriko zein.

Hélène Davo, urte askotan Frantzia eta Espainiaren arteko Epaila antiterrorista izan zen Auzitegi Nazionalean. Frantziako Justizia Ministro berriak Davo bere taldean hartu zuen Ministerioaren hirugarren pertsona bezala eta Frantziako ETaren presoek gaia kudeatzea eskatu zion. Hélène Davok eta Jonan Fernandezek harreman ona kateatu zuten epaileak Madrilen lan egin zuen garaian.

2017ko uztailaren 14an, Hélène Davo harremanetan jarri zen Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkari Nagusiarekin telefonoz. Bere gobernuak Frantziako ETaren presoenganako espetxe-politikan joera berria zuela adierazi zion. Hizketaldi horrek bilera bat ekarri zuen abuztuaren 22an Frantziako Justizia Ministerioaren egoitzan Parisen.

Modu honetan, Frantziako ordezkariak Euskadiko ordezkariari adierazi zion, iraila eta urria bitartean, DPS kalifikazioa aldatzeko asmoa zuela Frantzian zeuden ETako preso ia guztiei. DPS kalifikazio hau (Bereziki Seinalutako Atxilotutuak) espetxeratze-baldintza gogorak mantentzen ditu bereziki arriskutsutzat jotzen dituen pertsonentzat.

Horrekin batera, Frantziako Gobernuaren nahia zen hurbilketan urrats batzuk ematea, momentuz urrats mugatuak. Mont de Marsan-eko espetxera ondorengo baldintzak betetzen zituzten 17-18 pertsona eramatea aurreikusten zuen: hurbilketa eskatu izana modu indibidualean, 2018 eta 2019an betetzea euren zigorrak eta bereziki kasu nabarmenak edo hilketa larriak ez edukitzea.

ETAren desegitea berretsiz gero, anbizio handiagoko aldaketak planteatu zitzaizkeen Frantziako Gobernuak. Horrekin batera, Eusko Jaurlaritzarekin eta Espainiako Gobernuarekin prozesu hau elkarrizketarekin eta gardentasunarekin garatzeko borondatea esplizitatuko zuten.

Frantziako Justizia Ministerioaren asmoa ere bazen Iparraldeko taldeak informatuta edukitzea. Puntu honetan egoera delikatu eman zen, talde hauek Frantziako Justizia Ministerioarekin zeukaten harremanaren kudeaketa publiko ez oso zuhurraren ondorioz eta seguruenik baita zenbait ordezkariak gehiegizko protagonismoa bilatu izanagatik.

Artisauek abenduaren 9rako manifestazio bat deitu zuten Parisen Frantziako espetxe-politikaren aldaketa aldarrikatzeko. Testuinguru honetan eta hilabete horietan, *Artisauek* Frantziako Justizia Ministerioarekin zeukaten harremanaren inguruan gehiegizko erakustaldi publikoa egiten ari ziren eta, gainera, gertatuko ziren aldaketak puztu egiten zituzten iragarpenak egiten ari ziren.

Denbora epe motz batean hurbiltze orokorra iragartzen ari ziren. "Arrakasta" hori Frantziako Gobernuarekin egindako kudeaketa "negoziatzaileei" egozten zizkietela izan zen delikatuena. Hau, logikoki, aldaketaren aldeko baldintzak sortu ez ezik zailtasunak zekartzen. Frantziako Gobernuak Eusko Jaurlaritzari helarazi zion ezin zituztela aldaketa esanguratsuak egin presio bati edo manifestazio bati erantzunez, are gutxiago hauek "negoziatio" baten ondorioz aurkezten baldin baziren.

Eusko Jaurlaritzak Ezker abertzalearen inguruan zuhurki ohartarazi zuen Iparraldeko taldeek Frantziako Justizia Ministerioarekin zeukaten harremanari buruz egiten ari ziren kudeaketa Frantziako Gobernuak eman nahi zituen urratsak zaildu edo mugatu zitzaizketela. Lehendabizikiko datua zen abendura bitartean DPS kalifikazioa zazpi presori baino ez zitzaizela aldatu, aurreikuspena praktikan ia guztiei kentzea baldin bazen ere.

2018ko lehen hilabeteetan, hurbilketak gauzatzeko Frantziako Gobernuaren asmoaren filtrazioak eta Iparraldeko taldeen berrespenak beraiekin "negoziatutako" neurri gisa eta baita Frantziako presoek kolektibo osoa hartuko zuela adierazteak ere zailtasun berriak ekarri zituen, besteak beste, Espainiako terrorismoaren biktimen elkartearen salaketa.

Urtarrilaren erdialdean, Eusko Jaurlaritzak Frantziako Justizia Ministerioarekin lagundu egin zuen terrorismoaren biktimen elkarte nagusiekin elkarrizketa-erronda prestatzen Frantziako Gobernuak eman nahi zituen urratsak ez blokeatzen laguntzeko. Ondorengo asteetan, biktimen elkarteekin egindako errondak emaitza ona eman zuen. Orduetik Frantziako Gobernuak oso abiadura geldian jarraitu zuen Mont de Marsan-eko espetxera presoak hurbiltzen. 2018ko abendura arte, 24 preso hurbildu zituzten.

Presoei eta EPPK kolektiboari dagokionez, armagabetzetik, 2017ko apirilean, desegitera, 2018ko maiatzean, erabaki garrantzitsua eman zen. Hala ere, praktikan honek ere ez zuen jauzi kualitatiboa ekarriko epe motzean. Adierazi den bezala, kolektiboak espetxe-bide legalak onartzeko gogoia adierazi zuen lehen aldia 2013ko abenduan izan zen.

Hori horrela izan arren, dirudienez, presoek eztabaida hiru urte beranduago hasi zen formalki, 2016ko abenduan, oinarrizko txostena banatzearekin. Prozesu hau 2017ko ekainean amaitu zen. Parte-hartzea %87,2koa izan zen, EPPK kolektiboaren arabera. %73,4a oinarrizko txostenaren alde agertu zen. Erabakia 2017ko uztailaren 1ean⁸ eman zen ezagutzera jendaurrean.

8 https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2017-07-01/hemeroteca_articles/eppk-ren-agiria-euskal-jendarteari-4

Praktikan, hartutako erabakiak aldaketa garrantzitsua zekarren: une hartatik aurrera, argi berdea ematen zitzaion preso bakoitzak bakarkako irtenbideak bilatu ahal izateari, legaltasuna oinarri hartuta. EPPK kolektiboaren jarrera historikoak bakarkako irtenbideak bilatzeari uko egiten zion irtenbide kolektiboak baino ez zirelako onargarriak.

Bi “ferro gorri” ezartzen dira: “salaketa” eta “damua”. Honek nolabaiteko harridura sortu zuen zigor- eta espetxe-legezketasunak gizarteratzean ez duelako bi kontzeptu hauetako bat bera ere aipatzen. Hala ere, “ferro gorri” bezala fokalizatzeak, zenbait diskurtso politikoen argudioa bezala kokatzen lagundu zuen.

Presoen kolektiboak hartutako erabakia pisu handikoa izan zen, zalantzarik gabe. Dena den, 2018ko urrira arte, 46 presok bakarrik tramitatu zuten gradu-aldaketaren eskaria. Horri erantsi behar zaio haietako gehienak Espetxeetako Tratamendu Batzordeak edo Espetxe Zaintzarako Epategi Nagusiak ukatuak izan zirela.

Eranskinak

B. eranskina. Espetxe-politikari
buruzko txostenak

B.1. Hitzeman Programa

Hitzeman, legezko bidea Presoak birgizarteratzeko legezko prozesuak laguntzeko programa

2014ko iraila

Sarrera

2013ko azaroaren 26an, Eusko Jaurlaritzak “2013-2016 Bake eta Bizikidetzeta Plana. Gizartea elkartzea helburu” onartu zuen. 18 ekimenen artean eta espetxe-politikaren eta gizarteratzearen arloan, Hitzeman Programa garatzea aurreikusten du. Horri jarraiki, Eusko Jaurlaritza prest dago presoak gizarteratzeko legezko prozesuak erraztera bideratutako programa bat bultzatzeko.

Hitzeman Programak Espainiako Konstituzioak jasotzen duen gizarteratze-printzipioaren espiritua eta edukia ditu ardatz. 25.2. artikulua araberako askatasunaren galerarako zigorrak presoek berreziketara eta birgizarteratzera jo behar dute. Konstituzioaren azalpen horrek, bada, balio eta garrantzi berezi eta nabarmena hartzen du ETaren terrorismoa behin betiko etetearen testuinguruan, egoera horrek mota horretako delituak berriro egitearen mehatxua desagertzea baitakar.

Ondorioz, egokiak dira gizarteratzeko politikak hedatzeko baldintza soziopolitikoak. Gainera, horri gehitu behar zaio legezko, adostutako eta birgizarteratzera bideratutako espetxe-politika bat izateak bizikidetzaren gizarte-normalizazioan izan dezakeen eragin erabat positiboa.

Bestalde, Gernikako Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dizkion konpetentzia eskusiboen artean, espetxeen konpetentzia dago. 10.14. artikulua araberako, erkidego honi dagokio “Adinera heldugabeen babes eta tutoregorako, gartzelatzeko eta gizartean berrintegratzeko erakunde eta etxeen antolaketa, erregimena eta funtzionamendua, gai zibil, gaztigu eta gartzelazko legegintza orokorrak dioenaren arauera”. Nolanahi ere, euskal erakundeek behin eta berriro eskatu badute ere, konpetentzia hori ez da oraindik transferitu.

Hitzeman ekimena egungo konstituzio-, arau- eta konpetentzia-esparruaren mugen eta aukeren anibalentzian kokatzen da. Legediak gure gizarteak bizi duen egoera berri honekin bat datorren espetxe-politika bat sustatzeko zer eskaintzen duen arakatzeko erabakitazun irmoa du Eusko Jaurlaritzak. Erantzukizunez eta lidergoz sustatzen du ekimen hau, bake eta bizikidetzaren arloan euskal herritarrekin konprometituta baitago.

Gai honi lotuta Eusko Jaurlaritzak izango duen egitekoa 2013-2016 Bake eta Bizikidetzeta Planean jasota dago, eta bi arlotan hedatuko da. Batetik, egun bere konpetentzia-esparrutik at dagoen horri heltzeko proposamen-ekimenak; eta, bestetik, bere konpetentzia-esparrutik gara ditzakeen ekimen propioak:

·**Proposamenaren esparruan** eta akordio berriak lortzeko helburuarekin, Eusko Jaurlaritzak honako aldarrikapen hauek planteatzen ditu:

-Espetxeen konpetentzia Eusko Jaurlaritzari transferitzea, Gernikako Estatutuak zehazten duena betez (10.14. art.).

-Presoak beren bizilekuetatik gertu dauden espetxeetara hurbiltzeko prozesu bat egituratzea, hala zehazten baitu espetxe-legediak (Espetxeei buruzko Lege Organikoaren 12.1. art.).

-Zehaztutako betekizunak betetzen dituzten presoek eskubidez dituzten espetxe-oinura arruntak normaltasunez eta tratu-berdintasunez aplikatzea (Espetxeei buruzko Erregelamenduaren 4.2. art.).

-Bizikidetzeta Tailerrei, Berrezarpen Topaketei eta beste prozesu batzuei jarraitutasuna ematea, Biktimei buruzko Europako Zuzentarau berriak horren ildotik dioenari jarraiki.

-Gaixo dauden presoentzako konponbide humanitarioak ezartzea, Espetxeei buruzko Erregelamenduaren 104.4. artikulua aplikatuz.

-Jarduera politikoeekin (lehen legez kanpokoak zirenak, baina orain normalizatuta daudenak) lotutako zigorrak dituzten presoen egoerari heltzeko legezko neurriak aplikatzea, Espetxei buruzko Erregelamenduaren 100.2. artikulua oinarri hartuta.

·**Ekimen propioaren esparruan**, Eusko Jaurlaritza honako ekimen hauek gauzatzen saiatuko da:

-Proposamen eta ekimen zehatzak aurkeztuko ditu, espetxe-politikan Espainiako Gobernuarekin batera akordioak eta konponbideak bilatzeko nahia baitu.

-Aktiboki lan egingo du Eusko Legebiltzarrekin, Legebiltzarreko taldeekin eta, bereziki, Bake eta Bizikidetzari buruzko Batzorde Txostengilearekin, arlo honetan adostasun soziopolitiko zabalak lortzeko asmoz.

-Presoak gizarteratzeko prozesuak sustatzeko programa bat prestatuko du, espetxe-legediak eta Gernikako Estatutuak gizarteratzearen arloan eskaintzen dituzten aukerak aztertu eta bultzatzeko.

Dokumentu hau, bada, azken ekimen hori (Hitzeman Programa) garatzera bideratuta dago. Bi zatitan antolatuta dago: oinarriak eta edukia. Nabarmendu behar da, dena den, elkarrizketari eta akordioari irekitako proposamen bat dela. Hori dela-eta, Hitzeman Programa jendaurrean aurkeztu ondoren, bost hileko aldia izango da edukiari buruzko adostasunak lortzeko.

Aldi horretan, elkarrizketak eta harremanak izango dira norabide guztietan, dokumentua hobetzeko ekarpenak eta iradokizunak jasotzeko, bai eta programari atxikiko zaizkionak bilatzeko ere. Eusko Jaurlaritzak nahi du hau ez izatea soilik gobernu-ekimen bat, baizik eta gizarte-proiektu bat ere izatea, erakunde publikoen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzaren emaitza.

Lehen zatia

1. Hitzeman Programaren oinarriak

Hitzeman Programa gizarteratzearen tresna prosozial, legal eta konstituzionalean sakontzeko aukera bat da. Nolanahi ere, gogoratu behar da oso zeregin zail eta konplexua dela, eta oinarri etiko, demokratiko eta legal sendoetatik heldu behar zaiola. Oinarriok hiru ataletan sailkatzen dira: programaren abiapuntu kontzeptuala, printzipioak eta helburuak.

1.1. Hitzeman Programaren abiapuntu kontzeptuala

Hitzeman Eusko Jaurlaritzak bultzatutako programa bat da, eta presoak birgizarteratzeko legezko prozesuak laguntzea du xede. Programa honek abiapuntutzat duen oinarriko kontzeptua elkarrekotasuna da. Garapenean, bi ikuspegi gurutzatzen dira: Hitzeman programak presoaz behar duena eta programak hari eskaintzen diona. Elkarrekotasunaren alderdi bikoitz horrek egituratzen du, bada, Hitzeman Programaren edukia eta zentzu.

·Presoaz behar dena: gizarte-ekarpeneko legezko ibilbide bat

-Lege-esparruak gizarteratze-prozesuak garatzeko eskaintzen dituen bideak eta prozedurak jarraitzea.

-Hitzeman Programak jasotzen duen bake eta bizikidetzarako ekarpeneko ibilbideetako bat garatzea.

·Presoari eskaintzen zaiona: laguntza-programa bat

-Programak barne hartzen ditu gizarteratze-prozesuei buruzko aholkularitza pertsonala eta legala, eta laneratzeko eta etxebizitza bat eskuratzeko laguntza.

-Ibilbide pertsonala (hori ibiliz gero, birgizarteratze-prozesuari buruzko aldeko txostena egingo da) egin izana ziurtatuko dute euskal erakundeek.

1.2. Hitzeman Programaren printzipioak

Lau printzipiok zuzentzen dute prozesu hau, eta, gainera, segurtasun etiko, demokratiko eta legala ematen diote Hitzeman Programari.

·**Egia eta memoria.** Presoak gizarteratzeko edozer prozesuk bateragarri izan behar du gertatutakoa argitzeko konpromisoarekin eta iraganaren memoria kritikoa eraikitzearekin.

·**Legezketasuna eta bizikidetzaren.** Birgizarteratzeko prozesuak esparru konstituzionalak eta espetxe-legaltasun arruntak eskaintzen dituzten aukeren barruan bideratuko dira, espetxe-politika bizikidetzaren politikaren beste aktibo bat izatea bilatuz.

·**Adostasuna eta progresibotasuna.** Presoak eta iheslariak gizarteratzeko edo birgizarteratzeko legezko prozesuak bultzatzeko edo laguntzeko edozer prozesu elkarrizketan, adostasunean eta progresibotasunean oinarrituko da.

·**Konpromisoa eta eskuzabaltasuna.** Ekimen honek bi balio bateratu behar ditu: konpromisoa eta eskuzabaltasuna. Hitz konprometitua behar du: "Hitzeman". Eta gizarte- eta politika-eskuzabaltasuneko espiritua landu behar du, bizikidetzaren etorkizuna helburu.

1.3. Hitzeman Programaren helburuak

Horiek oinarri hartuta, Hitzeman Programaren helburuak bateratu egiten diren hiru norabidetara bideratzen dira. Balio positiboa sortu nahi dute biktimen errealitatean, gizartean eta presoan bizitzan.

·**Biktimei dagokienez:**

- Konponketa moraleko hitzak eta ekintzak eskaintzea biktimei, pairatu zuten bidegabekeriaren aitortzean oinarrituta.
- Iragana kritikoki berrikusteko eta giza eskubideen urraketa arduraz aitortzeko prozesu soziopolitikoak egiteko bide ematea.

·**Gizarteari dagokionez:**

- Bake eta bizikidetzaren finkatzen laguntzea, presoek egin dezaketen ekarpenetik.
- Espetxe-politika bizikidetzaren politikaren parte izatea lortzea, aplikatu behar den "denboraren gizarte-errealitateari" jarraiki.

·**Presoei dagokienez:**

- Hausnarketa autokritiko, konponketa, gizarteratze eta/edo birgizarteratzeko prozesu etikoak laguntzea eta indartzea.
- Estaldura legal, sozioasistentzial eta materiala ematea, birgizarteratze-prozesuak finkatzeko.

Bigarren zatia

2. Hitzeman Programaren edukia

Puntu honetara arte azaldutako oinarriek eta Eusko Jaurlaritzak dituen aukera, konpetentzia eta baliabideek definitzen dute jarduera-esparrua. Funtsean, Eusko Jaurlaritzak errealitatearekin eta bere konplexutasunarekin hartu nahi duen konpromisoak definitzen du jarduera-esparru hau. Erantzukizun- eta lidergo-konpromiso bat da, bizikidetzaren normalizatzeko bidean aurrera irimo egin nahi duen gizarte batekin hartutakoa.

2.1. Abiapuntua

Presoek pertsonalki eta borondatez egingo dute bat Hitzeman Programarekin, eta, hala nahi izanez gero, hasierako adierazpen bati atxikiko zaizkio. Testu honek bakea eta bizikidetzaren behin betiko finkatzen laguntzeko konpromiso bat barne hartuko du, funtsean. Hori da abiapuntua. Inskripzio horren ondoren, Eusko Jaurlaritzak programa abiaraziko du; programak, bada, bi alderdi ditu: programak behar duena, hots, ibilbide pertsonal bat; eta eskaintzen duena, alegia, erakunde-estaldura.

2.2. Ibilbide pertsonala

Hitzeman Programak bakea eta bizikidetzaren laguntzeko oinarritzko lau ibilbide aurreikusiko ditu, eta terrorismo-delituengatik zigortu dituzten presoek horiek behar bezala hartzeak erraztu edo arindu egingo ditu birgizarteratze-prozesuen aldeko txostenak. Ibilbideak presoek espetxean daudela hasiko dira, jakina. Preso ohiek ere parte hartu ahal izango dute

prozesuotan, baldin eta programaren parte izan nahi badute. Ondorengo fase batean, programa hau iheslarien gizarteratzeari aplikatzea aztertuko da.

Ibilbide hauen guztien ardatz komuna beren funtsak eratzen du: konpromisoa eta erantzukidetasuna. Batetik, bizikidetzaren gizarte-normalizazioaren erantzukidetasuna bere gain hartzen duen gizartearen konpromisoa. Eta bestetik, orainaren eta etorkizunaren erantzukidetasuna, iraganaren hausnarketa kritikoa oinarri hartuta, beren gain hartzen duten presoek konpromisoa. Oinarri horiek bere izenean sintetizatzen dira: "Hitzeman". Hitz ematea erantzukizuna eta konpromisoa hartzea da.

Lau ibilbideak

Lau ibilbide hauek lau proiektu izango dira, eta horiek erakunde kolaboratzaileekin sinatutako hitzarmenen arabera garatuko dira:

1. Konpromiso akademikoko ibilbidea, unibertsitate eta bestelako erakunde akademikoekin lankidetzan.
2. Elkartze-konpromisoko ibilbidea, gizarte zibileko erakundeekin lankidetzan.
3. Erakunde-konpromisoko ibilbidea, udal eta bestelako erakundeekin lankidetzan.
4. Konpromiso solidarioko ibilbidea, solidaritate-proiektu zehatzekin lankidetzan.

Ibilbideok bateragarriak izango dira beste jarduera batzuetan (mintegiak, tailerrak, berrezarpen-topaketak eta berariazko prestakuntzak) borondatez parte hartzeko ekintza osagarriekin.

Batzorde Kudeatzailea

Hitzeman Programak Batzorde Kudeatzaile bat izango du. Eusko Jaurlaritzak sortuko du, eta diziplina anitzeko askotariko ibilbide aintzatetsia duten pertsonen talde batek osatuko du. Presoak Hitzeman Programan izena eman ondoren, Batzorde Kudeatzaileak elkarrizketa bat proposatuko du horrekin eta bere familiarekin, bai eta ibilbide, eduki eta bere errealitatera egokitutako lan-programa bat ere, aurretik zehaztutako irizpide-koadro bat oinarri hartuta.

Une horretatik aurrera, ibilbideetako batekin bat egin nahi duen presoak ibilbidea babestuko duen erakundearen laguntza izango du, eta horretako pertsona bat arduratuko da bere jarraipenaz.

Amaierako proiektua eta irizpena

Ibilbide bakoitzaren helmuga horren amaierako proiektua izango da. Jarraitutako ibilbidearen amaiera gisa, ekarpen konstruktibo bat egin beharko diote gizarteari. Prozesuaren amaieran ziurtatu nahi da aurrez definitutako ibilbidea jarraitu duen pertsona gai dela modu konstruktiboan gizarteratzeko, bake eta bizikidetzarekiko konprometituta dagoelako, eta,aldi berean, iraganean, orainean eta etorkizunean giza eskubideen urraketaren kontra dagoelako, eta biktimei eragindako minaren aitorpen autokritikoa egiten duelako.

Aurreikusitako prozesua amaituta, Batzorde Kudeatzaileak ibilbidea nahiz ondorioak aztertuko ditu, eta gizarteratze-prozesuaren aldeko edo kontrako irizpena egingo du. Azkenik, Eusko Jaurlaritzak ziurtapen hori baliozkotuko du, eta eskumena duten erakundeek helarazi.

2.3. Erakunde-estaldura

Hitzeman Programak laguntza praktikoa eta materialeko estaldura eskaintzen die horretan parte hartzen duten presoek. Laguntza-programak hiru jarduera-ildo izango ditu: aholkularitza pertsonala, laneratzeko laguntza eta etxebizitza bilatzeko laguntza. Hiru estaldura-ildo horiek garatzeko, hitzarmenak sinatuko dira erakunde kolaboratzaileekin, eta hasiera batean, bi urtekoak izango dira.

1. Aholkularitza pertsonala eta legala, bai eta laguntza psikologikoa ere, birgizarteratzeko horren beharra dutenentzat, erakunde espezializatuekin lankidetzan.
2. Laneratzeko laguntza, birgizarteratzeko horren beharra duten preso ohientzat, Lanbide, enpresa-erakunde eta sindikatuekin lankidetzan.

3. Etxebizitza bilatzeko laguntza, birgizarteratzeko horren beharra duten preso ohientzat, Etxebide eta udalekin lankidetzan.

Laguntza-ildo horietako edozein presoak edo bere familiak eskatuta hedatuko da. Batzorde Kudeatzaileak eskaera bakoitza aztertuko du, eta kasu bakoitzean egokiena den erantzuna proposatuko du.

2.4. Amaierako behaketak

Hitzeman Programaren edukia ez du ohiz kanpoko erantzun bat. Garapen logiko bat da, Konstituzioaren eta legearen hitz eta espiritua, gizarteratze arloko jardunbide egokiak eta nazioarteko gomendioak ardatz dituenak. Hitzeman Programak Langraiz Bidea izenekoaren esperientziaren balio osoa biltzen du, esate baterako, bai eta aurreko esperientzia, lekukotza eta hainbat preso-taldek egindako gizarteratze-ahaleginena ere.

Hitzeman Programa bat dator bat-batean, gainera, bestelako presoekin egiten diren gizarteratzeko laguntza-politikekin; horiek, bada, espetxeek eta espetxe-zaintzako epaitegiek onartzen dituzte, bai eta espetxeetako tratamendu-batzordeek eta horiekin lan egiten duten gizarte-erakundeek ere. Idatziz irudikatu ohi dituzte lankidetzahitzarmenetan.

Era berean, oso garrantzitsua da nabarmentzea Hitzeman Programa bat datorrela gizarte arloko Europako joerekin, eta biktimei buruzko zuzentarau komunitarioak aplikatzen ditu. Zehazki, gaizkileek biktimekiko dituzten erantzukizunei dagokienez, Hitzeman Programak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/29/EB Zuzentaraua (delituen biktimeen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxienezko arauak ezartzen ditu) garatzen du.

Hitzeman Programak ez du ezer bermatzen, ez da formula magiko bat, eta ez du arazo konplexu eta poliedriko baten konponketaren itxaropen faltsurik sortu nahi. Eusko Jaurlaritzaren helburua bide legal, bideragarri eta errealista bat irekitzea da, sozial eta politikoki, modu partekatu, konstruktibo eta progresiboan bidean aurrera egiteko. Gizarteratzearen helburu konstituzional eta prosoziala lortzeko, eta gizarte elkartzeara eta bizikidetzara normalizatzea lortzeko bide bat.

B.2. Zuzen Bidean Proposamena

Zuzen Bidean Proposamena

ETA desagertu ostean, zuzenbide penalean eta espetxe-zuzenbidean normaltasun egoera birmoldatzeko hogeit hamar proposamen, orobat bizikidetzaren normalizazio sozial eta politikoan laguntzeko

2014ko azaroa

Sarrera

Jurista ugari eta sentikortasun askokoek adierazi dute, zuzenbide penalari eta espetxe-zuzenbideari dagokionez, ETAREN terrorismoaren aurkako borroka azken urteetan ezohikoa zen interpretazio-jarduera baterantz desplazatu zela eta zenbait lege-aldaketa egin zirela. Eusko Jaurlaritza iritzi berekoa da.

Prozesu hori, pixkanaka gertatu zen arren, 2003an onartutako zenbait lege organikoren onarpenarekin iritsi zen gorengo mailara. Aldaketa horiek muga lausoak proposatu zituzten terroristatzat tipifikatu beharreko jokabideetan. Horiek prozeduraren garantiak murrizten zituzten, zigorrak biziarteko kartzelatik gertu geratzen diren maximoetaraino luzatzen zituzten edota, praktikan, berriro gizarteratzeko aukera konstituzionala blokeatzen zuten.

Orain, behin ETAREN terrorismoaren mehatxua desagertuta dagoenez, beharrezkoa da normaltasuna berrezartzea zuzenbide penalean eta espetxe-zuzenbidean. Egokiak liratekeen beste gai batzuk alde batera utzita, berrerortze-arriskurik ez egotea nahikoa argudio da, aldaketa eta jardunbide zalantzarriak berrikusteko, nolana ere, erabat desberdina zen errealitate batean justifikatu eta eraiki zirelako.

Eusko Jaurlaritzaren iritziz, zuzenbide penala eta espetxe-zuzenbidea normalizatzea lehen-tasunezkoa da, bi arrazoi direla eta, printzipio demokratiko batengatik eta helburu demokratiko batengatik:

·Zuzenbide penalean eta espetxe-zuzendaritzan zuzenbide eta askatasun sistemako oinarriko estandarrak osatzen dituzten berme eta minimoetara itzuli behar gara, hori oinarriko printzipio demokratiko bat baita, alegia, demokraziaren irmotasun eta sendotasunaren oinarri den konpromiso irmo bat.

·Arlo penaleko eta espetxe-arloko normaltasuna adostasun sozial bat da eta, halakorik ez egotea, distortsio-faktorea da. Espetxe arloan eta arlo penalean normaltasuna berreskuratzea helburu demokratiko bat da, erabakigarria baita gure gizarteko bizikidetzaren normalizatzeko.

Dokumentu honen ekarpena arlo penal eta espetxe-arloan normaltasun egoerara itzultzen laguntzea da, orobat bizikidetzaren sozial eta politikoaren normalizazioan laguntzea. Bi bloketan aurkeztzen diren 20 proposamen zehatz ditu: legea aldatzea eskatzen ez duten espetxe-politikako hamar aldaketa-iradokizun; eta arlo penala eta espetxe-arloa legez aldatzeko hamar iradokizun. Honen edukiak Eusko Jaurlaritzak pasa den urriaren 1ean aurkeztu zuen Hitzeman Programa, berriro gizarteratzeko prozesuak sustatzeko helburua duena, osatzen du.

Zuzen Bidean proposamena deritzo, funtsean, bidezidorrak alde batera uztea eta zuzenbidearen bidea berriro hartzea iradokitzen baitu. Proposamen-izaera du, eta ez da dokumentu itxia, eztabaida sustatzeko tresna izateko asmoa baitu. Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuarekin gai honi buruzko elkarrizketa bat ireki mahi du, eragile juridikoekin, parlamentu-taldeekin eta gizarte-eragileekin. Elkarrizketa horretan, dokumentu hau izango da abiapuntua eta erreferentzia.

1. Hamar-aldaketa proposamen, legea aldatu gabe, espetxe-politikan bizikidetzaren normalizazio politiko eta sozialean laguntzen dutena

1.1. Transferentzia

Espetxeen eskumena Eusko Jaurlaritzari transferitzea, Gernikako Estatutuaren 10.14 eta 12.1. artikuluetan ezartzen dena betez.

1.2. Hurbiltzea

Presoak beren bizilekuetatik gertu dauden espetxeetara hurbiltzeko prozesua gauzatzeari, hala aurreikusten duelako espetxe-legediak, Espetxeen Lege Organiko Orokorren 12.1. artikuluan. Ez dago Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko (edo horietatik gertu dauden) kartzeletara eramateko legezko oztoporik. Presoen familiekiko gizatasun-neurria litzateke eta, zalantzarik gabe, bizikidetzara normalizatzen lagunduko luke.

1.3. Preso gaixoak

Konponbide humanitarioak ezartzea gaixorik dauden presoentzako, eta kasu larrietan espetxetik ateratzea, Espetxeen Arautegiko 104.4. artikulua aplikatuz.

1.4. Seme-alabak dituzten presoak

Seme-alaba komunak dituzten presoak espetxe berean taldekatzea. Ez dago hori eragozten duen legerik eta gizatasunezko oinarritzako alderdi bat da.

1.5. 70 urte baino gehiago dituzten presoak

Arrazoi humanitarioengatik eta legediarengatik, 70 urte baino gehiago dituzten presoek baldintzapeko askatasuna ematea, Espetxeen Arautegiko 196. artikularekin bat.

1.6. Ohiko eskubideak

Normaltasun eta berdintasunez aplikatzea zuzenbidez aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten presoek, Espetxeen Arautegiko 4.1 eta 4.2 artikuluetan ezartzen den moduan.

1.7. Ilegalizazioengatiko presoak

Espetxeen Arautegiko 100.2. artikuluan oinarrituta, lehen legez kanpokoak ziren eta orain normalizatuta dauden jarduera politikoei erlazionatutako zigorrak dituzten pertsonen egoera jorrazteko legezko neurriak aplikatzea.

1.8. Langrätz bidea

Erantzun instituzional eta ofiziala ematea Langrätz bidea deritzen presoek onartutako konpromisoari, modu argian eta zalantzarik gabe ziurtatu baitute beren posizio autokritikoa eta biktimei eragindako kalte bidegabea onartu baitute.

1.9. Justizia konpontzailea

Bizikidetzara lantegiak eta Leheneratze topaketak instituzionalizatzea, Biktimei buruzko 2012/29 Zuzentarauak ildo horretan adierazten duenarekin bat.

1.10. Hitzeman

Hitzeman Programak adierazten dituen gizarteratze-politikak eta antzekoak adostea, banatzea eta sustatzea eta ekimen horiek garatzea, tartean dauden instituzio desberdinen lankidetzara-erlazioen bitartez.

2. Legea aldatzeko hamar proposamen, zuzenbide penalaren eta espetxe zuzenbidearen arloan normaltasuna berreskuratzen laguntzen dutenak

2.1. Prozesuaren bermeak

•Prozedura Kriminalaren Legea

I. Atxilotze inkomunikatuaren figura desagertzea proposatzen dugu, Prozedura Kriminalaren Legearen 509, 520 bis eta 527 artikulua aldatuz, horietan ezartzen eta gaitzen bada aukera hori. Nazio Batuen Kontari Bereziak, azken txostenean Espainiari eskatu zion atxilotuta-erregimen ezohiko hori desagerraraz zezan, atxilotutako pertsonen giza eskubideei loturiko nazioarteko hitzarmenek debekatu egiten baitute.

II. Giza Eskubideen Kontari Bereziarekin bat, terrorismo-delituak salatzen zaizkien preso prebentiboan aldi baterako espetxearen iraupena murriztea proposatzen dugu. Horretarako, Prozedura Kriminalaren Legearen 504. artikulua aldatu behar da, kautelazko neurrien erregimen orokorraren eraginpean jartzeko. Atxilotu horiek gainerako inputatuekiko

desberdin tratatzea eta horiei sistematikoki erregimen itxi bat inposatzeak arriskuan jarzen dute inozentzia presuntzioaren eskubidea bermatzea (24. artikulua).

III. Komunikazioen sekretutasunari loturiko bermeak berrezartzea proposatzen dugu (eta etxearen bortxazintasuna), Prozedura Kriminalaren Legearen 579. artikulua aldatuz. Izan ere, gaur egungo idazpenak ez ditu betetzen injerentziaren lege-aurreikuspenari loturiko betekizunak, Giza Eskubideen Europako Zuzentarauaren 8. artikulua urratuz (Giza Eskubideen Epaitegiaren Sententzia, 2003ko otsailaren 18a). Urritasun horiek neurriaren egikaritzaren iraupenean eragiten dute, baita atzemandako elkarrizketen transkripzio-prozedura ezartzeko baldintzetan eta epaileak eta defentsak kontrolatzeko egindako grabazioak ukigabe eta osorik kontserbatzeko oharretan ere. Espainiako legedian ez dago horri loturiko xedapenik eta Konstituzio Auzitegiak hala gogorarazi du azken sententzian.

•Nazioarteko organismoek torturaren aurrean egindako eskakizunen aplikazio neurri legalak

IV. Errekonozimendu ofiziala duten nazioarteko instituzioak giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea babesteko behin eta berriz torturari loturik egin dituzten eskakizun, deialdi eta adierazpenei egokitutako tresna legalekin erantzutea proposatzen dugu. Salaketa horiek hiru arrazoitan oinarritzen dira: ez ikertzea, ez prebenitzea eta ez konpontzea. Ondorioz, inplementatu beharreko neurri legalek hiru urritasun horiei erantzun behar diete:

--Ikertzea. Tortura-salaketak bermeekin ikertu behar dira. Legeek, ildo horretan, tortura ikertzeko dauden mekanismoen rola indartu behar du eta, modu osagarrian, Poliziaren aurkako salaketak ikertzeko Batzorde Independenteen figura sortu behar da.

-Aurea hartzea. Nazioarteko instituzioek definitzen dituzten torturari aurea hartzeko neurriek derrigorrezko izan behar dute: inkomunikazio-erregimena desagerrarazi, familiari jakinarazi, kustodia-eremuak grabatu, epaitegi-medikuen presentzia protokolizatu, konfiantzako mediku baten presentzia baimendu...

-Konpontzea Administrazio publikoek torturaren biktimak errekonozitu eta ordaindu behar ditu, giza eskubideen urraketen biktima guztiei dagozkien egiazkotasun, justizia eta konponketa eskubideekin bat.

2.2. Zigorak betetzea

•7/2003 Lege Organikoa, ekainaren 30ekoa, zigorak osorik eta modu efektiboan betetzeko neurri buruzkoa

V. Berrito gizarteratzea sustatzeko neurri espezifikoak hartzea proposatzen dugu, gizarteratzearen kontsakrazio konstituzionalarekin bat, terrorismo-delituen kasuetan, berrito erortzeko arriskua eta mehatxua desagertu direnean. Horretarako, 7/2003 Lege Organikoa indargabetu edo aldatu behar da, 1. artikuluan (lehen, bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren puntuetan) Kode Penalarekin bat kasu hori jasotzeko eta, 3. artikuluan, Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorrearekin bat. Egun idatzita dagoen moduan, eta terrorismo-delituetarako berariaz, 7/2003 Lege Organikoa ez du bermatzen gizarteratze-prozesuak praktikan gauzatuko direnik, nahiz eta presoak konponketako eta autokritikako beharrezko baldintzak bete.

Beste alde batetik, eta beste herrialde batzuetan betetako zigorak metatzeko aukera dela eta, proposatu nahi dugu Europar Batasunaren eremuko elkarren ebazpen judizialak onartzeko, Europako Batzordearen 2008/ 675/JAI Esparru Erabakiari buruz Auzitegi Gorenak 186/14ko epaian emandako interpretazioa erabiltzea.

2.3. Exekuzio penala

•Espetxeen Lege Organiko Orokorra

VI. Aurreko puntuarekin bat, Kode Penalaren esparruan, terrorismo-delituen gizarteratzea sustatzeko neurri espezifikoak onartzea proposatzen dugu, Espetxeen Lege Organiko Orokorrean behar bezala jasota geratzeko moduan. Horretarako, Espetxeen Lege Organiko Orokorrearen 72. artikulua aldatu behar da, gizarteratzearen printzipio konstituzionala bideragarria izateko moduan, berrito erortzeko arriskua modu frogagarrian desagertu denean.

·5/2003 Lege Organikoa, Botere Judizialaren Lege Organikoa, Espetxeen Lege Organiko Orokorra eta Mugape eta Planta Judizialaren Legea aldatzen dituena

VII. ETAREN terrorismo-delituetan berriro erortzeko arriskua desagertu den honetan, delitu horientatik prozesatutako presoan espetxe-zaintzako epaileen eskumena lekuz aldatzea proposatzen dugu, Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentraletik, preso dagoen espetxe bakoitzaren lurralde-esparruko Espetxe Zaintzako Epaitegietara. Horretarako, 5/2003 Lege Organikoan ezarritako xedapenak indargabetu edo aldatu behar dira, espetxe-zaintzaren kudeaketa hasierako egoera naturalera leheneratzeko.

2.4. Zuzenbide substantiboa

·Kode penala

VIII. Zigorren proportzionaltasuna dela eta, Zigor Kodearen 576. artikulua aldatzea proposatu nahi dugu, artikulua hori Konstituzio Epaitegiak uztailearen 20ko 136/99 epaian ezarritakoari egokitzeko eta "jokabide baliokideak" ezabatzeko, giza eskubideetarako Nazio Batuen errelatoreak gomendatzen duen moduan.

IX. Talde armatuko kidegarik gabeko terrorismo-delitua desagerraraztea proposatzen dugu, Kode Penalaren 577. artikulua desagerraraziz, orobat delitu arruntan esparruan talde baten barruan geratzen ez diren indarkeria-jarduerak kokatzea.

X. Gorespen eta apologia delituak desagerraraztea proposatzen dugu, Kode Penalaren 578. artikulua desagerrarazi edo aldatu bidez. Izan ere, interpretazio-mugak hain zehaztugabeak izateak ahuldu egiten ditu adierazpen-askatasunerako oinarrizko eskubiderako beharrezkoak diren babes-bermeak. Biktimen duintasuna eta horien ohorearen aurkako erasoan zigorra erabat babestea proposatzen dugu, hori arautegi administratibo eta zibilen esparruan kokatuz, arlo penalaz kanpoko babesaren bidez.

B.3. Presoak birgizarteratzeko legezko prozesuak laguntzeko Hitzeman Programaren txostenarekin presoer bidalitako gutuna

Jaun-andre hori:

Idazki honekin batera, Hitzeman izeneko proposamena deskribatzen duen dokumentuaren kopia bidaltzen dizuegu. Presoak birgizarteratzeko legezko prozesuei laguntza emateko programa da Hitzeman.

Hitzeman programa Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzaren Planeko ekimen bat da: Jaurlaritzak 2013ko udaberriaren egindako lehen zirraborroan jaso zena, Plan hau, urte horretako azaroan onartu zen, eta orduetik aurrera ari da gauzatzen.

Testuinguru horretan, 2013ko abenduan, EPPK-k zera iragarri zuen: presoek kolektiboak onartu egiten zuela birgizarteratzeko prozesuak gauzatzea, legezko bideak erabiliz (6. puntua), banan-banan eta progresiboki (7. puntua), eta preso bakoitzak hartutako erantzukizuna aztertzeko gertu (8. puntua). Bestalde, Gizarte Foroak eskatu du aurkez daitezela proposamen zehatzak, gai hauen inguruko elkarriketa eta kontsentsua sustatzeko.

Hitzemanen egitekoa da sare sozial eta instituzional bat sortzea, babes eta laguntza eraginkorra emango diona neurria egindako birgizarteratzeko ibilbide bat egin nahi duten presoer, betiere, lege-esparruak eskaintzen dituen aukeren barruan.

Hitzeman Programaren inguruko laguntza-sare horrek berekin izango lituzke, batetik, Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa, eta, bestetik, honako hauen guztien inplikazioa: unibertsitateak, udalak, gizarte zibileko elkarteak, giza-eskubideen arloko nazioarteko erreferenteak, enpresariak, sindikatuak eta hainbat eremutako pertsona ospetsuak.

Ekimen hori aurrera eramateko prozesua konplexua, kontuzkoa eta eztabaidagarria da. Horregatik, zehatziaz, elkarriketaren bidez, kontsentsua bilatuz eta progresiboki kudeatu beharreko ekimena da. Iragan urriaren 2an aurkeztu genion jendeari ekimena; hain zuzen ere, bide horretan pixkana-pixkana aurrera egiteko lehenengo pausua izan zen hori.

Hemendik aurrera, bost hilabeteko epea ireki da, zalantzak argitzeko eta ekarpenak zein iradokizunak jasotzeko. Ahalik eta kontsentsurik handiena lortu nahi dugu gai honen inguruan. Horregatik, zure zerbitzura gauzkazu, Hitzeman Programaren gaineko edozein informazio edo argibide behar baduzu, edo programa horren edukia ekarpenak egin nahi badizkiozu.

Adeitasunez,

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 10a

Bakegintza eta Bizidetzarako Idazkaritza Nagusia
Secretaria General para la paz y la Convivencia
Lehendakaritza / Presidencia

Jaun-andre hori:

Adjunto le remitimos copia del documento que describe la propuesta Hitzeman, el programa de apoyo a los procesos legales de resocialización de personas presas.

El Programa Hitzeman es una de las iniciativas previstas en el Plan de Paz y Convivencia del Gobierno Vasco que estaba ya recogida en su borrador inicial de la primavera de 2013. Este Plan fue aprobado en noviembre del mismo año y que está siendo ejecutado desde entonces.

En este contexto, cabe recordar que, en diciembre de 2013, el EPPK anunciaba en un comunicado que el colectivo de presos aceptaba que los procesos de resocialización se desarrollaran mediante vías legales (punto 6), de modo progresivo e individualizado (punto 7) y con la disposición a analizar la responsabilidad individual que cada preso-a había contraído (punto 8). Por otra parte, el Foro Social ha instado a presentar propuestas concretas para promover el diálogo y el consenso sobre estos temas.

La misión del Programa Hitzeman es crear una red social e institucional que ofrezca respaldo y cobertura eficaz a los/as presos/as que quieren realizar un itinerario personalizado de reinserción en el marco de posibilidades que ofrece el marco legal.

Esa red de apoyo en torno al Programa Hitzeman contará con el compromiso del Gobierno Vasco y con la implicación de universidades, ayuntamientos, asociaciones de la sociedad civil, referentes internacionales de derechos humanos, empresarios, sindicatos y personalidades de diferentes ámbitos.

El desarrollo de esta iniciativa conlleva un proceso complejo, delicado y controvertido. Por este motivo, debe ser gestionada con prudencia, diálogo, búsqueda de consenso y progresividad. La presentación pública de esta iniciativa a la que procedimos el pasado 02 de octubre es sólo un primer paso para avanzar gradualmente en ese camino.

A partir de ahora, se abre un periodo de cinco meses para aclarar dudas y recoger aportaciones y sugerencias. Buscamos el más amplio consenso posible en torno a esta materia. En este sentido, quedamos a su disposición por si necesita cualquier información o aclaración con respecto al Programa Hitzeman, o si desea realizar aportaciones a su contenido.

Atentamente,

B.4. Zuzen Bidean Proposamena zigor- eta espetxe-salbuespena gainditzeko hogeit hamar proposamenekin aurkeztu zuten dokumentuarekin presoei bidalitako gutuna

Jaun-andre hori:

Idazki honekin batera doakizu Zuzen Bidean proposamena aurkezteko dokumentuaren kopia bat.

Proposamen horrek harreman zuzena du Hitzeman programarekin; duela gutxi bidali genizun programa horren informazioa ere.

Zure interesekoa izango delakoan, adeitasunez agurtzen zaitugu.

Jaun-andre hori:

Adjunto le remitimos copia del documento que presenta la propuesta Zuzen Bidean.

Es una propuesta que guarda relación directa con el programa Hitzeman, del que le enviamos, información recientemente.

Esperando que sea de su interés le saludamos atentamente,

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urtarrilaren 21a

Bakegintza eta Bizidetzarako Idazkaritza Nagusia
Secretaria General para la paz y la Convivencia

Lehendakaritza / Presidencia
Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco

B.5. Hitzeman Programaren esperientzia pilotua abian jartzeko Eusko Jaurlaritzak eman beharreko urratsei buruzko informazio-gutuna presoeri

Jaun-andre hori:

lazko urrian gutun bat eta presoak birgizarteratzeko legezko prozesuak laguntzeko Hitzeman Programari buruzko dokumentu bat bidali genizkizun. Ondoren, Zuzen Bidean Proposamenaren inguruko informazioa igorri genizun. Lehendabiziko gutunean, Hitzeman Programa aurkeztu ondoren, 2014ko urriaren 2an, zailtzak argitzeko eta ekarriak eta iradokizunak jasotzeko bost hilabeteko epea zabalduko zela adierazi genizun.

Epe hau amaituta, eta jasotako iradokizunak eta kezkek aztertu ondoren, hurrengo urratsa Hitzeman Programaren esperientzia pilotuaren faseari ekitea izango da. 2015eko ekainetik 2016ko udaberrira luzatuko da, gutxienez. Fase honen emaitzen ebaluazioak programaren abiarazte osoaren bidea zabalduko du.

Legediak eskaintzen dituen aukeren esparruan birgizarteratzeko ibilbide pertsonala egin nahi duten presoeri babes eta estaldura eraginkorra eskainiko dien sare sozial eta instituzional bat sortzea izango da Hitzeman Programaren egitekoa. Sare horrek Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa eta unibertitateen, udalen, gizarte zibileko elkarteen, giza eskubideen nazioarteko pertsona erreferentzialen, enpresarien, sindikatuaren eta arlo desberdinetako pertsona ezagunen inplikazioa izango luke.

Hau bezalako ekimen bat garatzea prozesu konplexu, delikatu eta eztabaidagarria da. Beharrezkoa da pazientziarekin lan egitea gizarteratzearen gaian bide sendoa zabaldu asmoz. Hitzeman Programaren esperientzia pilotuaren faseak bere ezarpenari buruzko ondorio praktikoak ateratzea eta, aldi berean, zuhurtzia eta elkarriketa lagun, mailaka eta norabide guztietan adostasunak bilatzen lan egitea ere ahalbidetuko digu.

Hitzeman Programaren esperientzia pilotuaren fase honen garapenari buruzko informazioa jaso nahi baduzu, jakinarazi iezaguzu gutun bat bidaliz, familiaren bitartez edo egokiena iruditzen zaizun bidea erabiliz. Zure esanetara gaudete. Gure aldetik, espetxe-politikaren alorrean ematen ditugun urratsei buruz informatzen jarraituko dugu.

Begirunez,

Jaun-andre hori:

El pasado mes de octubre le remitimos un carta y un documento informativo sobre Hitzeman, el programa de apoyo a los procesos legales de resocialización de personas presas. Posteriormente, le enviamos información sobre la Propuesta Zuzen Bidean. En la primera carta le informamos de que tras la presentación del Programa Hitzeman, el 2 de octubre de 2014, quedaba abierto un periodo de cinco meses para aclarar dudas y recoger aportaciones y sugerencias.

Pasado ese plazo, y una vez analizadas las sugerencias y preocupaciones recibidas, el siguiente paso se orientará hacia el inicio de una fase de experiencia piloto del Programa Hitzeman que se prolongará desde junio de 2015 hasta, al menos, la primavera de 2016. La evaluación de los resultados de esta fase abrirá el camino a la plena puesta en marcha del programa.

La misión del Programa Hitzeman es crear una red social e institucional que ofrezca respaldo y cobertura eficaz a los/as presos/as que quieren realizar un itinerario personalizado de reinserción dentro de las posibilidades que ofrece el marco legal. Esa red contará con el compromiso del Gobierno Vasco y con la implicación de universidades, ayuntamientos, asociaciones de la sociedad civil, referentes internacionales de derechos humanos, empresarios, sindicatos y personalidades de diferentes ámbitos.

El desarrollo de una iniciativa como esta representa un proceso complejo, delicado y controvertido. Es necesario trabajar con paciencia los consensos necesarios para abrir un camino consistente en materia de resocialización. Una primera fase de pilotaje del Programa Hitzeman nos permitirá extraer conclusiones prácticas sobre su aplicación, a la vez que avanzar con prudencia, diálogo, progresividad, y buscando consensos en todas las direcciones.

Si usted desea recibir información sobre el desarrollo de esta fase de experiencia piloto del Programa Hitzeman, háganoslo saber por carta, a través de sus familiares o por el medio que considere más apropiado. En este sentido, quedamos a su disposición. Por nuestra parte, seguiremos informándole de los pasos que en materia de política penitenciaria vayamos dando.

Atentamente,

Vitoria-Gasteiz, 2015eko apirilaren 30a
En Vitoria-Gasteiz, a 30 de abril de 2015

B.6. Terrorismo delituengatik zigortutako pertsona batek graduz aldatzeko eta espetxe-onura legalak lortzeko eman ditzakeen legezko urratsei buruzko informazio-gutuna presoeri

Jaun-andre hori:

Bake eta Bizikidetzaren onartu zenetik 2013ko azaroan, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak espetxe-politika berri bat bultzatze aldera lanean dihardu. Preso zeuden pertsoneri 2014ko amaieran eta 2015eko hasieran bidalitako Hitzeman eta Zuzen Bidean txostenak garatutako lanaren lagin bat dira eta Eusko Jauriaritzak alor honetan iradokitzen duen aldaketaren edukia definitzen dute.

Hala ere, espetxe-politikaren norabidean aldaketak ezartzeko aukera izoztua dago duela lau urtetik hona. Eusko Jauriaritzak egoera honez egiten duen analisiak hiru aktoreen egitea behar duela ondorioztatzen garamatza: Espainiako Gobernuaren, preso dauden pertsonen eta hauen inguru politikoaren, eta euskal instituzioen eta gizartearen egitea, hain zuzen ere.

·I. Espetxe-politika berri batek presoak beren bizilekuetatik gertu dauden espetxeetara hurbiltzeko prozesu bat egituratzea eskatzen du Espainiako Gobernuaren aldetik honela zehazten baitu Espetxeei buruzko Lege Organikoaren 12.1 artikulua. Gaixo dauden presoentzako ere Espetxeei buruzko Erregelamenduari 104.4 artikulua ezartzea. Halaber, presoak gizarteratze eta birgizarteratze aldera politika aktiboa bultzatzea espero behar da Espainiako Gobernuarengandik, Konstituzioaren printzipio bat den heinean. Azkenik eta Gernikako Estatutuak 10.14 artikuluan agintzen duena betetze aldera espetxe-eskumenaren transferentzia gauzatu beharko litzateke.

·II. Espetxe-politikaren aldaketak presoeri eta bere inguru politikoarengandik aldaketak eskatzen ditu. Espero behar den lehendabiziko gauza presoeri gradu-aldaketatik eta gizarteratze-prozesu legaletatik eratorzen diren espetxe-onurak eskuratzeko bide legal banakakoak erabiltzea galarazten duen eragozpena kentzea da. Era berean, garrantzitsua litzateke presoeri inguru politikoak ETA iraganen eragindako giza eskubideen urraketari buruzko balorazio kritikoa egitea, birgizarteratze-prozesuentzat baliagarria izango litzatekeena, eta preso bakoitzak horri heltzeko aukera eduki ahal izatea.

Jaun-andre hori:

Desde la aprobación del Plan de Paz y Convivencia, en noviembre de 2013, la Secretaría General para la Paz y la Convivencia viene trabajando en el impulso de una nueva política penitenciaria. Los documentos Hitzeman y Zuzen Bidean, que enviamos a todas las personas presas a final de 2014 y primeros de 2015, son una muestra de la tarea desarrollada y definen el contenido de la modificación que sugiere el Gobierno Vasco en esta materia.

Sin embargo, la posibilidad de implementar cambios en la orientación de la política penitenciaria está congelada desde hace cuatro años. El análisis que el Gobierno Vasco hace de esta situación le lleva a concluir que el cambio de política penitenciaria necesita acciones por parte de tres actores: el Gobierno español, las personas presas y su entorno político, y las instituciones y la sociedad vasca.

·I. Una nueva política penitenciaria requiere que el Gobierno español articule un proceso de acercamiento de los/as presos/as a cárceles próximas a sus lugares de residencia porque así lo prevé el artículo 12.1 de la Ley Orgánica General Penitenciaria. Así como que, en el caso de los presos con enfermedades graves e incurables, aplique el art. 104.4 del Reglamento Penitenciario. También debe esperarse del Gobierno español que promueva una política activa tendente a la reinserción y resocialización de las personas presas, en tanto que se trata de un principio constitucional. Por último y en cumplimiento de lo que establece el Estatuto de Gernika en su artículo 10.14 debería procederse a la transferencia de la competencia de prisiones.

·II. El cambio de la política penitenciaria también requiere cambios por parte de las personas presas y su entorno político. Lo primero que ha de esperarse en este sentido es que se elimine el impedimento que imposibilita a las personas presas utilizar las vías legales individuales para acceder a los beneficios penitenciarios derivados de la progresión de grados y a los procesos legales de reinserción. Sería igualmente relevante que el entorno político de las personas presas hiciera una valoración crítica sobre las violaciones de derechos humanos provocadas en el pasado por ETA, que fuese útil a los procesos de resocialización, y a la que cada preso/a pudiera acogerse.

·III. Presoen familiek hurbilketaren eta preso gaixoen inguruan egiten dituzten gizatasun eskaerak babestea espero behar da euskal gizartetik eta bere instituzioetatik. Euskal instituzioei dagokie, halaber, Estatuko instituzioen aurrean espetxe-politika desberdin bat eta espetxe-transferentzia defendatzea. Era berean, Eusko Jaurilaritzak gizarteratze sozial eta politiko laguntzak bultzatzeko politiko aktiboak garatu behar ditu espetxe ondoreneko birgizarteratzea babeste aldera.

Bigarren ardatzak garrantzi handia dauka eta espetxe-politikaren eztabaidan ez da behar bezala aintzat hartua izan. Gutun honekin batera, terrorismo-delituengatik zigortutako pertsona preso batek gradu-bilakaeraren ondorioz espetxe-onurek eskaintzen dituzten aukerak garatzeko dauzkan baliabideak laburbiltzen dituen txostena bidaltzen dizugu. Informazio hau zure interesekoa izatea espero dugu. Informazio gehiago beharko bazenu, eskatzeko zalantzarik ez izan.

Eusko Jaurilaritza, bere aldetik, hirugarren ardatzean jasota datorren ildoan lan egiten ari da. Hitzeman Programaren eta Zuzen Bidean txostenaren inguruan azken urtean garatutako lanaren ondoren, ekainean aurkeztu nahi ditu ondorioak. Horri lotuta, espetxe-, gizarteratze- eta birgizarteratze-politiken inguruan edozein ekarpen baldin baduzu, helarazi diezagukezu kontuan har dezagun.

Begirunez,

·III. De parte de la sociedad vasca y de sus instituciones cabe esperar el apoyo a las demandas de humanidad que plantean las familias de las personas presas en relación con el acercamiento y los presos enfermos. Corresponde también a las instituciones vascas defender ante las instituciones del Estado una política penitenciaria diferente y la transferencia de prisiones. Del mismo modo, el Gobierno Vasco debe desarrollar políticas activas de promoción de la reinserción social y políticas asistenciales de apoyo a la resocialización pos-penitenciaria.

El segundo de estos ejes tiene una gran importancia y ha estado muy desatendido en el debate sobre la política penitenciaria. Adjunto a esta carta, le enviamos un documento que resume los recursos de los que dispone una persona presa condenada por delito de terrorismo, para desarrollar las posibilidades que ofrecen los beneficios penitenciarios derivados de la progresión de grados. Esperamos que esta información sea de su interés y si necesitase cualquier información adicional, no dude en pedírnosla.

El Gobierno Vasco, por su parte, está actuando en la línea de lo expuesto en el tercer eje. Después del trabajo desarrollado durante el último año en torno al Programa Hitzeman, y al documento Zuzen Bidean, tiene previsto presentar sus conclusiones durante el próximo mes de junio. En este sentido, si usted tuviera cualquier aportación que realizar en relación con las políticas penitenciarias y de reinserción y resocialización puede hacérnosla llegar para su toma en consideración.

Atentamente,

Vitoria-Gasteiz, 2016ko apirilaren 6a
En Vitoria-Gasteiz, a 6 de abril de 2016

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkartza Nagusia
Secretaría General para la Paz y la Convivencia

Eranskina

Presoek lor ditzaketen espetxe-onura legalei buruzko informazio dokumentua

Espetxeen erregelamenduaren 4. artikuluan zehazten da zein diren presoek eskubideak; eskubide horien artean, legerian aurreikusitako espetxe-onurak agertzen dira. Birgizarteratze-prozesuaren barruan, presoek oinarritzko eskubidea dute gradu-bilakaerarako, baimeneterako eta baldintzapeko askatasunerako. Horretarako, jakina, betekizun zehatz batzuk bete behar dira, besteak beste hau: presoak eskatu behar du eskubide horiek baliatzeko aukera.

1. Gradu-bilakaera

Espetxe bakoitzeko tratamendu-batzarrak hiru espetxe-gradutan sailkatzen ditu presoak. Gradu hori, espetxe bakoitzeko zuzendaritzak ematen dio presoari, espetxean sartzen denean.

·Lehenengo graduak, edo erregimen itxiak, kontrol- eta segurtasun-neurri zorrotzak ezartzen ditu presoarentzat. Erregimen horren pean dagoen presoak ezin izango du espetxe-onurarik edo baimen arruntik eduki.

·Bigarren graduan, edo erregimen arruntean, dagoen presoak eskubidea du espetxetik noiz behin-ka ateratzeko, baldin eta kondenaren laurden bat bete badu, eta ez badu portaera txarrik izan.

·Hirugarren graduan, edo erregimen irekian, dagoenak erdi-askatasunean bete dezake bere espetxealdia, baldin eta bete badu kondenaren erdia. Espetxetik irteteko baimenak lor ditzake, gizarteratze-prozesua osatzeko prestakuntza- edo lan-jardueren bidez.

Presoek edozein unetan eska dezakete gradu-bilakaera. Espetxeko tratamendu-batzarrak sei hilean behin berrikusten du sailkapena (lehen graduan sailkatutako kasuan, hiru hilean behin). Preso bati eskaera ukatzen bazaio, erabaki hori errekurritu dezake, espetxe-zaintzako epailearen aurrean.

1.1. Gradu-bilakaera: lehen gradutik bigarrenera

Praktikan, terrorismo-delituak dituzten presoek lehen gradutik bigarrenera arteko bilakaera egin nahi badute, oinarrizko betekizun hau bete beharko dute: bide baketsu eta demokratikoezko konpromisoa eta indarkeria-estrategia orekiko haustura adieraztea.

Gradu-bilakaera nahi duen presoak eskaera egin beharko dio bere espetxeko tratamendu-batzarrari. Ukatu egiten badiote, ezarrita daukan lehen graduako sailkapena errekurritu dezake, bakearekiko konpromisoa adierazten duen idatzi bat igorritik espetxe-zaintzako epaile zentralari. Horretarako, ez da abokatu baten beharrik izango, presoak zuzenean egin baitezake gestio hori.

Gerta liteke lehen graduan sailkaturiko preso batzuek bigarren graduako bizitza-erregimena egitea. Halakoetan, komenigarria da idatzian horren berri ematea espetxe-zaintzako epaile zentralari.

1.2. Gradu-bilakaera: bigarrenetik hirugarrenera

Bigarren gradutik hirugarrenera bilakaera eskatzeko, kondenaren erdia beteta eduki behar da. Prozedurari dagokionez, aurreko atalean adierazitako bera da. Azken instantzian, presoak espetxe-zaintzako epaileari eska diezaioke. Kasu hauetan, honako betekizun hauek bete behar ditu presoak:

·Argi adierazi behar du prest dagoela erantzukizun zibilar aurre egiteko.

·Aitortu behar du biktimei kaltea eragin diela.

·Espresuki adierazi behar du uko egiten diola indarkeriari.

Ildo horretan, balioa hartzen du, erreferentziazko aitorten gisa, ANV/PCTV kasuko salatuek Entzutegi Nazionalako Fiskaltzarekin izenpetutako adostasun-akordioak: "Eta erantsi nahi dut indarkeriari loturiko edozein jarduerari uko egiteko konpromisoa hartzen dudala, eta aitorten honek terrorismoaren biktimei eragindako kaltea eta sufrimendua erreparatzeko balio dezan nahi dudala".

1.3. Tratamendu-programa espezifikoa (Espetxeetako Erregelamenduaren 100.2 artikulua)

Espetxeetako Erregelamenduaren 100.2 artikulua aukera ematen du bigarren eta hirugarren graduetako alderdi batzuk konbinatzeko, nahiz eta bete gabe eduki kondenaren erdia. Horren helburua da gradu-sistema malgutu, eta gizarteratze-prozesua hobeto egokitzea kasuan kasuko beharretara.

Artikulu hori aplikatzeko, programa espezifikoa bat garatu beharra hartuko da oinarriztat, justifikatuko duena presoek erdi-askatasunean jardun behar dutela programa horren barruko prestakuntza, lana edo bestelako arrazoi batzuk direla eta. Espetxe-zaintzako epailearen onarpena beharko du neurri horrek.

Terrorismo-deliuengatik zigortuta daudenei artikulu hau aplikatu zaienean, bigarrenetik hirugarren gradura arteko bilakaerarako eskatzen diren betekizunen antzekoak hartu dira kontuan, salbu eta kondenaren erdia beteta edukitzea.

2. Baimenak

Espetxe-baimenak arruntak edo bereziak izan daitezke. Baimen arruntak kasuan, urtean 36 egun emango zaizkie, bigarren graduako presoek; hirugarren graduakoei, berriz, 48 egun. Baimen bereziak erreserbatuta daude egoera eta kontingentzia berezietarako (osasuna, senide baten istripua, dolua, ezkontzak, amatasuna) eta, beraz, horien iraupena inguruabar bakoitzaren arabera ezarriko da.

Espetxe-baimenerako eskubideak gozatzeko, oinarrizko betekizun dira: kondenaren laurden bat bete-ta edukitzea, bigarren graduako sailkapena edukitzea eta jokabide egokia egiaztatzea. Terrorismo-deliuengatik preso daudenei emandako baimenen aurrekari praktikoetan, bigarrenetik hirugarren gradura arteko bilakaerarako ezarritako betekizun berberak ezarri zaizkie.

3. Baldintzapeko askatasuna

Baldintzapeko askatasuna zigorra betetzeko modu berezi bat da, betekizun batzuk eskatzen dituena. Batzuk, objektiboak dira: hirugarren graduan egotea eta kondenaren hiru laurdenak bete-ta edukitzea. Eta beste batzuk, subjektiboak: jokabide ona izatea eta gizarteratzearen aldeko banakako pronostiko

bat izatea. Praktikan, bigarrenetik hirugarren gradura arteko bilakaerarako ezarri diren konpromisoak finkatzea eta haietan sakontzea dakar horrek guztiak.

Presoak betekizun objektibo eta subjektibo horiek betetzen dituzenean, espetxeko tratamendu-batzarrik baldintzapeko askatasunari buruzko espedientea helaraziko dio espetxe-zaintzako epaileari. Baldintzapeko askatasuna emateko kasu berezitzat jotzen dira gaixotasun sendaezinak dituzten presoak, eta 70 urtetik gora dituztenak.

Funtsean, terrorismo-delituengatik kondenatuta daudenen nahi badute baldintzapeko askatasunerako gradu-bilakaeraren prozesuan sartu, argi erakutsi behar dute: etorkizunari dagokionez, bide baketsu eta demokratikoen aldeko behin betiko konpromisoa hartzen dutela; orainari dagokionez, biktimei erreparazioa egiteko borondate espresua dutela; iraganari dagokionez, egindako delituarekiko urruntze autokritikoa egiten dutela, bereziki giza eskubideak urratu direnean.

***Gizarteratze-prozesuetan lagun dezaketen lau faktore**

Espetxe-politika berri bat sustatzeko erantzukizuna estatuko administrazioarena da, neurri handi batean. Alabaina, faktore batzuk presoaren esku daude, baita ETArekin eta haren inguru politikoarenean ere. Faktore horiek lagungarri izan daitezke oztopoak eta aitzakiak desagerrarazteko, eta norabide berri bat garatzeko espetxe- eta gizarteratze-politiken inguruan. Atal honetan, lau faktore aipatzen dira:

1. Gaur egun, oztopo objektibo bat da —eta nekez uler daiteke— presoaren kolektiboak uko egitea espetxe-erregelamenduak gradu-bilakaeraren bidez eskaintzen dituen espetxe-onurak eskatzeari eta lege-aukera indibidualak aztertzeari. Beraz, aldaketarako faktore positiboa izango litzateke erabaki hori gainditzea.

2. Jurista adituen arabera, erakundeekiko lankidetzatza eta indarkeria-estrategiarekiko behin betiko eten kolektibotzat hartuko litzateke, juridikoki, ETA erabat eta baldintzarik gabe armagabetzea, eta are, desegitea. Horrek ukaezinezko eragina izango luke gizarteratze- eta sozializazio-prozesuen pronostikoaren balioespenean.

3. Presoek mugimendu baten parte izan dira, eta mugimendu horrek bat egin du, iraganean, indarkeriaren erabilera politikoa justifikatzen zuen estrategia kolektibo batekin. Hortaz, ez du logikoa ematen orain preso bakoitza bakarrik geratzea espetxe-tratamenduak eskatzen dion iraganari buruzko hausnarketa kritikorekin aurrean. Aitzitik, oso esanguratsua litzateke mugimendu politiko horrek balioespene autokritiko bat egitea iraganeko giza eskubideen urraketei buruz; izan ere, horrek birgizarteratze-prozesuei lagunduko lieke, eta presoak autokritika horretara atxikitzea ahalbidetuko.

4. Adierazi denari jarraikiz, beste faktore garrantzitsu bat izan liteke, eta gizarteratze-prozesu legalen lagungarri, preso bakoitzak, bere hitzekin eta modu batera edo bestera, hausnarketa bat adieraztea etorkizunari, orainari eta iraganari buruz: etorkizunari dagokionez, bide baketsu eta demokratikoen aldeko behin betiko konpromisoa; orainari dagokionez, biktimei erreparazioa egiteko borondate espresua; iraganari dagokionez, egindako delituarekiko urruntze autokritikoa, bereziki giza eskubideak urratu direnean.

B.7. Espetxe-politikan aldaketa emateko beharrezko ekintzei buruz Eusko Jaurlaritzaren iritziarekin gutuna presoeri

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 13a

Jaun/Andre hori,

Idazki honen bitartez, jakinarazi nahi dizut jaso dudala zuk bidali didazun eskutitza. Uste dut jakingo duzula zurea bezalako beste hainbat eta hainbat idazki jaso ditudala eta antzeko idazketa moldean eginak direla. Horregatik, erantzuna berbera da jasotako eskutitz guztiarentzat. Adeitasun osoz irakurri ditut, batez ere zuen familiekiko, izan ere zuen familiek ere jasan behar dituzte zu eta idatzi didaten gainontzekoak jaio edota bizi zareten tokietatik hurbilen dauden kartzeletatik urruntzearen ondorioak. Horregatik, iruditzen zait argien eta zintzoen adieraztea dela erantzuteko modurik begirunetsuena.

Horrela bada, ez ditut aipatuko euskal erakundeetako akordioak; eskura emandako dokumentuak baita Etxerat, Sare eta bestelako taldeen ordezkariak Lehendakari izandako bileretan emandako dokumentuak; horiek Espainiako Gobernuako presidenteari berari helaraztea; edo zenbatetan adierazi duan jendaurrean kartzela politika ere kontuan hartu beharreko gaia dela indarkeriaren amaiera ordenatuan.

Aurreko legegintzaldi autonomikoan, Eusko Jaurlaritzak Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren bitartez idatziz jo zuen lau bider EPPK izenez ezagutzen den taldeko preso guztiengana:

-2014ko urrian, Hitzeman dokumentuaren edukia bidali genuen, presoak birgizarteratzeko prozesu legeletan laguntzeko.

-2015eko urtarrilean, Zuzen Bidean Proposamena bidali genuen; hogeit hamar proposamen dira, ETaren amaieraren ondoren, zigor zuzenbidean eta espetxe zuzenbidean normaltasun egoera berreskuratzeko, eta bizikidetzaz sozial eta politikoa normalizatzen laguntzeko.

-2015eko apirilean, eskutitz bat bidali genien preso guztiei jakinarazteko esperientzia pilotu bat abiarazi zela Hitzeman Programa dela eta.

-2016ko apirilean, laugarren idazki bati informazio dokumentu bat atxiki zitzaion, eta hor azaldu zen terrorismo delituarengatik zigortutako presoak nolako baliabideak dituen espetxe onurak, graduatan aurrera egitea eta birgizarteratzea eskuratzeko legalki.

Zuk dokumentu horiek irakurtzeko aukera izan baduzu, konturatuko zinen gai honetan Eusko Jaurlaritzaren jarrera aurreko legegintzaldian eta oraingoan argia dela presoak hurbiltzeaz eta 70 urtetik gorako zein beharrezko preso gaixoen egoerari konponbide humanitario eta legezkoak bilatzeaz, baita birgizarteratze politikez ere.

Aipatutako azken idazkian, 2016ko apirilekoan, jakinarazi genuen zein zen Eusko Jaurlaritzaren analisia espetxe politikaren orientazioan aldaketak inplementatzeko aukerak zuen blokeoari buruz. Une hartan azpimarratu genuen ekarpenak egin behar zirela hiru eremutatik: (I) Espainiako Gobernutik, (II) presoengandik eta beraien inguru politikotik eta (III) erakundeetatik eta euskal gizartetik.

Beraz:

I. Espetxe-politika berri batek presoak beren bizilekuetatik gertu dauden espetxeetara hurbiltzeko prozesu bat egituratzea eskatzen du Espainiako Gobernuaren aldetik honela zehazten baitu Espetxeei buruzko Lege Organikoaren 12.1 artikulua. Gaixo dauden presoentzako ere Espetxeei buruzko Erregelamenduaren 104.4 artikulua ezartzea. Halaber, presoak gizarteratze eta birgizarteratze aldera politika aktiboa bultzatzea espero behar da Espainiako Gobernuarengandik, Konstituzioaren printzipio bat den heinean.

Azkenik eta Gernikako Estatutuak 10.14 artikuluan agintzen duena betetze aldera, espetxe-eskumenaren transferentzia gauzatu beharko litzateke.

II. Espetxe-politikaren aldaketak, halaber, zu bezalako preso gehienek eta bere inguru politikoko orain arte izandako jarrera eta jokabidea aldatzea eskatzen du. Espero behar den lehendabiziko gauza presoeri gradu-aldaketatik eta gizarteratze-prozesu legeletatik eratorritik diren espetxe-onurak eskuratzeko bide legal banakakoak erabiltzea galarazten duen eragozpena kentzea da. Era berean, garrantzitsua litzateke preso horien inguru politikokoak ETak iraganean eragindako giza eskubideen urraketei buruzko balorazio kritikoa egitea, hori baliagarria izango litzateke eta preso bakoitzak erabili ditzakeen birgizarteratze-prozesuetarako eta bizikidetzaz sozial eta politikoaren normalizaziorako.

III. Presoen familiek hurbiltzetaren eta preso gaixoen inguruan egiten dituzten gizatasun eskaerak babestea espero behar da euskal gizartetik eta bere instituzioetatik. Euskal instituzioei dagokie,

halaber, Estatuko instituzioen aurrean espetxe-politika desberdin bat eta espetxe-eskumenaren transferentzia defendatzea. Era berean, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze sozial eta politiko laguntzak bultzatzeko politiko aktiboak garatu behar ditu espetxe ondoreneko birgizarteratzea babeste aldera.

Gaur Eusko Jaurlaritzak iritzi berarekin jarraitzen du. Espetxe politikaren aldaketak aldeko testuinguru sortzea eskatzen du. Testuinguru berri hori sortzeko, beharrezkoak dira hainbat ekarpen, baita preso daudenen pertsonena eta bere ingurune politikoarena ere. Harritzekoa da zure eskutitzean horrelako ezer ez aipatzea.

Are harrigarriagoa da ez zuk ez preso dauden pertsona horien ingurune politikoak ez egitea irakurketa kritiko bat ETAk eragindako giza eskubideen urraketan gainean, nahiz eta ezagutu irakurketa kritiko horrek zuzeneko eragina izango lukeela espetxe politika aldatzeko. Alde horretatik, ez zait onargarria iruditzen beste guztioi zuzendutako eskaerak eta salaketak jartzea eta zuen erantzukizunekoak diren pausuak ez ematea.

Esan digute eztabaida egiten ari zaretela eta espero dut eztabaida horrek laster aurrerapen kualitatiboak eskaintzea. Eusko Jaurlaritzak, bestalde, Hitzeman eta Zuzen Bidean dokumentuetan azaldu-takoaren ildotik jarraitzen du eta jarraituko du. Nire hitza ematen dizut berriren bat edo aurrerapenen bat ematen bada jakinaraziko dizugula Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzarako Idazkaritza Nagusiaren bitartez.

Adeitasunez,

Iñigo Urkullu Renteria
Lehendakaria

B.8. EPPKren gutuna

Bakegintza eta bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Lehendakaritza
Eusko Jaurlaritza
Nafarroa, 2
01007 VITORIA-GASTEIZ

Réau, 2015eko urtarrilak 31

Agur, jauna

Izandako harremanaren ostean EPPKren ordezkarietako bozeramaletako bi garen neurrian honokoa jakinarazi nahi dizugu:

- Bere neurrian aintzat hartzen dugula gure Kolektiboarekin harreman ofiziala izateko zure aldetik egindako ahalegina.
- EPPK prest dagoela harreman horri jarraitutasuna emateko, beti ere euskal preso politikoen egoera konpontzea helburu izanik.
- Zentzu horretan, EPPKri, hala nola bere kideei helarazi diezuen Hitzeman programari eta Zuzen Bidean proposamenari buruzko iritzia ofiziala luze baino lehen zuenganatzeko konpromisoa hartzen dugula.
- Izandako harremanean jakinarazi bezala, EPPKrentzat une honetan premia larria duena bere kideek jasaten duten deportazio, sakabanaketa eta isolamenduarekin amaitzea dela (gaixo larri dauden eta adineko diren gure kideen askatasunarekin batera). Eta egoera bidegabe hori gainditzeko jaso ditzakegun laguntza guztiak eskerronez hartuko ditugula.
- Azkenik, EPPK-k jakinarazi nahi dizu aurrerantzean ere urratsak egiten jarraitzeko konpromisoa berresten duela. Zure Idazkaritza horretatik hel dakizkiokeen iradokizunei irekita dagoelarik, beti ere bere izaerarekiko begirunez eta bere kideen duintasuna zalantzan jartzen ez den artean.

Besterik ezean agurtzen zaitugu,

Euskal Preso Politikoen Kolektiboko bozeramale

B.9. Espetxe-politikaren berbideratzea partekatzeak akordio-proposamena

Sarrera

Eusko Jaurlaritzaren programak XI. Legegintzaldirako, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideak atalean, Espetxe-politikari buruzko Konpromisoa eta Lanerako Agenda ezartzen ditu. Konpromisoa honekin lotzen da: "indibiduazioaren, gizatasunaren, eragindako minaren aitopenearen eta gizarteratzearen legezko printzipioen promozio aktiboan oinarritutako espetxe-politika, non ondorioetako bat presoak inguru hurbiletik gertuen dauden espetxeetara lekualdatzeari babesa ematea den".

Lanerako Agendan helburu gisa honakoa ezartzen da: "ordenamendu juridikoaren aurreikuspenen arabera, espetxe-politika berbideratzeko proposamen bat adostea oinarritzko helburu batekin: gizarteratzea, eragin humanitario gehiena duten arazoei lehentasuna ematea, presoek hurbilketa erraztea eta presondegien eskumenaren transferentzia EAera eskatzea".

Txosten honen bidez, aurreikuspen hauek garatzen dituen espetxe-politika berbideratzeko akordio-proposamena aurkezten dio Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari. Elkarrizketarako eta akordio-rako planteamendu irekia da. Eusko Jaurlaritzak lan partekatua garatu nahi du Espainiako Gobernuarekin espetxe-politikaren inguruan. Gertaera objektiboan eta egiaztagarrien bi atal dira unehonetan ekimen honen zentzua laburbiltzen dutenak.

Alde batetik, bost urte luze bete direnean, ETAren terrorismoaren behin betiko etetea eta, aldebakarreko erabakiarekin erakunde honekin lotura duten presoek ia gehienek mantentzen duten akordioa. Bi gertaera hauek berriz ere indarkeria erabiltzeko arriskuaren eta bere mehatxuaren desagertzea egiaztatzen dute, eta espetxe-politika berbideratzeko kontuan eduki behar den funtsezko aldaketa bat osatzen dute aurreko egoerarekin alderatuta.

Bestetik, egiaztapen hirukoitza. Lehenik eta behin, egungo espetxe-politikak ez du eragin aldaketa-efekturik presoengan, baina bai kostu humanoa, familiarra eta ekonomiko gehitua eta beharrezkoa ez dena beren familientzat. Bigarrenik eta ziur aski arazoi honengatik, espetxe-politikaren orientabide honek tentsio soziopolitikoaren eragilea da Euskadin eta euskal erakundeek maila guztietan talka egiten du. Hirugarrenik eta aurreko guztiaren ondorioz, euskal gizarte ia gehiengoaren eta bere erakundeek, eta Espainiako Gobernuaren arteko desadostasun garrantzitsuak.

Honako ezer ez da desiragarria. Ondorioz, egoera hau zuzentzen saiatzea erabat justifikatua dago. Baita egitea aukera erabat legala eta bideragarria delako ere.

Espetxe-politika berbideratzeko akordio-proposamenak hiru proposamen ditu. Lehendabiziko biak epe motzean ezartzeko pentsatuak, duten izaera humanitarioagatik. Hirugarrenak lanerako mahai bat eratzea proposatzen du bi gobernuen artean bertan lantzeko zenbait gai eta proposamenekin.

Proposamen desberdinak laburbiltzen dituen eta zehazten dituzten hiru dokumentuekin osatzen den oso testu sintetikoa da txosten honen gorputz nagusia. Proposamen hau, Espainiako Gobernuarekin, zein parlamentuko taldeekin, Nafarroako Gobernuarekin, operadore juridikoekin eta gizarte eragileekin partekatzea da Eusko Jaurlaritzaren asmoa.

Lehenengo proposamena, presoak berkokatzea

·Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari proposatzen dio:

-Euskal presoak Euskaditik 250 kilometrotik behera dauden hamar Presondegietan kokatzea, ETArekin lotura duten pertsonak presondegi bakar batean ez biltzeko irizpidea aldatu gabe, Espetxeen Lege Organiko Orokorren 12.1. artikuluan aurreikusitakoa bete ahal izan dadin.

(Euskal presoak Presondegietan berkokatzeko irizpide-proposamena" txostenak proposamen hau garatzen du)

Bigarren proposamena, izaera humanitarioko beste neurri batzuk

·Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari proposatzen dio:

-Espetxeen Arautegiko 104.4. artikulua irizpide humanitarioarekin aplikatzea gaixotasun larriak dituzten presoentzat.

-Beren ardurapean adin txikikoak dituzten presoak Euskadiko presondegi berdinean elkartzea.

-Espetxeen Arautegiko 196. artikulua modu normalizatuan aplikatzea 70 urte baino gehiago dituzten presoek.

(Proposamen hauek Zuzen Bidean txostenaren lehen zatian jasota daude)

Hirugarren proposamena, lanerako mahai bat osatzea

Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari proposatzen dio lanerako mahai bat osatzea zigor- eta espetxe-politika adostuaren oinarriak lotzeko helburuarekin. Gobernuak iradokitzen dituen gaien eta proposamenen zerrenda honakoa da:

1. gaia. Birgizarteratzea

Proposamenak. Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari proposatzen dio:

1. Gizarteratze-politika bat garatzeko oinarriak eta neurriak adostea, bere definizio konstituzionalaren eta ohiko espetxe-onurei buruzko Espetxeen Arautegiko 4.1. eta 4.2. artikuluen arabera, eta Biktimei buruzko 2012/19 Europako Zuzentarauan jasotako Justizia Leheneratzailearen ildoarekin bat. (Une honetan prestatzen ari den gizarteratzeari buruzko Dekretuaren proiektuarekin osatzen du Eusko Jaurlaritzak proposamen hau)
2. Langraiz bidea deitutakoari lotutako presoek onartutako konpromisoarekin bat etorriko den erantzuna adostea, beren jarrera autokritikoa eta biktimei eragindako mina argi adierazi duten neurrian. (Proposamen hau Zuzen Bidean txostenaren lehen zatian jasota dago)
3. 7/2003 Lege Organikoa aldatzea, gizarteratzerako konstituzio-printzipioa bideragarria izan dadin, berriro indarkeria erabiltzeko arriskua eta mehatxua desagertu direnean, modu frogagarri eta behin betikoan. (Proposamen hau Zuzen Bidean txostenaren lehen zatian jasota dago)

2. gaia. Espetxe-kudeaketa

Proposamenak. Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari proposatzen dio:

4. Eusko Jaurlaritzari presondegien eskumenaren transferentziaren edukiei buruzko negoziazioari ekitea, Gernikako Estatutuaren 10.14 eta 12.1 artikulua betetze aldera. (Proposamen hau Zuzen Bidean txostenaren lehen zatian jasota dago)
5. Espetxe-zaintzaren kudeaketa Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentraletik, preso dagoen espetxe bakoitzaren lurralde-esparruko Espetxe Zaintzako Epaitegietara itzultzea. (Proposamen hau Zuzen Bidean txostenaren bigarren zatian jasota dago)

3. gaia. Zigor- eta espetxe-normaltasuna

Proposamenak. Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari proposatzen dio:

6. Ebazpen judizialen elkarrekiko aintzatespenari ekitea Europako Batasunaren eremuan, Europako Kontseiluaren 2008/675/JAI Erabaki Markoaren interpretazioaren arabera, Auzitegi Gorenen 186/14 epaian adieraten den bezala. (Proposamen hau Zuzen Bidean txostenaren bigarren zatian jasota dago)
7. Giza eskubideen nazioarteko erakundeek zein Nazio Batuen kontariak eta giza eskubideen mekanismoak, berme demokratikoen ikuspegitik, egiten ari diren gomendio zehatzak aplikatzeko akordio posible zabalena bilatzea. (Proposamen hau Zuzen Bidean txostenaren bigarren zatian jasota dago)

B.10. Euskal presoak Presondegietan berkokatzeko irizpide-proposamena (Bertsio laburtua)

Euskal presoak Presondegietan berkokatzeko irizpide-proposamenaren bertsio laburtua

·Proposamenaren izaera

Proposamen honek izaera irekia dauka. Tresna bat izan nahi du adostasuna bultzatzeko. Eusko Jaurlaritzak gai honen inguruan elkarrizketa zabaldu nahi du Espainiako Gobernuarekin.

Zentzu honetan, proposamenak elkargunea eta adostasuna errazteko lehen fasea bultzatzean biltzen du bere garrantzi guztia.

·Berkokatze-proposamenaren irizpidea

Euskal presoak Euskaditik 250 kilometrotik behera dauden hamar espetxeetan berkokatzea da proposamen honen lehen fasearen irizpidea.

Pertsona horien berkokatzea hamar presondegi hauetan antolaketaren ikuspegitik egokiena izango litzatekeen bezala egin zitekeen. Dena dela, Eusko Jaurlaritzak, iradokitzen du gutxienez erdiak Zaballako eta Iruñeko presondegietan koka litezkeela ondorengoaren antzeko banaketa eginez:

Presondegia	Preso-kopurua	Kilometro-kopurua
ZABALLA	100	-
IRUÑA	40	-
BASAURI	25	-
MARTUTENE	25	-
LOGROÑO	20	137
BURGOS	20	164
EL DUESO – SANTOÑA (Cantabria)	15	175
ZUERA (Zaragoza)	10	219
SORIA	7	230
DUEÑAS - LA MORALEJA (Palencia)	5	250

ETArekin lotura duten presoak presondegi batean edo bitan ez elkartzearen printzipioa ez du aldatzen. Horrez gain, irizpide-proposamen honek Espetxeen Lege Organiko Orokorraren 12.1. artikuluan aurreikusitakoa betetzea ahalbidetzen du premisa honi eragin gabe.

2017ko martxoa

B.11. Euskal presoak Presondegietan berkokatzeko irizpide-proposamena (Bertsio luzea)

Sarrera

1995eko abenduaren 28ko osoko bilkuran, Eusko Legebiltzarrak bere Giza Eskubideen Batzordeari agindua zion Espainiako gobernuaren aurrean egin beharreko gestioak egin zitzala, askatasun gabe-tuta dauden euskal herritarrek hurbiltzeko plana martxan jartzeko.

Espainiako gobernuak ez zuenez erantzunik ematen, Giza Eskubideen Batzordeak 1996ko irailaren 13an bilduta, hurbiltzeko planaren proposamena prestatzeko lanak eta ikerketak garatzeko erabakia hartu zuen. Prestatu zuten ba proposamena, eta aurkeztu. Espainiako gobernuak ez zuen erantzun.

Hogei urte beranduago, ETArri lotutako delituak direla-eta kartzelan preso zeudenak urruntzeko politikak indarrean dirau oraindik, eta euskal erakundeek oraindik ere hurbiltzeko politika eskatzen dute behin eta berriro. Egoera berdina dela badirudi ere, goitik beherako aldaketa izan da. Iragarri zenetik bost urte baino gehiago pasa ondoren, konfirmatuta dago ETAK behin betiko laga duela bertan behera terrorismoa.

Mehatxurik ez dagoenez, eta berriro lehenagokotan hasteko arriskurik ere ez dagoenez, nahiko oinarri badago pentsatzeko gaurko politika penitentiarioa berrikusteko garaia dela, erabat desberdina zen errealtatearen testuinguruak justifikatu, eraiki eta mantentzen zuelako orain artekoa. Batez ere, arrazoi honengatik, eta aurrerago aipatuko diren beste arrazoiengatik (legezkoak, humanitarioak eta sozialak eta elkarbizitzaren ingurukoengatik), euskal presoak Presondegietan berkokatzeko irizpide-proposamen bat aurkezten dio Espainiako Gobernuari Eusko Jaurlaritzak.

1. Gaur egungo errealtatea (2017ko martxoaren 13a arteko datuak)

·Epaitura edo epaiketa zain dauden ETArekin lotutako kasuak direla-eta, Espainiako espetxeetan kartzelaratatutako Euskadiko nahiz Nafarroako herritarrek 267 dira gaur egun.

·267 haueetatik, zortzi daude Euskadiko bi presondegitan, eta batere ez Nafarroako presondegitan.

·Guztira, 33 gizon-emakume daude preso puntu geografiko jakin batetik 300 kilometro baino gutxiagora dauden presondegietan (neurketarako, Araba eta Gipuzkoak Nafarroako Foru Erkidegoarekin muga egiten duten lekuan kokatu dugu puntu hori).

·Guztira, 234 preso daude mugako puntu geografiko horretatik 300 kilometro baino urrunago kokatutako presondegietan. Puntu horretatik 500 kilometro baino urrunago dauden presondegietan guztira 195 preso daude.

·Hona hemen preso dauden 267 horiek, presondegika eta Euskaditik urrunduta dauden kilometroen arabera, gehienetik gutxienera, ordenatuta:

Presondegia	Preso-kopurua	Kilometro-kopurua
ALGECIRAS (Botafuego)	12	1.047
PUERTO-I (Cádiz)	11	970
PUERTO- III (Cádiz)	11	970
HUELVA-II	11	944
SEVILLA II	10	939
ALMERIA	8	807
MURCIA II	14	807
GRANADA (Albolote)	13	805
MURCIA I	5	798
CORDOBA (Alcolea)	10	778
JAEN-II	9	717
FONTCALENT (Alacant I)	4	715
BADAJOS	7	704
A LAMA (Pontevedra)	9	689
VILLENA (Alacant II)	12	659
CACERES II	2	609

CURTIS (A Coruña)	11	599
MONTERROSO (Lugo)	4	582
HERRERA de la Mancha	7	581
VALENCIA II	4	570
VALENCIA III	12	570
CASTELLO I	9	543
ESTREMER (Madrid)	2	465
OCAÑA I Toledo	5	462
OCAÑA II Toledo	4	462
ARANJUEZ	1	460
CASTELLO II Albocasser	7	453
NAVALCARNERO	2	434
TOPAS (Salamanca)	7	409
ALCALA MECO	2	407
TERUEL	1	402
VILLABONA (Asturias)	4	391
MANSILLA (León)	2	321
DAROCA (Zaragoza)	2	313
VALLADOLID (Villanubla)	4	296
DUEÑAS (Palencia)	4	257
SORIA	3	230
ZUERA (Zaragoza)	9	219
EL DUESO (Santoña)	2	175
BURGOS	2	164
LOGROÑO	1	137
BASAURI	1	103
ZABALLA	7	71

2. Errealitate honen eraginak

Errealitate konkretua erakusten dute aurreko atalean jasotako datuek. Egin behar den proposamena ahalik eta ondoen ulertarazteko, komeni da errealitate horrek dakartzan eragin objektiboak zein subjektiboak gogoraraztea.

2.1. Gizarteratze-prozesuen gain izango duen eragina

Hasieran, banantzeko politika abian jarri izana justifikatzeko, esaten zuten ETAK bere organizazioarekin lotutako presoak nola eboluzionatzen zuten kontrolatzea ebitatu nahi zutela. Hasierako diseinu hartan oinarrituta, banantzea zen erarik onena presoak berriz ere gizarteratzeko. Banantzeko kontzeptu hura, batez ere, urrunduz gauzatu zen. Banantzeko ez da nahitaezkoa urruntzea, banandu, presoak banandu daitezkeelako askoz distantzia-erradio txikiagoan kokatutako hainbat presondegitan sartuta.

Edonola: 1989tik hona ez dago kasu bat bera ere zeinetan urruntzeko politika penitentziarioak presoak bergizarteratzeko prozesu indibidualetara eramane duenik. Efectua hasiera batean bilatutakoaren kontrako izan da. Presoak gizarteratzeko prozesuei buruzko eztabaida sozialetik nahiz politikotik aparte utzi ditu urrunketak. Azkeneko urteetan, hogeita hamar bat presok jo dute birgizarteratzeko prozesura, Nanclares bidea esaten zaionaren bitartez. Horietako batek ere ez du esan urrundu izanak eraginda ekin dionik prozesuari. Alderantziz, hurbildu izanak erraztu eta azkartu egin die prozesua.

2.2. Eragin nagusia

Paradoxa da: urruntzeko politikak ez dauka eraginik, ez zuzenik ez nagusirik, presoengan. Preso dagoe-na eremu itxian bizi da, inguruko testuinguru geografikotik isolatuta. Presoentzat ia alderik ez dago penintsulako ipar, hego, eki edo mendebaldeko presondegietako bizimoduaren artean, ez bada eguraldia bera.

Urruntzeko politikak eragin zuzena dauka, eta eragin nagusia, presoan senitartekoengan. Ez da zaila

ulertzen senitartekoei eragiten zaien inpaktua askoz okerragoa dela kondenak zenbat eta luzeagoak izan eta familiakoak oso edadetuak edo umeak izan. Presoen familientzako, urruntzeko politikak kostu handia du bai beren barruan bai ekonomian, desgastea intentsua da, eta asko luzatzen da.

2.3. Eragina gizartean

Azkeneko urteetan egindako inkesta guztiek adierazten dutenez, ia euskal gizarte osoa presoak hurbiltzeko politikaren aldekoa da. Jarrera hori are eta gehiago nabarmendu da ETak bere jarduna laga zuenetik. Garai politiko nahiz sozial berria finkatzeko oztopoa irizten dio jendeak urrunketari. Urrunketa-politika aldatzen ez den bitartean, euskal gizartean gatazkaren ernamuina ernaltzen ari da, eta ez dio elkarbizitza normalizatuari erabat gauzatzen uzten.

Urruntzeko politikaren ondorioak zaputz amaigabea besterik ez du sortzen euskal gizartean, inork ez daki noiz arte. Gogoan izan, 1989an aukera izan genuela politika hura aldatzeko. Horrek esan nahi du 35 urtetik beherako euskal herritarrek arazo honekin bizi izan direla kordea daukatenetik. Urrunketak ez dauka inongo eragin onik gizartean, eta, gainera, elkarbizitza normalizatua zurkaizteko oztopoa besterik ez da.

2.4. Eragina politikan eta erakundeetan

Gizartean gertatzen den bezalaxe, politikan eta erakundeetan ere urrunketak tentsioa eta larritasuna eragiten du, egunez egun, alderdien artean eta normaltasun politikoan. Eztabaida egunero dago presente udaletxe bakoitzean, lurralde historiko guztietako Batzar Nagusietan, Eusko Jaurlaritzan eta kaleetan (kartelak, afixak eta manifestazioak ikusten ditugu nonahi).

Hala, presondegietak politikaren sektorialari orientazio jakina emateak (horren efektu errealek ezin dira oraindik objektibatu, preso dauden pertsonen familiei eragiten dien kalteaz aparte) etengabeko konbultsioa eragiten du Euskadiko politikan nahiz erakundeetan. Urruntzeko politikaren fakturak, hortaz, kostu gehiegi eragin die gure politikari eta erakundeak.

3. Eusko Jaurlaritzaren jarrera hartzea

Urruntzeko politika, preso dauden pertsonak espetxe desberdinetan banatzea bezala ulertuta –beste modu batera esanda, presondegi bakar batean ez biltzea–, giza eskubideei ez dagokien bigarren mailako elementu bat da. Biltzea urruntzearen aurrean ez da per se espetxe desberdinetan banatzea baino politika egokiagoa edo desegokiagoa, beti ere espetxe horiek beren etxetik gertuen daudenak baldin badira.

Giza eskubideen eta gizatasunaren ikuspuntutik, garrantzitsua urruntzea da. Ehundaka kilometroen urruntzeak eragiten du sufrimendu gehigarria eta ez beharrezkoa presoen familiei. Gogoeta hauek oinarri hartuta, Eusko Jaurlaritzaren jarrera gai honi dagokionez ondorengoa da:

- Presoen familiek sufrimendu humanitario gehigarria eta bizi-, familia- eta ekonomia-higadura saihegarria eragiten dieten desplazamenduak egitera behartzen dituzten distantzietara urrundutako espetxeetan preso egotearen aurka dago Eusko Jaurlaritzak.

- Eusko Jaurlaritzak ez dauka, a priori, preso guztiak presondegi berdinean biltzearen ez aldeko ez kontrako jarrerarik. Zentzu honetan, une bakoitzean, askatasuna mugatzen duen zigorrarentzat helburu hezitzailea eta gizarteratzailearentzat egokiena izango den aukera defendatuko luke Eusko Jaurlaritzak.

- Presoek beren zigorrak Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko espetxeetan betetzearen alde dago Eusko Jaurlaritzak, eta salbuespeneko egoeran, kasu zehatzetan egoeraren batek aholkatuko balu, hauengandik gertuen dauden presondegietan.

- Mailaz mailako ikuspegi batetik, presondegietara mailakako berkokatze-prozesu baten lehen fasea Espainiako Gobernuarekin ahalik eta azkarren adostearen aldeko apustua egiten du Eusko Jaurlaritzak, non presoak beren etxerako distantzia geografikoa “zigortuen deserrotze soziala saihesteko” lege- eta espetxe-betebeharrarekin bateragarria izango den.

4. Euskal presoak Presondegietan berkokatzeko irizpide-proposamenaren adierazpena

4.1. Proposamen honen izaera

Proposamen honek izaera irekia dauka. Tresna bat izan nahi du adostasuna bultzatzeko. Eusko Jaurlaritzak gai honen inguruan elkarrizketa zabaldu nahi du Espainiako Gobernuarekin. Horrekin batera, proposamen hau partekatu nahi du legebiltzarreko taldeekin, Nafarroako Gobernuarekin, maila jurridikoan lan egiten dutenekin, eta gizarte eragileekin. Elkarrizketa horretarako abiapuntua eta erreferentzia txosten hau izango litzateke.

Adierazi den bezala, Euskadiko eta Nafarroako preso guztiak bi komunitateen bost espetxeetan kokatzearen aldekoa da Eusko Jaurlaritzak. Edonola, orain aurkeztzen den proposamenak Espainiako Gobernuarekin elkargunea eta adostasuna errazteko lehen fasea bultzatzean biltzen du bere garrantzi guztia.

4.2. Berkokatze proposamenaren irizpidea

Euskal presoak Euskaditik 250 kilometrotik behera dauden hamar espetxeetan berkokatzea da proposamen honen lehen fasearen irizpidea.

ETArekin lotura duten presoak presondegi batean edo bitan elkartzeko ezin dela lagundu irizten dutenen ikuspegitik, irizpide-proposamen honek Espetxeen Lege Organiko Orokorren 12.1. artikuluan aurreikusitakoa betetzea ahalbidetzen du premisa honi eragin gabe.

Pertsona horien berkokatzea hamar presondegi hauetan antolaketaren ikuspegitik egokiena izango litzatekeen bezala egin zitekeen. Dena dela, Eusko Jaurlaritzak, iradokitzen du gutxienez erdiak Zabalako eta Iruñeko presondegietan koka litezkeela ondorengoaren antzeko banaketa eginez:

Presondegia	Preso-kopurua	Kilometro-kopurua
ZABALLA	100	-
IRUÑA	40	-
BASAURI	25	-
MARTUTENE	25	-
LOGROÑO	20	137
BURGOS	20	164
EL DUESO – SANTOÑA (Cantabria)	15	175
ZUERA (Zaragoza)	10	219
SORIA	7	230
DUEÑAS - LA MORALEJA (Palencia)	5	250

5. Proposamen hau ezartzeko arrazoiak

5.1. Arrazoi etikoak eta politika-aurrekoak

Horrelako proposamen baten aurren-aurrenengo efektua, dudarik gabe, zera izango da, presoen familiakoak zuzenean eta berehala izugarritzko lasaitua hartuko dutela. Aita, ama, neba-arrebak, seme-alabak eta hurbileko jende asko, inongo deliturik egin gabe, kartzelan daukatena ondo zaindu nahi izan dutelako (maitasunagatik eta eginbehar moralagatik). Hurbiltze hau gizalegezkoa litzateke. Etikagatik, politikaren aurretik ere.

5.2. Legezko arrazoiak

Ez dago legezko inongo oztoporik preso dagoen jendea etxe inguruko presondegiara hurbiltzeko prozesua martxan jartzeko. Alderantziz, legeak berak aurreikusita dauka Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorren 12.1 artikuluan, esanez espetxeetako administrazioak ahalegina egin behar duela presoek beren gizartetik at gera ez daitezten. Arauen interpretazioa "arau horiek aplikatu behar diren garaiko errealitate sozialaren arabera" egin behar da. ETAk indarkeria utzi izanak eta preso ia guztien adostasuna erabaki honekin errealitate soziopolitiko berria eta elkarbizitza berria ekarri ditu. Terrorismoa amaitu eta bakea finkatzen ari den garai honetan, presondegiaren ere normaltasuna ezarri behar da, legeak horretarako eskaintzen dituen aukerak baliatuz.

5.3. Arrazoi sozialak eta elkarbizitzaren ingurukoak

Zigorretan zein presondegiaren normaltasuna behar dela denok aitortzen dugu, eta horiek falta izateak, berriz, distortsioa dakarrela. Nahi demokratikoa da zigor- eta espetxe-normaltasuna ezartzea, gure gizarteko elkarbizitza normalizatzen asko lagunduko lukeelako. Gizartean, politikan eta erakundeetan elkarbizitza lortzeko daukan garrantziagatik, funtsezkoa da Euskadin, espetxe-politika orientatu eta aplikatzeko, jende eta alde askoren adostasuna lortzea. Urruntzeak elkarbizitza distortsionatzen du. Hurbiltzeak gizartean, politikan eta erakundeetan adostasun ugaria ekartzen du.

5.4. Birgizarteratzearen arrazoia

Denboraren joanean ikasi dugu presoak urruntzeak ez duela inondik ere zigorraren helburu gizarteratzailea bultzatzen, are gehiago, baztertu eta geldiarazi egiten duela. Gaur egungo testuinguruan, terrorismoa behin betiko lagatzea irmoa denez, hau da, ez dagoenez arriskurik berriz gertatzeko, hurbiltzeak presoak bere gizartean hobeto txertatzea ekarriko luke, eta memoriari buruz eta iraganaren gogoeta kritikari buruz piztuta dagoen eztabaida konektatuko luke. Horrek gizarteratzeari izugarritzko bultzada emango lioke, eta konstituzioak funtsezko eskubidetzat eta zigorraren helburutzat jotzen du gizarteratzea.

2017ko martxoa





5

dokumentua

Osasun Saileko Osasun Publikoko
Zuzendaritzaren txostena, presoak
urruntzeak Covid-19aren testuinguruan
dituen arriskuei buruzkoa

Osasun Saileko Osasun
Publikoko Zuzendaritzaren
txostena, presoak urruntzeak
Covid-19aren testuinguruan
dituen arriskuei buruzkoa

2020ko maiatza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetz
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

Joan den apirilaren 27an, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak, Lehendakartzaren izenean, Espainiako Gobernuak Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusira honako proposamena bidali zuen: *“Espetxe-politikaren arloko proposamena, Covid-19ren pandemiaren ondorioen eta osasun publikoa babesteko neurrien testuinguruan”*. Maiatzaren 14an, pandemiaren bilakaeraren harira, bigarren idazki bat bidali zen, lehenengoan azaldutako ardatz nagusietako batzuk errepikatuz.

Proposamenak Alarma Estatuaren hurrengo hilabeteetan urruntzeak osasun publikoan eragingo duen arazoa azpimarratzen zuen, txertorik aurkitu arte. Zehazki, zioen azalpena honela formulatzen zen:

(...) “Itxura guztien arabera, Covid-19 kutsatzeko arriskuarekin lotutako prebentzio- eta babes-neurriei eusteko beharra hilabete askotan luzatuko da oraindik, Alarma Estatu altxatu eta gero ere, eta, ziurrenik, txertoa edo tratamendu eraginkorra lortu arte.

Testuinguru horretan, urruntzearen errealitateak presoen familiak, hurbileko pertsonak eta lagunak desplazamendu luzeak egitera behartzen ditu, urruneko eremu geografikoetatik datozen pertsonak astero komunikatzera behartuak. Pertsona horiek espetxeetan esparru eta espazio itxiak partekatzen eta erabiltzen dituzte, hala nola itxaroteko guneak, mintzatokiak, leihatilak, pasabideak, sarrerak eta irteerak.

Hori guztia ez da batere testuinguru gomendagarria, osasun publikoaren ikuspegitik, kutsatze posibleen barreiatze ororen prebentzioari eta kontaktuen kontrolari dagokienez. Gomendagarria ez izateaz gain saihestu daiteke eta zentzuzko konponbideak ditu. Urruntzeak gaineratzen dituen arriskuek ez diete soilik eragiten lekualdatzen diren presoen familiei; espetxe-eremuarekin zerikusia duten biztanle guztiei eragiten diete, eta, bereziki, espetxeetako profesionaleri eta funtzionarioei” (...)

Aurreko guztiaren ondorioz, Espainiako Gobernuari aurkezten zaion proposamena honako hau da:

Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorren 12.1 artikularen arabera, Covid-19aren pandemiaren ondorioen testuinguruan, eta osasun publikoa prebenitzeko eta babesteko helburuarekin, oro har preso guztientzako plan bat antolatzea preso bakoitzaren familia-ingurunetik hurbilen dauden espetxeetara hurbiltzeko.

Euskadiren kasuan, proposamen horrek berekin dakar Martutene, Basauri eta Zaballako espetxeetan kokatzea Euskadin jatorria, ohiko bizilekua edo familia-ingurunea duten preso guztiak.

Horren guztiaren helburu nagusia da pertsona-taldean joan-etorri luzeak saihestea eta ahalik eta gehien mugatzea, bai eta elkarrengandik urrun dauden eremu geografikoetatik datozen pertsonak esparru komunetan eta eremu itxietan elkartzea eta kontaktuak izatea ere, kutsadura-hedapen handia izateko arriskua areagotzen lagun baitezakete, kontaktuak kontrolatzeko eta isolatzeko zailtasun handiarekin.

Preso bakoitzaren familia-ingurunetik hurbilen dauden espetxeetara hurbiltzeko plan bat prestatu beharra planteatzen du proposamenak. Ez da bereizketarik egiten terrorismoagatik eta beste edozein delitugatik zigortutako presoen artean, eta ez da ezta euskal esparrura mugatzen ere. Proposamenean, berariaz, azpimarratzen da *“orokorrean preso guztientzat”* formulatzen dela.

Osasun publikoaren prebentzioaren eta babesaren ikuspegitik, ez dirudi logikoa, ezta zuhurra ere, urruneko eremu geografikoetatik datozen pertsonak astero lekualdatzen lagunduko duen sistema bati eustea, kutsadurak barreiatzeko arriskua areagotzen lagun baitezakete, kontaktuak kontrolatzeko eta isolatzeko zailtasun handiarekin.

Urruntze politikak osasun publikoko arazo larria du aurrean, urrundutako espetxeetan dauden presoek familien kasuan. Mota horretako desplazamenduak (luzeak eta asterokoak) ez dira gomendagarriak izango, eta kontraindikaturak egongo dira denbora luzez, txertoa edo tratamendu eraginkorra aurkitzeko berandu bezain laster.

Ez da kasualitatea espetxeen eremuan neurriak malgutzeko INT/407/2020 Agindua BOEn argitaratu ondoren, praktikan, deseskaladaren lehen faseetan, bisitariak espetxea dagoen probintzia berean bizi badira bakarrik egin ahal izatea bisitak presoek.

Maiatzaren 14an igorritako idazkian, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak Espainiako Gobernuari jakinarazi zion Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzari txosten espezifiko bat eskatzeko asmoa zuela, osasun publikoarentzat dituen arriskuei buruzkoa, hain zuzen ere, ehunka familia eta hurbileko preso Estatuko geografia osoan astero bidaia luzeetan sakabana-tzen direlako.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzak egindako txosten hori, Espetxe Era-kundeetako Idazkaritza Nagusiari igortzen zaion aldi berean, Eusko Legebiltzarrari helarazten zaio, informazio gisa.

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

Lehendakaritza

2020ko maiatzaren 25a

Euskadiko presoek Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko zentroetan zigorra betetzeko espetze-neurrien eraginari buruzko Osasun Publikoko txostena

Aurrekariak

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak txosten bat eskatu dio Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza honi, euskal presoak Euskaditik kanpoko espetzeetan kokatzeari buruzko egungo neurri penantziarioei lotutako osasunaren gaineko arrisku eta afekzioei buruz, COVID-19ren egungo pandemia-egoeraren esparruan.

Txosten honetan, osasunerako hainbat arrisku jasoko dira, eta bereziki nabarmenduko da SARs-CoV-2rekin lotutako osasun publikoko arriskuei dagokienez. Horretarako, kontuan izan behar da Osasun Publikoaren helburua, babes kolektiboko bitartekoen edo bestelako ekintzen bidez, birusaren kutsatzea prebenitzeko eta kontrolatzeko komunitateko neurriak hartzea dela. Alde horretatik, kontuan izan behar da, eskuragarri dagoen informazioaren arabera, SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioa batez ere 5 mikra baino gehiagoko arnas tantek eta kutsatutako pertsonen jariakinekin kontaktu zuzena izateak transmititzen dutela, pertsonatik pertsonara, nahiz eta ez dirudien bi metrotik gorako distantzietan gertatzen denik. Kontakua kutsatutako materialaren bidez ere egin daiteke; material hori eskuetan edo beste objektu e do gainazal batzuetan egon daiteke. Beraz, oso garrantzitsua da higiene-, garbiketa- eta desinfekzio-neurriak zorroztea.

COVID-19ko infekzioak osasunean, bai morbilitatean bai hilkortasunean, zituen ondorioak ikusita, euste-neurri zorrotzak hartu ziren maila indibidualean eta komunitarioan. Egoera pixkanaka hobetzen ari da kasu berrien kopuruari eta infekzioaren ondorio klinikoei dagokienez. Horrek guztiak arestian aipatutako neurriak lasaitzen lagundu du, normaltasun berri batera eraman gaitzaten. Egoera berri horrek hilabeteak eta urteak iraungo dituela aurreikus daiteke, eta, beraz, gogoeta egin behar da espetzeetan eta haien inguruan aplikatu beharreko neurriei buruz, osasun publikoan izango duen eraginaren ikuspegi globalarekin.

Testuinguru horretan, txosten labur hau egitean, kontuan hartuko da osasunerako arriskua, ez bakarrik Euskaditik urrun dauden espetzeetan dauden euskal pertsonentzat, baita bertako langileentzat, zentro horien inguruko biztanleentzat eta preso bisitatzaera joaten diren senide eta pertsonentzat ere.

Kontuan izan behar da Euskadiko 327 preso inguru daudela lurralde honetatik kanpoko 40 espetxetan baino gehiagotan.

Helburua

txosten honen helburua da autonomia erkidego honetatik kanpoko espetzeetan dauden Euskadiko pertsonen egungo egoerari lotutako osasun publikoko arriskuak ebaluatzea.

Kontuan hartutako osasun-arriskuak

osasunerako arriskuak kontuan hartzerakoan, Osasunaren Mundu Erakundeak ezarritako kontzeptuan ulertu behar da. Kontzeptu hori ez da soilik afekziorik edo gaixotasunik ezari buruzkoa, baizik eta erabateko ongizate fisiko, mental eta sozialari buruzkoa.

Edozein arrazoirengatik zigorra betetzen dituzten presoak beren jatorrizko tokitik urrun dauden espetzeetan barneratuta daudenez, haien bisitatzea erabakitzen dutenek bidaia luzeak egin behar izaten dituzte. Horrek guztiak ondorio batzuk dakartza presoaren, haren familiaren eta beste pertsona batzuen osasunarekin lotuta, eta are gehiago, kutsatze-arriskuak areagotu litzake espetxetako langileentzat, beste preso batzuentzat edo bidaietan geldialdiak egiten diren lekuetako biztanleentzat.

Gizarte osoarentzat sustatzen den bakartze indibiduala eta kolektiboa areagotu egiten da kolektibo horretan. Urruntzeak presoaren oreka psikikoa kaltetzen du eta osasun mentala okertzen du. Isolamendu horrek eta urruntzeak ere eragin negatiboa dute familiaren eta hurbilekoen osasun mentalean.

Distantziak familiarentzat eta hurbilekoentzat joan-etorri luzeak ekar ditzake. Lehenengo ondorioa da istripu-arriskua areagotu egiten dela, eta, horretarako, nekerako eremu eta hotel gutxiago izaten direla, batez ere ibilgailuan pertsona gutxi badoaz, gidatzean erreleboa hartu ahal izateko. Istripuetan hirugarren pertsonak kaltetu daitezke.

Espetxeek koronabirusa hedatzeko arrisku handieneko baldintzak betetzen dituzte, pertsona-talde bat etengabe elkartzearen eta elkarrekin bizitzearen ondorioz, eta gainera, uste da gaixotasunaren presentziaren ondorioek eragin bereziki larriak izan ditzaketela, gaixotasun kronikoak, adikzioak edo gaixotasun mentalak maiz dituzten presoaren osasun-baldintzak direla-eta. Beraz, prebentzioa lehenetsun bat izan behar da.

Espetxeratuaren eta espetxeetako funtzionarioen artean koronabirusaren infekzioaren prebalentzia txikia azken hilabeteetan bisitak mugatzearen ondorio da. Baina hori ez da denboran iraunkorra, osasunean dituen ondorioengatik eta eskubide bat urratzeagatik.

Ondorioen artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Presoa dagoen lekuaren arabera, bertara iristeko ibilbideak probintzia eta autonomia-erkidego desberdinak zeharka ditzake. Pandemiak irauten duen aldian, ziurrenik hilabeteetan, eragin eta transmisio-arrisku desberdinak dituzten eremu geografikoak egon daitezke, eta, beraz, ibilbidean zehar mugikortasuna mugatzeko neurri desberdinak dituzten eremuak. Covid-19aren transmisio-arriskua areagotu egiten da ibilgailuekin egiten diren joan-etorrietan, zenbat eta pertsona-kopuru handiagoa joan bertan. Bidaia laburren kasuan, normalean jende gutxiago joango litzateke autoan, eta aukera emango luke joan-etorri gehiago egiteko, pertsona kopuru txikiagoekin.
- Gero eta informazio eta baliabide gehiago dago Covid-19aren kutsadura kontrolatzeko, batez ere igarobide nazionalen, eta zenbait bermerekin egin daiteke. Nolanahi ere, arrisku horiek murriztu egingo lirateke, eta saihestu ere bai, joan-etorri horiek egitea beharrezkoa ez balitz.
- Bisitak egin ohi dituzten pertsonen bizilekutik espetxera dauden distantzia handiek kutsatzeko arriskuak gutxitu ditzaketen neurriak hartzeko aukera murrizten dute. Alde horretatik, distantzia murriztean, hobeto bana litezke pertsonak zentroetara egiten dituzten bisitak, eta aldi berean elkartuko liratekeen pertsona-taldeak murriztu. Ibilgailu berean bidaiatzen duten pertsonen kopuruari eta kontaktu-denborei ere eragingo lieke.
- Ibilbidea luzea denean, nahitaezko atsedendaldiak egin behar dira gidatzean edo bidaietan. Horrek kutsatzeko arriskua areagotzea eragiten du, ibilbideko jantokietan edo kafetegietan atsedean hartzeko gelditu behar izaten baita.

Laburbilduz, Euskadiko presoak erkidegoko espetxeetan birkokatzeak presoentzako, senideentzako eta hirugarren pertsonentzako arriskua murrizten lagunduko luke. Espetxeen kudeaketak eta senitartekoak eta gertukoak konfinatzeko neurriak lagundu dute erakunde horietako kutsatze-tasak txikiak izan daitezen. Gaur egungo konfinamendu-egoeran, ulergarria da birkokatze-neurriak hartu ezin izatea, baina laster bidaiatu ahal izango da zentro horietara beste autonomia-erkidego batzuetatik.

Nazioarteko osasun-erakundeek egindako iragarpenik arrazoizkoena eta partekatua da Covid-19 gaixotasuna ez dela desagertuko. Transmisioa kontrolatu ahal izango da herritarren erdiek baino gehiagok koronabirusaren aurkako immunitatea lortzen dutenean, dela hura pasa dutelako, dela txertaketa eraginkor baten bidez. Horregatik, ez da espero komunitate-immunitate hori lortzea hemendik urtebetara arte.

Aitzitik, hurrengo neguan gaixotasunak okerrera egitea espero da. Senitartekoek eta hurbilekoek autonomia-erkidego desberdinen artean egindako bidaiak zaildu egingo luke kasuen kontaktuak arakatzea. Aurreikus daiteke konfinamendu-egoera berrietan pentsatzea, senideek presoei bisitak egitea zailduko edo eragotziko duten neurriekin.

Gasteizen, 2020ko maiatzaren 20an

Juanjo Aurrekoetxea Agirre

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaria